

ZIZURKILGO TOKIKO AGENDA 21 IRAUNKORTASUNERAKO UDAL PROZESUA



DIAGNOSIAREN ZIRRIBORROA

2005eko abendua

1. AURREKARIAK	4
2. SARRERA	6
2.1. Metodologia	6
2.2. Parte-hartzea eta komunikazioa	9
3. EREMU ESTRATEGIKOA ETA FUNTZIONALA	11
3.1. Tokiko Agenda 21 proiektuaren ezartze eremua	11
3.2. Udaltalde 21 Ernioaldea udalerrien eremuan parte hartzen duten erakundeen egitura funtzionala	11
3.3. Tokiko Erakundeen organigrama funtzionala	12
4. DEMOGRAFI ETA LURRALDE EREMUA	15
4.1. Biztanleria:	15
4.1.1. Biztanle dentsitatea	15
4.1.2. Biztanleriaren eboluzioa	16
4.1.3. Biztanleriaren egitura	16
4.1.4. Familien egitura eta tamaina	17
4.1.5. Migrazio mugimenduak	19
4.2. Udalez gaindiko planeamenduaren eragina udalerriko eremuan	20
4.3. Hiri planeamendua eta lurzoruaren erabilera	21
5. INGURUNE SOZIOKULTURALA	26
5.1. Etxebizitza	26
5.1.1. Etxebizitza kopuru totala eta eboluzioa	26
5.1.2. Etxebizitza motak	26
5.1.3. Etxebizitza eskaintza, eskaria eta aurreikuspenak	28
5.1.4. Etxebizitzen erosotasun indizea	30
5.1.5. Etxebizitza bakoitzeko biztanle kopurua	30
5.2. Hezkuntza	31
5.2.1. Udalerriko ikastetxeak	31
5.2.2. - Ikasketa eremu bakoitzeko ikasle kopurua	32
5.2.3. Biztanleriaren eskolatze maila	33
5.3. Osasuna	34
5.3.1. Udalerriko osasun zerbitzuak: ekipamenduak eta giza baliabideak	34
5.3.2. Eskualde mailako zerbitzuak	34
5.4. Gizarte zerbitzuak	35
5.4.1. Gizarte ongizateko Udal aurrekontua	35
5.4.2. Ongizateko problematika	35
5.4.3. Gizarte ongizateko zerbitzuen eskaintza eta erabiltzaileak	35
5.5. Kultura, erlijioa eta aisia	36
5.5.1. Ondare kulturala eta historikoa. Udal ondarea	36
5.5.2. Kultur, erlijio eta aisialdirako ekipamenduak	37
5.5.3. Jarduera soziokultural eta erlijiozkoak	38
5.6. Kirola	39
5.6.1. Kirol ekipamenduak	39
5.6.2. Kirol jarduerak	39
5.7. Euskara	41
5.7.1. 2. urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera. 2001.	41
5.7.2. Euskararen sustapena	42
5.8. Kontsumoa:	43
6. INGURUNE EKONOMIKOA	44
6.1. Egitura ekonomikoa	44
6.1.1. Biztanleko errenta gordina, lurralde-eremuka (€-tan) 2001. urtean	44
6.1.2. Jarduera ekonomikoak	45
6.2. Enplegua	58
6.2.1. Biztanleria aktiboa eta ez aktiboa	58

6.2.2. Langabezia tasa eta kopuru totala sexu, adin eta ikasketa mailaren arabera	59
6.2.3. Lanaren sustapenerako proiektuak/jarduerak	61
7. INGURUMEN NATURALA	62
7.1. Ibaiak	62
7.2. Landaredia	66
7.2.1. Landaredia Potentziala	66
7.2.2. Gaur egungo landaredia. Landare estalkiaren bilakaera azken hamarkadetan.	66
7.3. Fauna	74
7.4. Naturgune eta elementu natural babestuenak	80
7.4.1. Babestutako naturgune eta elementuak	80
7.5. Ondare naturala eta paisaia kontserbatzeko intereseko eremuak	83
7.5.1. Interesgariak izan arren babestu gabe dauden eremuak	83
7.6. Ingurune naturala birsortzeko proiektuak	83
8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	84
8.1. Errepide sarea	84
8.1.1. Udalerriko egungo errepide sarea	84
8.1.2. Errepide berriak egin edo egungoak hobetzeko proiektu/aurreikuspenak	88
8.1.3. Puntu beltzak, gune arriskutsuak. Eskatuta	88
8.2. Mugikortasunaren ezaugarriak	89
8.2.1. Mugikortasunaren arazoak	89
8.2.2. Ibilgailuak	91
8.2.3. Aparkalekuak	93
8.2.4. Garraio publikoa	94
8.2.5. Oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna	98
8.3. Irisgarritasuna	99
9. INGURUMEN BEKTOREAK	101
9.1. Ura	101
9.1.1. Ur baliabideak	101
9.1.2. Ur hornidura	101
9.1.3. Ur kontsumoa	105
9.1.4. Saneamendua	106
9.1.5. Horniduraren, saneamenduaren eta uraren erabileraren udal kontrola	106
9.2. Energia	108
9.2. Energia	108
9.2.1. Energia hornidura iturriak	108
Mahai Teknikoan jakinarazi zen, Zizurkil Goikoan propano depositoa dagoela.	109
9.2.2. Udalerriko energia kontsumoa	109
9.2.3. Energia berriztagarriak	109
9.2.4. Energia aurrezteko udal neurriak	110
9.3. Hondakinak	111
9.3.1. Hondakinen sorkuntza	111
9.3.2. Hondakinen kudeaketa	112
	113
9.3.3. Informazio eta komunikazio kanpainak	117
9.3.4. Kontrolik gabeko isurpen puntuen identifikazioa	117
9.4. Atmosfera eta akustika	118
9.4.1. Atmosfera	118
9.4.2. Akustika	118
10. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA	120
10.1. Baso ustiapena eta suteak	120
10.1.1. Baso aprobetxamendua	120
10.1.2. Baso suteak	123
10.1.3. Eraginaren deskribapen kualitatiboa	123

10.1.4. Zertifikatutako baso ustiapenak.....	124
10.1.5. Kexa eta salaketak.....	124
10.2. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak	125
10.2.1. Eraginaren deskribapen kualitatiboa	125
10.2.2. Nekazaritza/abelzaintza ekologikoko ustiategiak.....	126
10.2.3. Kexa eta salaketak.....	126
10.4. Industria/zerbitzuak	127
10.4.1.Eraginaren deskribapen kualitatiboa (zaratak, usainak...).....	127
10.4.2.Zertifikatutako enpresak (kalitatea, ingurumena)	128
10.4.3.Jarduera Lizentzien tramitazio egoera.....	129
10.4.4.Kexa eta salaketak.....	129
10.5. Lurzoru poluituak.....	129
10.5.1.Potentzialki poluitutako lurzoruen identifikazioa eta leheneratze jarduerak.	129
11. KOMUNIKAZIO, SENSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA.....	131
11.1. Komunikazio kanalak.....	131
11.1.1. Udalerrri mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak.....	131
11.1.2. Eskualde mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak.....	131
11.1.3. Udalak erabiltzen dituen komunikazio-kanalak: Bandoak, komunikabideak...	131
11.2. Partehartzea	131
11.2.1. Udal batzordeak: Batzorde irekien existentzia	131
11.2.2. Partehartzeko beste modu batzuk (auzolana, erligiosoa...)	132
11.3. Udalerriko elkarte sarea	132
11.3.1. Udalerriko elkarteak	132
12. UDAL KUDEAKETA	133
12.1. Udal ingurumen kudeaketa	133
12.1.1. Udal ingurumen araudia.....	133
12.1.2. Ingurumen edo/eta iraunkortasuneko irizpideak kontutan hartu direneko jarduerak.....	133
12.2. Arriskuen analisi eta kudeaketa.....	133
12.2.1. Udalerrri mailako Larrialdi Planak	133
12.2.2. Udal azpiegitura eta instalazioetarako Larrialdi Planak.....	134
12.3. Udal langileriari zuzendutako prestakuntza.....	134
13. LABURPENA ETA ONDORIOAK	135
13'. RESUMEN Y CONCLUSIONES	156
14. HELBURUEN PROPOSAMENA	177
14'. PROPUESTA DE OBJETIVOS	181
I. ERANSKINA: LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK	185
II.ERANSKINA: BILEREN AKTAK	212
a) Bileren aktak	213
b) Actas de las reuniones.....	229

TOKIKO AGENDA 21. ZIZURKIL

UDALTALDE 21 ERNIOALDEA

ERNIOALDEAKO UDALTALDE21-EKO ESKUALDEKO BATZORDEA

PARTE HARTUTAKO UDALETXEAK
Arantza Aburuza Alkorta. Adunako Alkatesa
Fidel Azpiroz Arrillaga. Anoetako Alkatea
Iñaki Amenabar Aranburu. Asteasuko Alkatea
Joxe Mari Iraola. Hernialdeko Alkatea
Marimi Ugalde Zabala. Irurako Alkatesa
Bakartxo Tejeria Otermin. Villabonako Alkatesa
María Ángeles Lazkano Larrañaga. Zizurkilgo Alkatesa

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA
Peio Aseginolaza Oyarbide. Tolosaldeako Mankomunitateko Lehendakari ohia
Bakartxo Tejeria. Tolosaldeako Mankomunitateko Lehendakaria.
Itziar Eizagirre. Udaltalde21-eko Koordinatzailea

IHOBE
M^a Mar Alonso
Agate Goyarrola

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Aitor Lekuona

DIAGNOSTIKOAK LANTZERA KOAN PARTE HARTU DUTEN LAGUNTZAILEAK

ARDURADUN TEKNIKOAK ETA UDAL POLITIKARIAK

Angel Manuel. ANSA
Sagrario Jauregiberri. Zinegotzia
Maria Angeles Lazkano. Alkatesa
Idoia Lazkano. Zinegotzia
Irati Galarza. Aparejadorea
Egoitz Sorozabal. Zinegotzia
Ainhoa Azpeitia. Udal Teknikaria

GIZA ERAGILEEN ORDEZKARIAK

Jesus Garmendia Astarloa
Eladio Barquero Ortega
Samuel Vicente Rodriguez
Gonzalo Cambero Rodriguez
Pedro Arrastoa
M^aDolores Sanchez
Xabier Lacarra
Juan Manuel Erasun
Igotz Alkorta
Juan Antonio Gonzalez
David Bengoetxea
Eva Amenabar
Ainhoa Zaldua
Saba Cambero
Maria Bengoetxea
Mikel Labaien

AHOLKULARI TALDEA: ONDOAN S.COOP eta HAIZEA S.L.

Maider Etxaide. Koordinatzailea

Jon Zubiria. Koordinatzailea

Eneko Diez. Teknikaria

Junkal Fernandez. Teknikaria

Ainhoa Zubilaga. Teknikaria

Patxi Olasagasti. Teknikaria

Arantxa Zubizarreta. Teknikaria

Leire Egaña. Teknikaria

María Heras. Teknikaria

Jokin Lapaza. Teknikaria

Laura Moreno. Teknikaria

1. AURREKARIAK

Gizadiak bere subsistentziarako edo garapenak sortzen dituen beharrak asetzeko produktuak erauzterakoan natura erabiltzeko duen modua, erabat lotuta dago gizadi jarduerak sistema naturalarekin duen harremanarekin. Giza jarduerak efektu eta aldaketak eragin ditu sistema naturaletan, zenbait positiboak, beste batzuk negatiboak, batzuk itzulgarriak eta itzulezinak besteak, agerikoak batzuetan, hautemateko zailak gehienetan, eta maiz arbuigarriak, baino askotan katastrofikoak.

Gizarte sistemak betidanik erabili du sistema naturala, baliabide naturalak ustiatuz, edo inguru naturalak moldatzeko eta asimilatzeke duen gaitasuna aprobetxatuz. Erabilpen eskala da berria, baino baliabide naturalak geroz eta era intentsiboagoan ustiatzen baititu, eta sistema naturalen asimilazio eta erresilientzia gaitasunaren gainean presioa eragiten baitu.

Komunitate internazionalak ondorio sozioekonomikoak eta ingurumenaren narriadura aztertzeke deialdia egin zueneko lehen aldia 1972an izan zen. 113 nazioak parte hartu zuten Estokolmon Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Batzarrean.

Ondoren, 1987an, Nazio Batuen **Ingurumen eta Garapen Batzordeak**, garai hartan Gro Harlem Brundtland mahaiburu zelarik, *Gure etorkizun komuna* deritzon txostena aurkeztu zuen. Brundtland Txostena bezala ezagunagoa den aipaturiko txosten honetan, garapen iraunkorraren kontzeptua aurkeztu zuen eta honela definitu zuen *“orainaldiko beharrianak asetzen duen garapena, betiere hurrengo belaunaldiak euren asetzeko arriskuan jarri gabe”*

Tokiko iraunkortasunaren aldeko mugimendua 1992an Rio De Janeiroko Lurraren Goi-Bileran onaturiko iraunkortasuneranzko Ekintza Programa batetik sortzen da. Programa hau Agenda 21 izendatua izan zen eta 28.artikuluak aipamen berezia merezi du, non Tokiko Programa 21 edo Tokiko Agenda 21 burutzeke tokiko agintarien ardurak finkatzen diren. Iraunkortasuneranzko prozesu honetan tokiko agintariek ekimenetarako ardura eta gidaritzza bere gain hartzea beharrezkoa dela adierazten da.

1994ean, Rioko Goi-bilerako eta Europar Batasuneko Ingurumen Programako mezua jasoz, tokiko ente ugari Aalborg-en (Danimarka) bildu ziren Europako Hiri Jasangarrien I. Konferentzia ospatzeko. Konferentzia honetan iraunkortasuneranzko Europako Hirien Agiria aurkeztu zen, Aalborg-eko Agiria bezala ezagunagoa dena. Garai hartan laurogei udalerrrik sinatu zuten agiria, iraunkortasunera bideratzeko tokiko prozesu partehartzaile bat hasteko borondatea hartuz: mundua gogoan jardun auzoan.

Orduraz geroztik, herri eta hiri ugari atxikitu dira Aalborg-eko Agirira, gaur egun 2000 hiri izanik euren tokiko Agenda 21en elaborazio prozesua martxan jarri dutenak.

Hamar urte geroago, 2004ko Ekainean Aalborg+10 ospatu da, non iraunkortasunaren aldeko hamar urteetako tokiko ekintza errebisatzeko aukera eskaini den, Agenda edo Programatik Ekintzara igarotzeko helburu berriak finkatu eta Aalborg-eko Agiritik Aalborg-eko konpromisoak hartzera igaroz. Konpromiso hauen helburua Europa osoan hiri iraunkortasunaren aldeko egungo ahaleginak sendotzea, Tokiko Agenda 21 suspertzea eta tokiko zein iraunkortasun globalerako helburu, estrategia eta ekintza berrien definizioan laguntzea baizik ez da.

Euskal Herriari dagokionean, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorrak, ikuspuntu orokor batetik hiri gaietarako jarduketa guztietan udalerriek iraunkortasunean oinarrituriko estrategiak bere gain hartzearen garrantzia aitortzen du. Lege honek jopuntu gogoangarri bat suposatzen du, Euskal Autonomi Erkidegoko lurralde-eremu osoan garatutako ingurumen politika ororen helburu izan behar duen garapen iraunkorra finkatzen baitu.

Legeak, Euskal Herriko ingurumen politika lau urterako Ingurumen Programa batean gauzatuko dela finkatu arren, beharrezkoa ere ikusten du ingurumen politikaren antolamendu egonkor eta iraunkor baten antolaketa sustatzea, inizatiba pribatua eta ekintza publikoa bermez segurtasunez eta eraginkortasunez hornituko duena.

Arrazoi hori dela eta Eusko Jaurlaritzak 2002-2006 Ingurumen Programa onartu zuen, eta ondoren epe luzeko ikuspegi estrategiko batean kokatu zuen (2002-2020), Garapen Iraunkorraren Euskal Estrategia finkatuz.

Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak bost jomuga finkatzen ditu:

- Aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea
- Natur Baliabideak eta hondakinak erantzukizunez kudeatzea
- Natura eta Biodibertsitatea babestea
- Lurralde oreka eta mugikortasun orekatua lortzea ikuspegi bateratuaz
- Klima aldaketaren eragina mugatzea

EAEko estrategiak iraunkortasunerantz bideratzeko ezartzen dituen baldintzen artean, 2006rako 5.000 biztanletik gorako EAEko udalerrri guztiek, bakarka zein eskualdeka, euren Tokiko Agenda 21 diseinatua izan dezatenaren konpromisoa dago.

2. SARRERA

Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil udalerriek Tolosaldeko Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta IHOBE S.A. Sozietate Publikoaren bitartez Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentuarekin batera 2004ko urrian Ernioaldeko UDALTALDE 21 eratzeke Hitzarmena sinatu zuten.

Lan talde honen helburua aipaturiko udalerri bakoitzean Tokiko Agenda 21 garatzea da, iraunkortasuneranzko bidea hasteko helburuarekin. Horretarako lehen pausoa 2005eko maiatzean eman zuten, Aalborg-eko Gutuna sinatuz eta egun Diagnostikoaren zirriborroa egina dute.

2.1. Metodologia

Agenda 21 prozesu jarraitua da, bat batean gauzatu ezin dena eta denbora zehar irauteko bokazioa duena. Hori dela eta bi aldi nagusi bereizi ohi dira bere garapenean: Diseinu-fasea eta Ezarpen-fasea. Diseinu-faseak proiektuaren hastapenetik ekintza plana diseinatzeraino iraungo du. 18 hilabeteko batz besteko iraupena izaten du. Ezarpen-fasea berriz hortik aurrerakoa eta etengabea izango da, planeko ekintza horien gauzatzean izango baitu mamia.

Agenda 21eko ohiko metodologian ondoko urratsak bereizten dira Diseinu fasean:

- Motibazioa
- Diagnostikoa
- Ekintza Plana
- Jarraipen Plana

Lehen faseko helburua prozesuan inplikaturik dauden eragileak motibatzea da eta horretarako bilera eta informazio-bilkurak egiten dira. Fase hau Aalborg-ko Gutunaren sinadurarekin amaitu daiteke.

Udalek konpromisoak hartu ondoren udalerriaren Diagnosi osoaren burutze lana hasten da. Ingurumen eta sozioekonomia sektoreen analisiaren bitartez, alde batetik aspektu estruktural eta bestetik teknikari eta herritarren ekarpenekin batera, diagnostiko bat egiten da, non egungo egoera eta dagoen problematika deskribatzen den herriak dituen, gabeziak, indarguneak eta ahuleziak, alegia.

Momentu honetan Villabonako udalerria fase honen garapenaren amaieran aurkitzen da. Txosten honek udalerriko Diagnostikoaren zirriborroa jasotzen du, ondorengo atal edo gaitan bananduta:

- Demografia eta lurralde eremua
- Ingurune sozio-kulturala
- Ingurune ekonomikoa
- Ingurune naturala
- Mugikortasuna eta garraioa
- Ingurumen bektoreak
- Jarduera ekonomikoen eragina
- Komunikazio, sentsibilizazio eta Parte-Hartzea
- Udal kudeaketa

Hurrengo pausoa aurretik buruturiko Diagnosia oinarritzat hartuz Villabonako Ekintza Plana egitea izango da. Diagnostikoak helburu orokorrak edo lerro estrategikoak finkatzeko balioko du, eta baita helburu eta ekintza zehatzagoak proposatzeko ere. Guztien artean Ekintza Plana egituratuko dute.

Ekintza Planaren bilakaera ezagutzeko eta ipinitako helburuak betetzen ote diren aztertzeko erreminta gisa Jarraipen Plana diseinatuko da. Honen oinarria iraunkortasun-adierazleez osatutako sorta bat izango da.

MOTIBAZIOA
■ Udalerriaren ezagutza eta motibazioa ■ Prestaketa saioak ■ Udal Konpromisoa eta Liderazgoa ■ Aalborg-ko Gutunari atxikitzea



INGURUMEN-SOZIOEKONOMI DIAGNOSTIKOA	
EGOERAREN ANALISIA ■ Bektore sozialak ■ Bektore ekonomikoak ■ Ingurumen bektoreak ■ Aspektu estrukturalak	DIAGNOSIA ETA BILAKAERA ■ Aurre-diagnostiko teknikoa ■ Herritarren Diagnostikoa ■ Ebaluazioa eta azken diagnostikoa



TOKIKO EKINTZA PLANA PLAN
■ EKINTZARAKO LERRO ESTRATEGIKOAK: Ekintza Plana oinarritzen deneko helburu orokorrak ■ JARDUKETA PROGRAMA: Lerro estrategiko bakoitzeko helburu estrategikoak ■ EKINTZAK: Programako helburuak lortzeko proiektu edo ekintza konkretuak



JARRAIPEN PLANA
■ Jarraipena eta kontrola: - Iraunkortasun adierazleak - Tokiko adierazle espezifikoak - Parte-hartze mailaren adierazleak - Ekintza Plana betetze mailaren adierazleak

2.2.Parte-hartzea eta komunikazioa

Aalborg-ko gutunak herritarrek tokiko prozesuetan erabakiak hartzeko parte hartu ahal izatearen garrantzia azpimarratzen du. Zentzu honetan, Aalborg-ko Gutuna sinatu dutenak ondoko konpromisoa hartzen dute: eragile guztien arteko lankidetzaz bilatzea prozesuan zehar, herritar guztiei informazioa eskuratzeko eskubidea bermatzea eta tokiko prozesuetako erabaki-hartzetan partikularki edo erakunde baten ordezkapenean parte hartu ahal izateko ardura ukatea konprometitzen dira

Ernioaldeko Udaltalde 21ean zenbait bitartekari erabili dira parte-hartzea sustatzeko:

- **Kontsultarako telefonoa**

Kontsultarako telefono bat (943 692536) martxan jarri du, bertan interesatuek Agenda 21en inguruan dituzten zalantzak argitzeko, edota euren proposamenak, iritziak eta kezak azaltzeko.

- **Mahai teknikoak**

Diagnostikoaren elaborazio prozesuan zehar Mahai Teknikoak deiturikoak bildu ziren, non teknikari eta iraunkortasun gaiaren inguruan adituek euren ikuspuntuak eman zituzten udalerriaren egoerari dagokionez. Honetarako bi Mahai osatu ziren lanerako ondorengo gaiekin:

- Planeamendua, ingurune naturala, mugikortasuna, ingurumen sektoreak, jardueren eragina ingurumenean eta udal kudeaketa.
- Sozioekonomia eta parte-hartzea

Lehenengo mahaia azaroan bildu zen. Bigarrena aldiz, ez da bildu oraindik eta otsailean biltzea aurreikusten da.

Mahai hauek Ekintza Plana eta Jarraipen Plana burutzeko ere bilduko dira.

- **Inkestak**

Diagnostikoa osatzeko 400 inkesta inguru egin ziren inplikaturako udalerrietan. Honela, ingurumen, ekonomia eta gizartearen alderdi nagusien inguruan herritarrek duten pertzepzioa determinatu ahal izan zen.

Erabilitako inkestaren lagina Ernioaldeako Udaltaldearen ingurune osorako izan da. Udalerri bakoitzaren emaitzak nahi izango balira %95eko ziurtasun maila, udalerri bakoitzean egindako inkesta kopurua handitu beharko litzateke

Zizurkilgo kasuan 65 inkesta egin dira.

- Herri Batzarrek

Herritarren ekarpenak jasotzeko eta Diagnostikoa osatzeko herritarrei zabalduko Herri Batzarrerako deialdia egin zen, non bertaratutakoek euren iritziak eta kezak azaldu ahal izan zituzten. Tokiko Agenda 21en diseinua eta ezarpen prozesuko fase desberdinetan beste zenbait Herri Batzar antolatuko dira, momentu oro herritarrek euren ekarpenak egin ahal izateko.

Diagnostikoa osatzeko Herri Batzarra azaroaren 17an egin zen Zizurkilen. Bertan herritarrek hainbat gairi buruz dituzten hautemateak jaso ziren. Ekarpen hauek dokumentu honetan jasotzen dira.

- Kale dinamikak

Hiru komunikazio kanpaina burutu dira:

- 1.- Aste Berdea
- 2.- Mugikortasun iraunkorraren Astea
- 3.- Herritarrei zuzendutako informazio kanpaina.

Herritarrei zuzendutako kanpainaren oinarria, klean, Tokiko Agenda 21aren inguruan informatzea izan da. Parte-hartze dinamika eta tailerren bidez, udalerriko eta taldeko prozesu parte-hartzaileetan partaidetza izateko gonbitea luzatu zaio herritarrari. Udalerriko talde eta gizarte eragile adierazgarriak identifikatu dira bestalde eta bakoitzarekin bilerak egin dira. Zizurkilen buruturiko jarduerak ondorengoak izan dira:

egindakoak: 3 bilera+tailerra+kale din.	
- Urkamendi elkarteko ordezkariarekin bilera	- Ikastolako eta Otaño ikastetxeko guraso elkartekoekin bilera (tailerra)
- Ziotza elkarteko ordezkariarekin bilera	- Jubilatu elkartekoekin tailerra eta merienda
- Zizurkil goiko eskolako guraso elkarteko ordezkariarekin bilera	- Kale dinamika (guraso/ume): “gabon postal berziklatuak” antzerki egunean
- Gazte asanbladarekin tailerra (proiektzioa)	
- Zizurkil goiko azokako kale dinamika	

3. EREMU ESTRATEGIKOA ETA FUNTZIONALA

ZIZURKILgo Tokiko Agenda 21en diseinu eta ezarpen prozesua Ernioaldeako Udaltalde 21 eremuan burutzen da.

Ernioaldeako Udaltalde 21 osatzen duten udalerriek eremu funtzional eta konplexu batetan kokatzen dira eta eremu hau eskumen eta interbentzio esparru ezberdinak dituzten erakunde ezberdinez osaturik dago.

3.1. Tokiko Agenda 21 proiektuaren ezartze eremua

Udaltalde 21 Ernioaldea ondorengo udalerriak osatzen dute: Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Hernialde, Villabona eta Zizurkil.

3.2. Udaltalde21 Ernioaldea udalerrien eremuan parte hertzen duten erakundeen egitura funtzionala

Nahiz eta proiektu honen helburua Udaltalde 21eko udalerri bakoitzak bere Ekintza Plana edukitzea izan, Tokiko Ekintza Planak egiterako garaian erakunde ezberdinak (Mankomunitatea, Ur kontsorzioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, e.a.) lehendik garatzen ari diren plan, programa eta ekintzak ere kontutan hartu beharko dira.

Horrekin batera, erakunde bakoitzaren eskumenak noraino heltzen diren jakitea beharrezkoa izango da ekintza planeko ekintzak gauzatzerako garaian erakunde Zizurkili dagokionez udalaz gaindiko ondorengo erakundeak azpimarratzen dira:

- Gipuzkoako Ur Kontsorzioa.
- Loatzo Udalerrien Mankomunitatea
- Tolosaldeko Zaborren Mankomunitatea
- Tolosako Hiltegi Eskualdearraren kudeaketarako Udalerrien Mankomunitatea
- EUDEL, Euskal udalerrien Elkartea
- EUSKAL FONDOA
- TOLOSALDEAKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA-TOLOMENDI
- TOLOSALDEKO HEZIKETA ETA ENPLEGURAKO ESKUALDEKO ELKARTEA
- Aiurri Mankomunitatea

3.3. Tokiko Erakundeen organigrama funtzionala.

Tokiko Agenda 21-eko prozesuak Udaletxe bakoitzaren funtzionamenduan eta kudeaketan iraunkortasun irizpideak sartzearen beharra ekartzen du, hauek direlako herritarrekiko hurbilen dauden antolakuntzazko eta erabakigarritzko izaera duten erakundeak.

Iraunkortasuna udalaren eguneroko kudeaketako alderdi guztiekin lotutako aldagaia dela azpimarratu behar da: gizarte-gaiak (oinarrizko beharrianak asetzea eta bizi-kalitatea), ekonomia (udalerri-eskualdearen ekonomi jardueraren banaketa eta horrek ingurumenean izan dezakeen eragina, langabezi tasak, e.a.) edo hirigintzako gaiak (lurzoruaren okupazioa, urbanizatu ezin den lurzoruaren eta inguruneko natur balioen kudeaketa e.a.) hain zuzen ere.

Tokiko Administrazioaren gaur egungo funtzionamendua konpartimentu independenteetan oinarritzen da, departamenduen arteko erlazioa eta komunikazioa eskasa izanik. Honek zenbait proiektuen ikuspegia zaildu egiten du, adibidez Tokiko Agenda 21-arena.

Tamaina handiagoa duten udalerriek Batzorde ezberdinak dituzte eta hauetan era batera edo bestera ingurumena barneratzen da.

Zizurkilgo Udaletxearen Organigrama Funtzionala modu honetan banaturik dago:

UDALAREN OSOKO BILKURA

Alkatea

M^a ANGELES LAZKANO LARRAÑAGA (C. EAJ/PNV-EA)

Alkateordeak

EGOITZ SOROZABAL ITURAIN (C. EAJ/PNV-EA)

AITOR LOPEZ UGARTEMENDIA (C. EAJ/PNV-EA)

Zinegotziak

SAGRARIO JAUREGIBERRI UGARTEMENDIA (C. EAJ/PNV-EA)

IDOIA LAZKAO ARREGI (C. EAJ/PNV-EA)

JUAN RAMON GABARAIN AMENABAR (C. EAJ/PNV-EA)

IDOIA ARIZNABARRETA UGARTE (C. EAJ/PNV-EA)

JASONE AGIRREZABALA ERKIZIA (C. EAJ/PNV-EA)

OSCAR MARTINEZ ORIVE (PSE-EE (PSOE))

FRANCISCO ALONSO ABAD (PSE-EE (PSOE))

GONZALO QUIROGA CHURRUCA (PP)

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

M^a ANGELES LAZKANO LARRAÑAGA

EGOITZ SOROZABAL ITURAIN

AITOR LOPEZ UGARTEMENDIA

SAGRARIO JAUREGIBERRI UGARTEMENDIA

JUAN RAMON GABARAIN AMENABAR

Area edo Informazio Batzordearen arduraduna

EUSKERA ETA KULTURA / EUSKERA Y CULTURA

JASONE AGIRREZABALA ERKIZIA

GIZA ESKUBIDEAK ETA HERRITARREN PARTAIDETZA / DERECHOS HUMANOS
Y PARTICIPACION CIUDADANA

M^a ANGELES LAZKANO LARRAÑAGA

GIZARTE ONGIZATEA / BIENESTAR SOCIAL

IDOIA LAZKAO ARREGI

HIRIGINTZA / URBANISMO

EGOITZ SOROZABAL ITURAIN

KIROLA ETA GAZTERIA / DEPORTE Y JUVENTUD

AITOR LOPEZ UGARTEMENDIA

LANARIGOA / PERSONAL

SAGRARIO JAUREGIBERRI UGARTEMENDIA

NEKAZARITZA ETA INGURUMENA / AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

IDOIA LAZKAO ARREGI

OGASUNA / HACIENDA

JUAN RAMON GABARAIN AMENABAR

Idazkaria:

JOSE RAMON ECEIZABARRENA GARMENDIA

Kontuhartzailea:

JOSE RAMON ECEIZABARRENA GARMENDIA

UDAL ERAKUNDEAK

TOLOSALDEA GARATZEN, S.A.

San Esteban, 20

Telefono(s): 943/654501

Iturria: Eudel

4. DEMOGRAFI ETA LURRALDE EREMUA

4.1. Biztanleria:

Udalerri bateko biztanleek osatzen dute Tokiko Agenda 21en oinarri eragilea, hauek izanik garapen politika eta etorkizuneko estrategiei zentzua ematen dieten eragileak. Honela bada, eskualde bateko errealitatea analizatzeko biztanleria karakterizatzea abiapuntu egokitzat jotzen da, izan ere gainerako arloetan -jarduera ekonomikoak, eskualdeko eta udalerriko ingurumen egoera, zerbitzu publikoen eskaintza, etab.etan-modu zuzenean eragingo baitu.

4.1.1. Biztanle dentsitatea

- Biztanleria, lurralde-eremuen, sexuaren eta biztanleria-dentsitatearen arabera. 2001

	Biztanleria dentsitatea 2001 (bizt./km ²)	Biztanleria dentsitatea 2.004 (bizt./km ²)
Euskal AE / C.A. de Euskadi	287,9	
Gipuzkoa	340,1	
Tolosaldea / Tolosa	133,4	
Aduna	47,6	
Anoeta	416,8	
Asteasu	76,3	
Hernialde	68,1	
Irura	303,3	
Villabona	320,5	
Zizurkil	181,9	182,45*
<i>Iturria: EUSTAT 2001</i>		
<i>*gipuzkoa.net-eko datuak, betan landuta</i>		

Ikus daitekeenez, biztanleria dentsitateak gora egin arren Zizurkilen azken hiru urteetan, Gipuzkoakoa baino baxuagoa izaten jarraitzen du, baina Tolosaldeakoa baino altuagoa.

4.1.2. Biztanleriaren eboluzioa

Urtea Kopurua	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
Guztira	2.708	2.692	2.684	-	2.660	2.763	2.843	2.889	2.900	2.885	2.855
Gizonak	1.380	1.379	1.358	-	1.357	1.398	1.450	1.461	1.486	1.477	1.467
Emakumeak	1.328	1.313	1.326	-	1.303	1.365	1.393	1.428	1.414	1.408	1.388

Iturria: INE (eta udal errolda 2005)

Zizurkilgo biztanleriaren kopuruak gorabeherak izan ditu azken hamar urteetan, egun 1994koa baino altuagoa delarik.

4.1.3. Biztanleriaren egitura

- Biztanleria, lurralde-eremuen, sexuen arteko ratioaren, adin-taldean, familia-elkarbizitzaren eta naziotasunaren arabera. 2001.

	Sexuen arteko ratioa (1)	Adin-taldeak %			Familiako elkarbizitza %		Atzerritarrak %	
		0-19	20-64	65+	Familia	kolektibo	EB	Gainerakoa
Euskal AE / C.A. de Euskadi	1,0	17,0	65,0	17,9	99,2	0,8	0,4	1,1
(T) Gipuzkoa	1,0	17,5	64,8	17,7	99,1	0,9	0,5	0,9
(C) Tolosaldea / Tolosa	1,0	18,4	64,5	17,2	99,3	0,7	0,3	0,6
Aduna	1,1	18,3	64,9	16,8	100,0	-	0,3	-
Anoeta	1,1	22,6	65,9	11,5	100,0	-	0,7	0,1
Asteasu	1,1	20,2	65,0	14,8	99,7	0,3	0,6	0,6
Hernialde	1,0	18,9	63,6	17,5	100,0	-	-	2,1
Irura	1,1	18,0	70,8	11,2	100,0	-	0,1	1,1
Villabona	1,0	19,8	66,6	13,5	99,9	0,1	0,4	0,6
Zizurkil	1,0	19,6	66,1	14,3	99,1	0,9	0,4	1,1

(1) Gizonezkoak / emakumezkoak zatidura

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua (BEZ01)

ADIN TALEA	GUZTIRA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
0-3	140	79	61
4-9	156	68	88
10-12	80	41	39
13-16	95	46	49
17-19	89	46	43
20-34	684	355	329
35-49	645	333	312
50-64	535	282	253
65-74	244	126	118
75 eta gehiago	168	72	96
GUZTIRA	2.836	1.448	1.388

Iturria: 2005eko Zizurkilgo AASSen berrikusketa, 2003ko barruko udal datuak

- Zizurkilen 20-64 bitarteko adin taldea da nagusitzen dena eta honen barnean bereziki 20-34 bitartekoa, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere.
- Zizurkilen, biztanleriaren gehiengoa familiatan bizi da baina Udaltaldeko beste herri batzuetan baino gutxiago.
- Atzerritar gehienak EBetik kanpo dauden herrialdeetakoak dira.

4.1.4. Familien egitura eta tamaina.

- **Familiak, lurralde-eremuen, motaren eta batez besteko tamainaren arabera. 2001.**

	Familia kopurura	Pertsona bakarrekoa	Konposatua ¹	Gunea seme-alabarik gabe ²	Gunea seme-alabekin	Guraso bakarrekoa	Handitua ³	Gune askotarikoa ⁴	Batez besteko tamaina
Euskal AE / Euskadi	748.967	151.855	25.371	127.615	302.533	75.428	53.198	12.967	2,76
(T) Gipuzkoa	245.913	53.926	9.314	41.463	95.040	24.587	17.520	4.063	2,72
(C) Tolosaldea / Tolosa	16.195	3.832	718	2.377	5.935	1.822	1.205	306	2,72
Aduna	112	27	5	16	37	8	13	6	2,97
Anoeta	569	95	12	66	280	60	48	8	3,00
Asteasu	424	88	18	63	154	33	50	18	3,03
Hernialde	95	22	6	13	32	7	10	5	3,01
Irura	368	98	18	85	108	28	27	4	2,47
Villabona	2.117	489	101	312	822	233	142	18	2,67
Zizurkil	959	179	36	153	404	87	73	27	2,94

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua (BEZ01)

¹ ez du famili gunerik, eta pertsona biz edo gehiagok dago osatuta, zeinak ahaidetasunez loturik edo ez loturik egon baitaitezke.

² seme-alaba ezkongaberik gabeko senar-emazteek osatutako famili gunea.

³ edozein motatako famili gunea, ahaide bat edo gehiago bizi direla.

⁴ bi famili gunea edo gehiagokoak

- Zizurkilgo familien gehiengoak (%42) seme-alabak dituzte, baita Gipuzkoa (%38,64) eta Tolosaldekoak ere (%36,64).
- Pertsona bakarrekoak (%18) dira ugarienak ondoren Zizurkilen.

• **Familiak, lurralde-eremuen, adin-taldeen eta jardueraren arabera. 2001.**

	Familiak	Familia-tamaina(1)	Adina			Jarduerarekiko erlazioa		
			0-19	20-64	>65	Landunak	Langabeak	Menpekoak
Euskal AE / C.A. de Euskadi	748.967	2,76	0,47	1,80	0,48	1,15	0,15	1,28
Gipuzkoa	245.913	2,72	0,48	1,77	0,47	1,18	0,13	1,20
Tolosaldea / Tolosa	16.195	2,72	0,50	1,76	0,46	1,16	0,12	1,23
Aduna	112	2,97	0,54	1,93	0,50	1,38	0,21	1,22
Anoeta	569	3,00	0,68	1,98	0,34	1,35	0,12	1,45
Asteasu	424	3,03	0,61	1,97	0,45	1,48	0,10	1,21
Hernialde	95	3,01	0,57	1,92	0,53	1,28	0,05	1,47
Irura	368	2,47	0,45	1,75	0,28	1,18	0,07	1,09
Villabona	2.117	2,67	0,53	1,79	0,36	1,18	0,11	1,22
Zizurkil	959	2,94	0,58	1,94	0,42	1,14	0,17	1,52

Iturria: Eustat 2001

- Zizurkilgo batezbesteko familia tamaina EAEko, Gipuzkoako eta Tolosaldeakoa baino handiagoa da.
- Familiak osatzen dituzten kideen adinari dagokionez, Zizurkilen familiako ia bi pertsonak 20-64 bitarteko adina dute.
- Jarduerarekiko erlazioari dagokionean, Zizurkilen, EAEan eta Gipuzkoan bezala, menpekoak ugarienak dira, landun eta langabeen gainetik.

4.1.5. Migrazio mugimenduak

	KANPO MIGRAZIO SALDOA ⁵	BARNE MIGRAZIO SALDOA ⁶	GUZTIZKO MIGRAZIO SALDOA ⁷
EAE	6.251	0	6.251
Gipuzkoa	806	-815	-9
Tolosaldea / Tolosa	51	-90	-39
Aduna	1	-1	0
Anoeta	2	-11	-9
Asteasu	3	6	9
Hernialde	0	7	7
Irura	-2	13	11
Villabona	28	25	53
Zizurkil	20	-64	-44
<i>Iturria: EUSTAT 2003 Migrazio Mugimenduen Estatistika.</i>			

- Zizurkileko migrazio mugimenduak saldo negatiboa du (-44), Gipuzkoakoa (-9) eta Tolosaldeakoa (-39) baino negatiboagoa delarik.
- Udaleko datuen arabera, 2004an 202 atzerritar zeuden Zizurkilen.
- 04/01/01 eta 04/12/31 bitartean, 163 inmigrante eta 224 emigrante kontabilizatu ziren Zizurkilen.

⁵ Jatorria EAEaz kanpoko udalerri bat izanik, helburua erkidegoko udalerri batean duten migrazioak dira.

⁶ Jatorria EAEko udalerri batean izanik helburua ere erkidego horretako beste udalerri batean duten migrazioak dira.

⁷ Eremu geografiko jakin baterako, migrazio-saldoa –batzuetan migrazio garbia ere esaten dena– migrazioagatiko sarreren eta arrazoi berarengatiko irteeren arteko diferentzia da; ondorioz, horren zeinu positiboak edo negatiboak sarrerak irteerak baino gehiago izan direla edo alderantzizkoa adierazten du.

4.2. Udalaz gaindiko planeamenduaren eragina udalerriko eremuan

Ikus I. eranskina:

- Lurraldearen antolamendurako artezpideak (LAA) (28/1997 DEKRETUAK, otsailaren 11koa, behin betiko onetsia)
- Euskal autonomia erkidegoko jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko eta saltoki handiak antolatzeko lurraldearen arloko plana (LAN) (262/2004 dekretuak, abenduaren 21ekoa, behin betiko onetsia)
- EAEko energia eolikoa antolatzeko lurralde arloko plana (LAP) (104/2002 dekretuak, maiatzaren 24koa, behin betiko onetsia)
- Etxebizitzaren sustapen publikorako lurzorua antolatzeko lurraldearen arloko plana (LAP) (aurrerapen fasean)
- EAEko Ibaien eta erreken ertzak antolatzeko lurraldearen arloko plana (LAP). Isurialde kantaurrearra.(415/1998 DEKRETUak, abenduaren 22koa, bidez, behin betiko onetsia).
- Euskal autonomi erkidegoko nekazaritza eta basogintza antolatzeko lurraldearen arloko plana (LAP) (Hasierako onespen dokumentua)

4.3. Hiri planeamendua eta lurzoruaren erabilera

Zizurkilgo biztanleria bi eremutan banatzen da:

- GOIKOA, ofizialki Zizurkil bezala eta herri mailan KAXKO eta KAXKOAREN BANATUTAKOA bezala ezaguna. Udalerraren maila altuagoko eremuan harana menderatzen du eta landa-fisionomia gehien kontserbatu den gunea da. Kaskoa eta eremu banatua ditu.
- BEKOA edo Elbarrena. Hiri-izaera handiagoa du.

Udala	Azalera(km2)	Biztanleria(2001)	Tasa 96/01(%)
ZIZURKIL	15,5	2820	1,05
Indarrean dagoen planeamendua		Data	
b motako ARAU SUBSIDIOARIOAK		1997/04/01	
Tramitatzen ari den planeamendua		Egoera	Data
B motako ARAU SUBSIDIARIOAK		Berrikuspena	2005
Jarduera urbanistikoak Planeamendu Orokorrean			
Espediente urbanistikoa	Azken tramitazioa	Data	Araudiaren argitalpena
B motako ARAU SUBSIDIARIOAK	Behin-betiko onarpena	01/04/1997	01/04/1997
LURZORU EZ URBANIZAGARRIARI DAGOKIONEAN AASSen ALDAKETA	Behin-betiko onarpena	31/01/2000	31/01/2000
1eta 3 EREMUEI DAGOKIENEAN AASSen ALDAKETA	Behin-betiko onarpena	12/02/2003	12/02/2003
"IARTZA-AUZO" A-17 EREMUAN AASSen ALDAKETA	Aurrerapena	13/11/1998	
10, 20 ETA 33-33' EREMUETAN AASSen ALDAKETA	Aurrerapena	05/07/2004	

AASSen berrikuspen Diagnostikoaren arabera lurzoruaren sailkapena ondokoa da egun:

• **LURZORU URBANIZATUA:**

Egoitzarako lurzorua	Industriarako lurzorua
183.338 m ²	223.864 m ²

ESPAZIO LIBREAK ETA ZONA BERDEAK

	Zizurkil goikoa	Elbarrena erdia
Urbanizatuta	2479,08m ²	12.616,24m ²
Gutxi urbanizatuta	-	2.155,14m ²
Urbanizatu gabe	-	5.591,72m ²

• **LURZORU EZ URBANIZAGARRIA:** 14.950.000m².

Iturria: 2005.go Zizurkileko AASSen berrikusketa

- **Udaltaldeko udalerrietako lurzoruaren erabilera Hekatareatan (1996)**

	Etxeak	Larreak	Larrediak	Sastrakadia	Zuhaitz-baso trinkoa	Zuhaitz-baso barbana	Labore intentsiboak	Guztira
Euskal AE	45.259	111.078	25.378	53.971	359.547	30.458	97.790	723.481
Gipuzkoa	12.054	45.683	6.994	13.933	110.973	7.282	1.114	198.033
Tolosaldea	1.137	8.761	3.246	2.292	20.033	1.190	87	36.746
Aduna	43	172	-	52	383	32	23	705
Anoeta	28	193	-	11	192	9	-	433
Asteasu	23	740	98	148	616	64	11	1.700
Hernialde	3	188	53	8	150	7	-	409
Irura	53	30	2	29	172	7	-	293
Villabona	156	441	70	53	949	95	5	1.769
Zizurkil	46	447	1	162	796	69	8	1.529

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Baso Inbentarioa. 1996.

- **Udaltaldeko udalerrietako lurzoruaren erabilera (Ha), 2005**

	Aduna	Anoeta	Asteasu	Irura	Villabona	Zizurkil
Basoa	121	133	366	62	230	365
Baso landaketa	341	92	369	116	845	515
Sastrakadi	25	7	157	10	69	155
Landaredi belarkara	2	-	1	2	70	7
Azaleko landaredirik gabeko mendia	-	0	0	0	-	-
Ibai eta erreken bazterretako zuhaitzak	3	1	2	2	4	2
Nekazal lurrak	26	-	12	5	3	1
Artifiziala	43	25	64	36	64	63
Urak	4	4		8	11	2
Autopista eta autobioak	1	4		6	54	-
Garraiorako azpiegiturak	1	1		2	10	1
belardiak	128	162	706	18	329	414
Larre-sastrakadi	-			26	63	1
Baso gunetako ibai ertzak	-	1		-	4	1
Harrobigintza, obra-hondakindegia, zabortegi	7	-	1	-	0	2
Belardiak heskaiekin			10			
GUZTIRA	701	430	1.699	292	1.756	1.529

Iturria: GFA, Landa Garapen departamendua

- **Udaltaldeko udalerrietako lurzoruaren erabilera ehunekotan (%).2005**

	Aduna	Anoeta	Asteasu	Irura	Villabona	Zizurkil
Basoa	17,26	30,93	21,54	21,23	13,06	23,87
Baso landaketa	48,64	21,39	21,71	39,72	48,12	33,68
Sastrakadi	3,56	1,63	9,24	3,42	3,92	10,13
Landaredi belarkara	0,28	-	0,059	0,68	3,98	0,45
Azaleko landaredirik gabeko mendia	-	0	0	0	-	-
Ibai eta erreken bazterretako zuhaitzak	0,42	0,23	0,12	0,68	0,22	0,13
Nekazal lurrak	3,70	-	0,71	1,71	0,17	0,06
Artifiziala	6,13	5,81	3,77	12,32	3,64	4,12
Urak	0,57	0,93		2,74	0,63	0,13
Autopista eta autobiak	0,14	0,93		2,05	3,07	-
Garraiorako azpiegiturak	0,14	0,23		0,68	0,56	0,06
belardiak	18,25	37,67	41,55	6,16	18,73	27,07
Larre-sastrakadi	-			8,9	3,58	0,06
Baso gunetako ibai ertzak	-	0,23		-	0,22	0,06
Harrobigintza, obra-hondakindegia, zabortegi	1	-	0,059	-	0	0,13
Belardiak heskaiekin			0,58			
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100

- Baso landatuek betetzen dute Zizurkilgo azaleraren gehiengoa, baso eta belardiekin batera.

- **1996ko eta 2005eko baso inbentarioen arteko konparaketa**

1996		2005		
Erabilpena	GUZTIRA	Erabilpena		GUZTIRA
Basoak	838	Basoak	365	882
		Baso landaketa	515	
		Ibai eta erreken bazterretako zuhaitzak	2	
Lur ez-emankorrak	46	Azaleko landaredirik gabeko mendia	-	68
		Artifiziala	63	
		Urak	2	
		Autopista eta autobiak	-	
		Garraiorako azpiegiturak	1	
		Harrobigintza, obra-hondakindegia, zabortegi	2	
Labore intentsiboak	8	Nekazal lurrak	1	1
Sastrakadia	162	Sastrakadi	155	155
Larreak	447	belardiak	414	421
		Landaredi belarkara	7	
	1.529			1.529

Iturria: Bertan eginda Foru Aldundiko inbentariotik oinarrituta.

Hiri kalitatea

Ez dago daturik.



2005eko azaroaren 17an burututako Herri Batzarrean jasotako demografia eta lurralde eremuaren arloko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Bulandegi auzoan garbiketa ez da egokia.
- ♣ Txakur kakak daude kalean, jabeak biltzera behartu beharko lirateke.
- ♣ Herria gaizki diseinatuta dago. Bi zona nagusi daude erabat ezberdinak. Oso auzo ezberdinak daude eta horien arteko komunikazioa txarra da. Disgregazio arazoa dago.
- ♣ Zentro neuralgikoaren falta dago Zizurkil Behean. Identitatea lortzeko errepidea atera beharko litzateke.
- ♣ Bulandegi bidean farolak itzalita daude eta baita Ubare auzoko gehienak ere.
- ♣ Haur parke eta gunek berde falta dago
- ♣ Urbanizazio txarra, mantentze eskasa antzematen da zenbait gunetan.
- ♣ Espaloiko ertzak egoera txarrean daude, kamioiak gainera igo eta puskatzen dituztelako.
- ♣ Suteetako ur-hartunerik ez dago
- ♣ Banketxerik ez dago

5. INGURUNE SOZIOKULTURALA

5.1. Etxebizitza

5.1.1. Etxebizitza kopuru totala eta eboluzioa.

- Etxebizitzaren eboluzioa Zizurkilen .

URTEA	ETXEBIZITZA KOPURUA
1986	860
1991	908
1996	987
2003	1.086

Iturria: 2005.go Zizurkilgo AASen berrikusketa

- Etxebizitza berri gehienak, %40a hain zuzen, 1996 eta 2003 urteen artean egin dira.

5.1.2. Etxebizitza motak

- Etxebizitza nagusiak, bigarrenak eta okupatu gabeen kopurua:

2001	Guztira	Famili etxebizitzak				Taldekakoak ⁸	Ostatuak
		Nagusiak	Bigarrenak	Okupatu gabeak	Bestelakoak		
Euskal AE / C.A. de Euskadi	878.616	747.491	41.219	83.604	5.541	745	16
Gipuzkoa	291.521	245.188	13.101	30.529	2.473	228	2
Tolosaldea / Tolosa	19.806	16.166	436	3.156	30	18	-
Aduna	143	112	7	21	3	-	-
Anoeta	637	569	-	68	-	-	-
Asteasu	544	424	18	101	-	1	-
Hernialde	110	95	-	15	-	-	-
Irura	435	367	-	68	-	-	-
Tolosa	8.193	6.771	273	1.132	4	13	-
Villabona	2.398	2.112	15	252	18	1	-
Zizurkil	1.115	955	8	148	3	1	-

⁸ Taldekako etxebizitza edo establezimendu kolektibotzat hartzen ditugu aginte edo arautegi komun baten menpe, erakunde baten menpe, ekonomikoa izan ala ez, bizi diren pertsona-multzoaren etxebizitza edo eraikin-multzoa. Establezimendu kolektiboaren izenpean, berez establezimendu kolektibo direnak (komentuak, koartelak, zaharren egoitzak, ikasleen egoitzak, kartzelak eta abar) gehi ostatuak, pentsioak eta antzeko egoitzak ere sartzen dira.

- **Etxebizitza motaren arabera sailkapena Zizurkilen (2003)**

Etxebizitza mota	Kopurua	Portzentajea
Etxebizitza nagusia	947	%87,2
2.etxebizitza	-	-
Etxebizitza hutsa	139	%12,8

Iturria: 2005.go Zizurkilgo AASSen berrikusketa

- **Etxebizitza salgai berrien batez besteko prezioaren bilakaera lurralde historikoan.**

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	B.O./gizarte-etxebizitzak	Libreak	B.O./gizarte-etxebizitzak	Libreak	B.O./gizarte-etxebizitzak	Libreak
2004						
I. hiruhilekoa	81.0	253.8	80.1	234.6	80.1	228.7
II. hiruhilekoa	80.8	267.8	76.8	256.1	78.7	242.8
III. hiruhilekoa	87.3	264.5	84.2	261.9	69.7	243.3
IV. hiruhilekoa	95.5	285.7	88.5	277.5	87.4	254.3
2005						
I. hiruhilekoa	98.8	283.1	90.0	290.1	85.5	273.2
1994(1)	43.6	119.0	48.6	115.0	50.8	130.9
1995	43.9	117.8	50.1	118.7	46.6	156.4
1996	49.2	135.8	48.1	128.3	55.6	139.7
1997	49.3	137.8	47.1	121.4	55.8	128.6
1998	40.7	173.3	54.4	122.8	48.4	123.8
1999	49.9	130.4	55.7	143.6	55.1	145.0
2000	48.1	145.1	55.0	150.3	66.4	184.5
2001	70.3	173.3	56.7	188.0	69.1	212.9
2002	79.0	182.4	62.2	207.9	73.4	207.8
2003	79.0	201.1	71.3	220.3	79.6	220.6
2004	86.2	268.0	82.4	257.5	79.0	242.3

(1)Urteko serieek urteko lau hiruhilekoetan bildutako prezioen batez bestekoa irudikatzen dute
Data 2005eko Uztailaren 22a

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eskaintza Inmobiliarioari buruzko Inkesta

- Azken urteotan Babes Ofizialeko gizarte-etxebizitzaren prezioak eta etxebizitza libreena orokorrean gora egin du hiru probintzietan.
- 2005eko lehenengo hiruhilekoan Babes Ofizialeko gizarte-etxebizitzaren prezioak behera egin du %2an Gipuzkoan.
- 2005eko lehenengo hiruhilekoan, Babes Ofizialeko gizarte-etxebizitzaren prezioa etxebizitza libreena baino %68 merkeago izan da Gipuzkoan.

5.1.3. Etxebizitza eskaintza, eskaria eta aurreikuspenak.

- Etxebizitzen eskaintzaren eboluzioa udaltaldeko udalerrietan (1998-2003):

- o Etxebizitza berrien kopurua, lurralde-eremuaren eta baimena emandako urtearen arabera. 1998-2003

	1998	1999	2000	2001	2002	2003(a)	GUZTIRA
Euskal AE	13.886	14.094	15.077	13.468	14.051	10.145	80.721
Gipuzkoa	3.848	3.846	4.950	3.401	3.599	3.382	23.026
Tolosaldea / Tolosa	357	244	324	246	477	230	1878
Aduna	5	-	-	3	13	5	26
Anoeta	30		56	8	1	16	111
Asteasu	38	30	16	11	45	4	144
Hernialde		9		2	13	5	29
Irura		112	7	20	12	14	165
Villabona	83	8	66	43	48	19	267
Zizurkil	48	6	6	-	1	-	61

(a) Behin-behineko datuak. Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritza

- o Etxebizitza babestu bukatuen eraikuntza, lurralde-eremuei jarraiki. 2000-2004

	2000			2001			2003			2004		
	Guzt	B.O	Gizar. etxeb	Guzt	B.O	Gizar. etxeb	Guzt	B.O	Gizar. etxeb	Guzt	B.O	Gizarte-etxebizitzak
Euskal AE	1.796	1.572	224	2.647	2.045	602	3.752	3.193	559	3.647	3.140	507
Gipuzkoa	813	702	111	880	738	142	817	743	74	569	545	24
Tolosaldea	46	46	-	82	58	24	12	-	12	48	48	-
Aduna												
Anoeta												
Asteasu												
Hernialde	8	8										
Irura				24	24							
Villabona	8	8										
Zizurkil	30	30										

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Babes ofizialeko etxebizitzaren datu-basea.

- **Etxebizitza moten eskaria Zizurkilen**

- Babes Ofizialeko Etxebizitza-blokeak: %59
- Babes Ofizialeko Etxeak: %32
- Sustapen pribatuko Etxebizitza-blokeak: -
- Etxebizitzen zaharberritzea: %4
- Baserriak: %2
- Txaletak: -
- Ez daki/Ez du erantzun: %2

Iturria: 2005.go Zizurkilgo AASSen berrikusketa. 2004an buruturiko inkestaren emaitzak.

- **AASS**

- 2003-2006 urteko epean, 40 eta 80 etxebizitza bitarte eraikitze beharra aurreikusi du biztanlerian Zizurkilgo Udalak.
- 2003-2010 urte bitarteari begira 140-190 etxebizitza.
- Gazteria da etxebizitza behar handiena duena eta seme-alabentzat eskatzen duten 46 urte baino gehiagoko bikoteak ondoren.
- Beharra etxebizitza lortzeari begirakoa da eta ez etxebizitzaz aldatzeari begirakoa.

Iturria: 2005.go Zizurkilgo AASSen berrikusketa

- **Etxebizitzen sustapen publikorako lurzorua antolatze lurraldearen arloko planaren aurrerakina**

- *Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatze LAPan* Villabona, Zizurkil, Irura eta Anoeta babes publikoko etxebizitzetara bideratutako lurzoruen hirigintzako antolamendurako, sustapenerako eta kudeaketarako lehentasunezko intereseko udalerri gisa sailkatuta daude. Izaera erdi-hiritarra eta landatarra duten udalerrietan —Aduna, Asteasu eta Hernialde - lehendik dagoen parkea hobetzeko eta berreskuratzeko oinarritzako politika birgaitze isolatuaren bidez egingo dela aurreikusten da. Dena dela, ez dira baztertzen eskari antolatua oinarritzat duten aukerako jarduerak.
- “*Erabili gabeko*” etxebizitza hutsei dagokienean, egun Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil udalerrietan hutsik dauden 100 etxebizitza inguru alokairuen merkatuan jartzea proposatzen da LAPean.
- Plan honen baitan Toloserriko Eskualde Egituran 410 bat etxebizitza babestu eraikitzea aurreikusten da. Bestalde, Planean barne hartu ez diren arren, bestelako eragileek beste 800 BOE eraikiko dituztela aurreikusten da.

5.1.4. Etxebizitzen erosotasun indizea.

Etxebizitza familiar nagusiak, lurralde-eremuaren, ekipamenduen eta konfort-adierazleen arabera (%). 2001

	Ur korrontea		Ur bero zentrala		Berogailua		Telefonoa	Tutu bidezko gasa	Erosotasun-indizea
	Publikoa	Pribatua	Badu	Zentrala	Banakakoa	Zehatza	Publikoa	Pribatua	Badu
Euskal AE / C.A. de Euskadi	98,3	1,6	28,5	14,3	51,3	31,5	99,2	67,2	70,6
Gipuzkoa	97,0	2,8	26,1	8,5	54,9	34,3	99,7	74,2	71,4
Tolosaldea / Tolosa	95,0	4,8	38,5	6,9	56,5	32,1	98,9	31,7	66,7
Aduna	99,1	0,9	-	36,6	26,8	35,7	95,5	-	60,9
Anoeta	94,2	5,8	0,5	1,6	57,3	37,4	99,1	81,2	68,1
Asteasu	84,7	15,1	0,2	1,7	57,1	39,9	95,3	-	59,6
Hernialde	100,0	-	53,7	2,1	59,0	39,0	91,6	-	66,4
Irura	98,1	-	75,5	6,3	70,8	21,3	96,2	75,5	78,7
Villabona	99,8	-	19,0	3,9	59,5	25,8	99,7	90,3	71,9
Zizurkil	99,6	0,4	76,3	6,9	53,3	39,1	100,0	92,8	76,9

(*) Udalerri dasanexionatuak, eta beraz ez daukagu horiei buruzko daturik erreferentziako datan. Udalerri horien datuak desanexionatu aurretik osatzen zuten udalerriaren barnean emanak aurkitzen dira.

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua (BEZ01)

- Zizurkil da EAE, Gipuzkoa eta Udaltaldea osatzen duten herriein aldean, Erosotasun Indize altuena duena luraren atzetik.

5.1.5. Etxebizitza bakoitzeko biztanle kopurua.

- Zizurkilen, 2003.urtean etxebizitza nagusi bakoitzeko 3 biztanle zeuden.



2005eko azaroaren 17an burututako Herri Batzarrean jasotako etxebizitzaren inguruko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Gaztedia herritik kanpo doa. Etxebizitzak behar dira bertako gazteentzat, bai Zizurkil Goian baita Behean ere.

5.2. Hezkuntza

5.2.1. Udalerriko ikastetxeak.

DERRIGORREZKO HEZIKETA

- San Millan eskolak (KAXKOA): D eredua, 55 matrikula. Udaletxe eta frontoi ondoan kokatua, jolasleku batez hornitua.
- Pedro M^a Otaño herri eskola: D eredua, 100 matrikula, derrigorrezko heziketa publikoa, 2 urtetik 12 bitartera. Udal erabilerarako kirol-instalazioak ditu: frontoia, gimnasioa, saskibaloizelaia...
- Jesusen Bihotza ikastola: D eredua, 54 matrikula, derrigorrezko heziketa pribatua, 2 urtetik 10 bitartera. Jolas instalazioekin.

HAUR ESKOLA (PAGAMUÑO)

- Eusko Jaurlaritzarekin adostutako hurrengo zerbitzua: 11 matrikula. Oti 3 urte bitarterakoa.

DERRIGORREZKOA EZ DEN HEZIKETA

- Fraisoro: Nekazal heziketa eta garapenerako zentroa. Bertan erdi-edo goi-mailako moduluak ematen dira.

HEZIKETA ETA ENPLEGUA

- Tolosaldeako heziketa eta enplegurako eskualdeko elkarte: Eskualdeko udalerriek mankomunatuta osatutako elkarte. Enplegurako (gozogintza, eraikuntza...) prestakuntza programak burutzen ditu eta baita lanbideratze programak ere.

Iturria: 2005.go Zizurkilgo AASSen berrikusketa

5.2.2.- Ikasketa eremu bakoitzeko ikasle kopurua

- Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako eta helduen hezkuntzako ikasleak, lurralde-eremuaren, mailaren eta irakasteredu elebidunaren arabera. 2003/04.

	Haur-hezkuntza(1)			Lehen hezkuntza(2)			Derrigorrezko bigarren hezkuntza(3)			Helduen Hezkuntza (9)			Batxilergoa(4)			Lanbide-heziketa(5)		
	A-X(6)	B(7)	D(8)	A-X	B	D	A-X	B	D	A-X	B	D	A-X	B(10)	D	A-X	B	D
Euskal AE	6.157	19.73 4	42.93 2	16.02 4	29.40 7	52.71 4	22.75 1	17.49 6	32.14 1	21.83 3	-	-	18.13 1	602	13.89 8	24.6 84	728	4.098
Gipuzkoa	549	5.126	18.94 9	976	9.690	22.76 0	1.457	7.519	14.42 5	5.366	-	-	3.888	468	6.402	6.56 9	190	3.170
Tolosaldea	-	-	1.747	-	-	2.357	10	-	1.525	278	-	-	26	-	528	355	-	377
Aduna	-	-	18	-	-	13	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Anoeta	-	-	63	-	-	157	-	-	79	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Asteasu	-	-	71	-	-	77	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Hernialde	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Irura	-	-	46	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Tolosa	-	-	843	-	-	1.194	10	-	972	278	-	-	26	-	528	355	-	320
Villabona	-	-	211	-	-	370	-	-	297	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Zizurkil	-	-	129	-	-	84	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	57

(1) Maila horretako Haur-Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu.

(2) Lehen hezkuntza eta maila horretako hezkuntza berezia hartzen ditu.

(3) Maila horretako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu.

(4) Batxilergoa hartzen du

(5) Erdiko eta goiko zikloko LH eta Zereginen Ikaskuntza hartzen ditu.

(6) A: euskara irakasgai bezala. X: ez dute euskara ikasten.

(7) Irakaskuntza elebiduna.

(8) Irakaskuntza osoa euskaraz.

(9) HHn legez ikasteredu elebidunik egon ez arren, estatistika-arrazoiak direla medio eta informazioa ahalik eta gehien homogeneizatzeko aldera, A ereduari matrikulatutako ikasleak sartu dira.

(*) Udalerrri dasanexionatuak, eta beraz ez daukagu horiei buruzko daturik erreferentziako datan. Udalerrri horien datuak desanexionatu aurretik osatzen zuten udalerrriaren barnean emanak aurkitzen dira.

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren estatistika.

5.2.3. Biztanleriaren eskolatze maila.

Kukua	Basasagu
Okil txikia	Muxar grisa
Azeria	Katagorria

Hiriguneak

Zenbait ornodun espezie herriguneetan bizitzera egokitu dira, gizakiaren presentzia arazorik gabe jasanez. Kasu askotan, zabortegi eta hondakinak pilatzen diren eremuetan bilatzen dute elikagaia. Besteak beste, espezie hauek aurki daitezke:

IZEN ARRUNTA	
Sugandila iberiarra	Buztanikara zuria
Zikoina	Txolarrea
Sorbeltz arrunta	Arratoi beltza
Enara arrunta	Arratoi arrunta

Haltzadiak

Haltzadiak landare unitate linealak osatzen dituzte ibaiertzetan. Hezetasun baldintza, landare-egitura eta batez ere ur librearen presentziak, ornodun konplexuen komunitateen ezarpena faboratzen du. Zenbait espezieren biziraupena habitat hauen kontserbazioak baldintzatzen du. Izan ere, espezie hauek ia eksklusiboki habitat hauetan bakarrik aurki daitezke. Egoera honetan daude besteak beste Pirinioko ur-satorra, Igaraba, Bisoia eta Itsas-zozoa.

Ibaiak eta ibaiertzak eraldaketa gehien jasaten duten habitaten artean daude gaur egun. Kutsadura, landarediaren eliminazioa eta ubieratzeak arazo larriak dira fauna mantentzeko.

Haltzadietan besteak beste fauna espezie hauek aurki daitezke:

IZEN ARRUNTA	
Txantxiku arrunta	Ur-zozoa
Ur-igela	Larre-lursagua
Horma-sugandila	Ur-arratoia
Buztanikari zuria	Basasagua

2004ko maiatzaren 12an Foru Aginduz onartu zen Gipuzkoako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* Ur-lpurtats-aren (Linnaeus, 1961) Kudeaketa Plana.

Aplikazio eremua Gipuzkoako Lurralde Historikoko sare hidrografiko oso bada ere, honen baitan, Asteasuko udalari dagokionean, bereziki interesgarritzat jotzen da bisoiarentzat Altzolaras errekaen goi-ibarra.

Belardi menditarra

Asteasu eta Villabonan agertzen da. Mendi azalera handietan, belardiak basoa ordezkatu du, mendetako larratzearen ondorioz. Eremu hauetako puntu batzuetan interes handiko zenbait espezie menditar aurki daitezke. Habitat honen izaera irekiak zenbait hegaztiren okupazioa faboratzen du. Urtean zehar ornodunen presentzia aldatuz doa, aldi kaltegarrietan, mugitzeko aukerarik ez duten espezie txiki eta hoberen egokitutako zenbait bakarrik geratzen direlarik belardi hauetan. Udako hilabeteetan aldiz, basotik datozen espezie asko elikatzeko gerturatzen dira belardi menditarrera.

Gaur egun elikakatean etxe-aziendek belarjale handi basatiak ordezkatu dituzte eta honi esker, belardi hauetan askotan ibiltzen diren sai eta beste zenbait sarraskijalek biziraun ahal izan dute.

IZEN ARRUNTA
Txantxiku arrunta
Ur-igela
Horma-sugandila
Buztanikari zuria
Ur-zozoa
Larre-lursagua
Ur-arratoia
Basasagua

Pagadiak

Adunan izan ezik, Udaltaldeko gainontzeko herrietako landaredia potentzialaren artean Pagadi azidofilo eta kaltzikoloak aipatzen dira eta guztietan kontserbatzen dira pagadi eremuak. Pagoen adaburuek argitasun gutxi uzten dute pasatzen eta ondorioz zuhaixka-erako geruzen eta belar-geruzaren garapena mugatua da. Beraz, espezieen aniztasuna txikia da beste zenbait basoekin konparatuz gero.

Baso hauen ezaugarri interesgarria da, urte batetik bestera pago-ezkurren ekoizpena oso irregularra dela. Ingurune honetako zenbait espezieen ugaritasunean islatzen da hau. Izan ere, elikatzeke baliabidea hori dute.

Hariztiekin espezie eurosiberriarrek osaturiko komunitate propioa dute. Bestalde, hainbat lekutan zulatuak daude zuhaitz zaharrak babesgune eta elikagai gisa erabiltzen dituzte zenbait hegazti eta ugaztun espezieek.

Espezie karakteristiko batzuk hauek dira:

IZEN ARRUNTA
Arrabio arrunta
Txantxiku arrunta
Zirauna
Sugandila bizierrulea
Horma-sugandila
Zapelatz arrunta
Baso-txinboa
Txinbo kaskabeltza
Txio arrunta
Kaskabeltz txikia
Kaskabeltz handia
Amilitx mottoduna
Gailupa

ZUHAITZ ESPEZIEEN BANAKETA (Ha)

- **Udaltaldeko udalerrien 1996ko baso inbentarioa:**

	Aduna	Anoeta	Asteasu	Hernialde	Irura	Villabona	Zizurkil
Intsinis pinua	171	78	315	38	45	293	463
Beste koniferoak	47	2	31	6	71	321	38
KONIFERAK GUZTIRA	218	80	346	44	116	614	501
Pagoa	11	-	12	64	21	24	29
Baso misto atlantiko	76	43	167	9	18	167	136
Bestelako hostozabalak	110	78	155	39	24	239	199
HOSTOZABALAK GUZTIRA	197	121	334	112	63	430	364
GUZTIRA	415	201	680	156	179	1.044	865

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Baso Inbentarioa. 1996.

- **Udaltaldeko udalerrien 2005ko baso inbentarioa:**

	Aduna	Anoeta	Asteasu	Hernialde	Irura	Villabona	Zizurkil
Pinus nigra	25	0	5	0	57	144	4
Intsinis pinua	164	81	298	51	29	276	388
Itsas pinua	27	-	1	0	-	7	48
Picea sp	-	-	-	-	5	2	-
Larix sp	3	1	29	7	12	65	1
Lawson altzifre	-	0	4	-	-	2	0
<i>Sequoia sempervirens</i>	3	-	-	-	-	-	-
<i>Pseudotsuga menziesii</i>	3	-	7	3	-	114	16
Beste koniferoak	1	-	-	-	-	1	14
KONIFERAK GUZTIRA	223	83	344	61	104	611	470
Haritza	62	74	117	26	16	115	122
Artea	-	-	-	-	-	-	3
Ibar basoa	3	1	2	0	2	6	2
Haltza	-	-	-	-	-	9	-
Landatutako hostozabalak	3	2	7	6	3	17	11
Haritz amerikarra	38	7	16	0	7	63	7
Platanondoa	1	-	1	-	0	0	4
Pagoa	12	-	15	80	8	49	33
Makal zuria	-	-	1	0	-	-	-
Baso misto atlantiko	89	60	234	18	41	154	226
Beste hostozabalak	10	-	-	-	0	-	0
Sasiakazia	5	0	-	-	-	4	2
Gaztainondoa	3	-	-	0	-	18	1

	Aduna	Anoeta	Asteasu	Hernalde	Irura	Villabona	Zizurkil
Urkia	15	-		-	-	33	2
Hurritza	0	-		-	-	2	
Astigarra	1	-		-	-	1	
HOSTOZABALAK GUZTIRA	242	144	392	131	76	471	412
GUZTIRA	465	227	737	193	180	1.082	883


Iturria:GFA, Landa Garapen departamendua. 2005.

- Ez da espezie mehatxatuen EAEko katalogoan landarerik azaltzen
- Zizurkilgo baso azalera totalaren %53,2 hostozabalei dagokie eta %46,8 koniferoei. Udaltalde mailan, batez beste, koniferoak hostozabalak baino ugariagoak dira.
- Zizurkilen koniferoen artean espezie ugariena intsinis pinua da eta hostozabalen artean baso misto atlantikoa eta haritza nagusitzen dira.

7.4. Naturgune eta elementu natural babestuenak


7.4.1. Babestutako naturgune eta elementuak

Leitzarango Biotopo Babestua	Adierazpena: Irailaren 29ko 416/95 Dekretua	
Azalera: 74 ha	Lurralde Historikoa: Gipuzkoa	Eskualdea: Donostialdea eta Tolosaldea
Udalerriak: Andoain, Villabona , Berastegi y Elduain	Jabetza: %77 Publikoa, %33 Pribatua Azpimarragarriak dira Villabona eta Berastegi artean kokatutako Loatzu eta Ibarrola mendietako hegaletan aurki daitezkeen harizti eta baso mistoak. Nabarmendu beharra dago botanika, fauna eta paisaia aldetik duen interesa, haltzadiari eta Leitzaran ibaiaren ibar hondoari dagokionean, Gipuzkoan kontserbatzen den galeria-basoen adibide onenetakoa delako. Paisaia honen larre-edertasunak flora espezie ez ohikoak ezkututzen ditu (hepatikoak eta lauhostoko landaredia), eta baita fauna espezie bereziak ere (Pirinioetako ur-satorra, orkatza, basakatua, uhandre piriniotarra, e.a.)	



Ernio-Gatzume	Adierazpena: 1997ko abenduaren 23ko Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren Akordioa. Honen bidez, Europar Zerrenda ekologikoan txertatzeko lekuen zerrenda proposatzen da.	
Azalera: 2.166,1 ha	Lurralde Historikoa: Gipuzkoa	Eskualdea: Tolosaldea eta Urola Kosta
Udalerriak: Alkiza, Albiztur, Bidegoyan, Errezil, Hernialde , Tolosa, Larraul y Asteasu	Jabetza: %3 Publikoa, %97 Pribatua	
	- Bertako landaredia: - Bere gailurretan landareri berezia garatzen da: kareharrizko harkaitzek mikrohabitat ezberdinak osatzen dituzte eta endemismo piriniar-kantabrikoak aurkitzen dira. - Amilburuen itzalean eta dolinen barruko freskotasunean, mendi-megaforbio deigarriak aurkitzen dira: <i>Valeriana pyrenaica</i>, <i>Acotinum vulparia</i>, ... - Gailurretan elurra desagertzean <i>Gentiana occidentalis</i> eta narziso-espezie ezberdinak loratzen dira. - Zuhaitz espezieen artean ondokoak nabarmentzen dira: Hagina (<i>Taxus baccata</i>), hostazuriak (<i>Sorbus aria</i>), pagoa (<i>Fagus sylvatica</i>), lizarrak (<i>Fraxinus excelsior</i>)... - Bertako fauna: - Gehien nabarmentzen dena mirotz urdina (<i>Circus pygargus</i>) da. - Beste batzuk: Belatzak, Saiak, Miru beltza (<i>Milvus migrans</i>), Lepahoria, Erbinudea, Muxar grisa.	

Ernio-Gatzume espazioko ibaiertzak “lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertz” izendatzen ditu Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak.



Atxulondo-Abaloz	Adierazpena: Euskal Autonomi Erkidegoko Espazio Naturalen Katalogo Irekian barne agertzen da (1992)	
Azalera: 2.166,1 ha	Lurralde Historikoa: Gipuzkoa	Eskualdea: Donostialdea eta Tolosaldea
Udalerriak: Donostia, Andoain, Zizurkil , Aduna eta Usurbil	Aipatzekoak dira bertan aurki daitezkeen <i>Tila cordata</i> , espezie oso urria eta <i>Pyrus cordata</i> edo <i>Sorbus torminalis</i> bezalako zurkarateak urriak. Ugariak dira berriz, <i>peridofitoen</i> espezieko <i>Stegnogramma</i> pozoi edo bakanagoak diren <i>Doronicum</i> gr. <i>Carpetanum-pardalianches</i> edo <i>Scirpus fluitans</i> . Bereziki azpimarra daiteke ur ipurtatsa eta lepahoriaren agerpena	

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) Interes Naturalistikoa duten Eremuen Zerrenda Irekia proposatzen du, non Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionez ondoko espazioak jasotzen diren:

- **Ernio-Gatzume** (Alkiza, Albiztur, Bidegoian, Errezil, Hernialde, Tolosa, Larraul eta Asteasu): Balio geologiko, faunistiko eta botanikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.
- **Murumendi** (Beasain, Itsasondo, Beizama eta Bidegoian): Balio botanikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.
- Araxes ibaiaren harana, Jazkugañe eta Basabe
- Atxulondo-Abalotz

7.5. Ondare naturala eta paisaia kontserbatzeko intereseko eremuak

7.5.1. Interesgarriak izan arren babestu gabe dauden eremuak

Zizurkilgo AASS-en berrikuspenean ondorengoak aipatzen dira:

- Interes naturalistikoa duten guneak: ATXULONDO-ABALUZ
- Interes paisajistikoa duten guneak: EZKATZU
- Interes geologikoa duten guneak: ZARATEKO GANTXON DAGOEN
PLIEGEA

LAAek Toloserriko Eskualde Egituran Murumendi, Aralar, Amasa Mendi-Belabieta, Gaztelu eta Pagoeta-Ernio-Andatza proposatzen dituzte atsedean eremu gisa, eta Albiztur, Bidegoian, Amezketa eta Abaltzisketa lurraldean sartzeko gune gisa.

7.6. Ingurune naturala birsortzeko proiektuak

Ez dago daturik.



2005eko azaroaren 17an burututako Herri Batzarrean jasotako ingurune naturalaren inguruko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Paisaia polita da baserritarrek zaintzen dutelako
- ♣ Ibai eta errekek zikinak daude

8.MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

8.1.Errepide sarea:

Eskualde egituraren komunikabide ardatza Oriaren Bailaratik igarotzen diren N-1k, Donostiarekin lotzen duena, eta Irun-Madrid trenbideak osatzen dute.

Nafarroako autobaien eraikitzeak orain arte Tolosan zentratuta egon den Eskualde Egituraren grabitate zentroa eskualdeko iparralderantz lekualdatzera eragin du.

Tokiko garrantzia duten beste errepideak: N-240, lehenago komunikabidea Nafarroarekin, GI-2631, Villabonatik abiatuz, Zizurkil eta Asteasu zeharkatuz Aiatik N-634an dagoen Orioko Gainara iristen dena, GI-2634, Tolosatik abiatuz Albiztur, Bidegoian eta Errezildik barrena Azpeitira iristen dena eta GI-2130, Tolosatik abiatuz, Ibarra, Berrobi, Elduain eta Berastegitik barrena Leitzara iristen dena Urtoko Gaina zeharkatuz.

Ibarrako errepide egin berriari esker eskualdeko poligono berri bezala erabil daitekeen Apatia lurraldera heldu ahal izango da. Gainera etorkizunean Tolosaldeako Eskualdea Abiadura Handiko Trenak zeharkatuko du.

8.1.1.Udalerriko egungo errepide sarea

8.1.1.1. Zerrenda eta deskribapen laburra

- GI-2.631, Zizurkil Asteasu eta Villabonarekin lotzen du.
- GI-3.281 eta GI-3.282 errepideek Zizurkil Goikoa eta Bekoa lotzen dituzte.
- GI-3.610 Zizurkil, Aduna eta Andoain lotzen ditu. Sorabillan (Andoain) N-1-rekin eta Zizurkilen GI-2.631-rekin eta GI-3.282arekin bat egiten du.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

- Eskualde mailan N-1ak eta A-15ak garrantzi handia dute, 1.goak Donostialdearekin komunikatzen duelako eta 2.ak berriz Nafarroarekin.
- Larraul, Asteasu, Zizurkil eta Adunak, Tolosa eta Donostiarekin komunikatzeko, Villabona zeharkatu behar dute Orio eta Villabona bitarteko

eskualdeko errepidearen bi aldeetan kokatuta daudelako. Honek, eta inguruko herriak baino handiagoa izateak, udalaz gaindiko zerbitzuen garapena ahalbideratu du Villabonan.

- Komunikaziorako azpiegitura sistemak desorekatua den banaketa eredu bat finkatu du. Eskualde Egitura Oria bailaratik igarotzen den N-1ak egituratzen du, komunikazio biderik garrantzitsuena delarik. Bailara honetan kontzentratzen dira populazio nukleorik garrantzitsuenak.
- Autobiak, gertu dagoen Donostiarekin eta honen bitartez Ipar Euskal Herria eta Frantziarekin komunikatzen du eskualdea. Bestalde, Eskualde Egituraren kokapenak ondoan dagoen Nafarroako Foru Erkidegoarekin komunikazioa errazten du. Komunikazioa mendebalderantz (Bilbo) eta hegoalderantz (Gasteiz) aldiz, zailagoa da.
- Egungo azpiegiturak Beasain eta Donostiarekin komunikatzeko egokiak dira eta Azpeitiarekin komunikatzeko aldiz onargarriak. Eskualde Egituraren barneko komunikazioak berriz, bere topografiak baldintzatzen ditu. Tokiko errepideek ur lasterrek osaturiko korridore naturalei probetxu ateratzen diete, zeharkako komunikazioak oso zailak direlarik, Abaltzisketa eta Amezetaren kasuan adibidez.

Tolosatik Nafarroarako autobiderako konexioa oinarritzotzat jotzen dute LAAek, Berastegin zehar. Bestalde, Azpeitia-Azkoitia eta Tolosa arteko konexioa, zeharkatzen duen ingurune naturalaren interesa dela eta, interes paisajistikodun ibilbide gisa sailkatzen dute.

8.1.1.2. Zirkulazio intentsitatea

TAULA: ERREPIDE SAREKO ZIRKULAZIOAREN INTENTSITATEA

Errepidea	Neurketa estazioa	Bidegunea	Eguneko batez besteko intentsitatea											
			1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003
N-1	12	KP: 436,8 - 444,7 Vitoria-Gasteiz/Donostia	31.969	36.051	36.630	35.173	34.635	37.687	40.328	43.472	42.608	45.543	45.773	49.814
N-1	96	KP: 444,7 - 447,7 Vitoria-Gasteiz/Donostia	-	23.281	30.698	31.710	41.725	44.452	61.795	48.482	50.686	51.936	55.105	54.579
GI-2.631	32	KP: 0,6 - 4,8 Villabona/Orio Gaina	2.510	1.743	1.930	1.912	2.297	7.684	9.273	8.772	9.272	9.758	9.610	9.279
GI-3.610	202	KP: 0 - 3,7 Zizurkil/Andoain	-	-	-	-	-	-	-	-	323	353	397	365
GI-3.610	254	KP: 0,8 - 1,1 Zizurkil/Andoain	-	-	-	-	-	-	-	3.479	4.830	6.312	5.659	5.903
GI-3.650	283	KP: 1,8 Irura-Anoeta Tolosatik												4.172
GI-3.282	221	KP: 0 - 1,7 Aduna/Zizurkil	-	-	-	-	-	-	-	1.058	1.133	1.159	1.271	1.067
GI-4.141	243	KP: 2,4 - 1,5 Asteasu/Errekabailara	-	-	-	-	-	-	-	134	177	136	155	134
GI-4.143	244	KP: 1,7 - 1,2 Asteasu/Iturriotz	-	-	-	-	-	-	-	140	83	127	134	119

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

OHARRA: KP: errepideko kilometro-puntua.

Errepideetako zirkulazio-intentsitateari dagokionez:

- N-1ari dagokionez:
 - Iruran zirkulazio intentsitateak urtero pixkanaka-pixkanaka gora egin du.
 - Sorabillan urte batzuen artean gorakada handiak izan dira, batez ere, 1997 eta 1998 urteen artean.
- GI-2.631 errepideko zirkulazio-intentsitateak gora egin du orokorrean 1992 eta 2003 bitarte:
 - Villabonan 1996tik 1997ra gorakada nabaria izan zen nahiz eta 2001etik 2003ra neurri txikian behera egin zuen . Portzentaje moduan adieraziz, 1995-2000 bitartean %384,94ko igoera jasan zuen eta 2000-2003 urteen artean %0,08koa.
 - Asteasun 1995tik 1996ra bitartean gora egin zuen nabarmen zirkulazio intentsitateak eta joera honek 2000 urtera arte iraun zuen(1995-2000 bitartean %152,38), 2000 eta 2003 bitarte %8,74 jaitsi zelarik.
 - Andatzarrate Gaineiko kasuan, 1995 eta 1996 bitarte zirkulazio intentsitatearen igoera nabaria izan zen (%129,62) eta ondorengo urteetan gorabeherak izan ziren 2000-2003 urteetan zehar azkenik %9,40ko jaitsiera izan zuelarik.
- GI-3.282ko kasuan, eguneko batez besteko ibilgailu-intentsitatea egonkor mantendu da 1999 eta 2003 bitartean.
- GI-3.610ren kasuan, errepide guztia kontutan hartuta, zirkulazio-intentsitateak gora egin zuen %23an bi urtetan zehar eta ondoren behera egin zuen. Errepide honen barruan 0,8-1,1 KP-a (errepideko kilometro- puntua) kontutan hartuz gero, zirkulazio-intentsitatea errepideak bere osotasunean baino gutxienez 10 aldiz handiagoa da eta bere gorakada errepide osoarena baino handiagoa izan da (%62,6).
- GI-3281errepideari buruzko informaziorik ez da lortu.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Mahai Teknikoan egungo errepide sarearen inguruan aipatutakoa jasotzen da ondoren:

- Trafiko karga handia dago. Sistema alternatiboak bilatu beharra dago. Zizurkil eta Asteasu artean kokatutako industrialdeen ondoriozko zirkulazioa da gehienbat.
- Etorkizuneko Zizurkil-Asteasu saihesbideak trafiko intentsitatea jaitea ekarriko luke.
- Goiko eta Beheko auzoen arteko loturak. Trafiko intentsitatea areagotu egin da. Oinezkoentzat biderik ez dago eta auto gehiago ibiltzeak oinezkoen mugikortasuna zailagotzen du.

8.1.1.3. Errepide sarearen dentsitatea (Km/Km²).

Errepide sarearen dentsitatea Udaltaldea osatzen duten herri bakoitzean honako hau litzateke:

- Adunan: 0,37 Km/Km²
- Anoetan: 1,46 Km/Km²
- Asteasun: 0,85 Km/Km²
- Hernialden: 0,83 Km/Km²
- Iruran: 1 Km/Km²
- Villabonan: 0,74 Km/Km²
- **Zizurkilen: 0,38 Km/Km²**

Iturria: Bertan egindakoa Gipuzkoako Foru Aldundiko datuetatik abiatuta

8.1.2. Errepide berriak egin edo egungoak hobetzeko proiektu/aurreikuspenak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lehenetsuneko Sareko, Oinarrizko Sareko eta Eskualdearteko Sareko hainbat errepidetan seinale horizontalak berritzeko proiektua dauka. Besteak beste, Zizurkiletik pasatzen den GI-2631 errepidean.

8.1.3. Puntu beltzak, gune arriskutsuak.

Ez dago daturik

8.2.Mugikortasunaren ezaugarriak

8.2.1. Mugikortasunaren arrazoiak

Lana eta Ikasketei Lotutako Mugikortasuna. 2001


	LANGILEAK						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	291.606	5.739	140.220	20.009	119.504	4.799	1.335
Udaltalde	5.697	187	1.264	552	3.650	32	5
Aduna	155	11	23	7	113	1	-
Anoeta	769	12	155	72	524	6	-
Asteasu	629	64	101	113	346	4	1
Hernialde	122	4	4	16	98	-	-
Irura	433	9	73	26	317	6	2
Villabona	2.491	31	624	200	1619	15	2
Zizurkil	1.098	56	284	118	633	5	2
	IKASLEAK ¹						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	53.418	601	22.819	253	26.550	2.673	522
Udaltalde	942	12	47	2	862	17	2
Aduna	20	-	-	-	20	-	-
Anoeta	147	-	34	1	111	1	-
Asteasu	61	-	-	-	59	2	-
Hernialde	23	-	-	-	22	1	-
Irura	67	-	1	1	64	1	-
Villabona	402	1	8	-	387	6	-
Zizurkil	222	11	4	-	199	6	2

Eta portzentajetan:

Taula: Lana eta Ikasketei Lotutako Mugikortasuna. %. 2001


%	LANGILEAK						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	100	1,96	48,08	6,86	40,98	1,65	0,46
Udaltalde	100	3,2	22,18	9,16	64,06	0,56	0,087
Aduna	100	7,10	14,83	4,52	72,90	0,64	-
Anoeta	100	1,56	20,15	9,36	68,14	0,78	-
Asteasu	100	10,17	16,05	17,96	55,01	0,63	0,16
Hernialde	100	3,2	3,2	13,11	80,32	-	-
Irura	100	2,08	16,86	6,00	73,21	1,38	0,46
Villabona	100	1,24	25,05	8,03	64,10	0,60	0,08
Zizurkil	100	5,10	25,86	10,75	57,65	0,45	0,18
%	IKASLEAK ¹						
	Guztira	Etxean	Udalerrian	Zenbait Udalerrian	Beste Udalerri batean		Atzerrian
					Euskadi	Beste probintziak	
Gipuzkoa	100	1,12	42,72	0,47	49,70	5,00	0,98
Udaltalde	100	1,27	5	0,21	91,50	1,8	0,21
Aduna	100	-	-	-	100	-	-
Anoeta	100	-	23,13	0,68	75,51	0,68	-
Asteasu	100	-	-	-	96,72	3,28	-
Hernialde	100	-	-	-	95,65	4,3	-
Irura	100	-	1,49	1,49	95,52	1,49	-
Villabona	100	0,25	1,99	-	96,27	1,49	-
Zizurkil	100	4,95	1,80	-	89,64	2,70	0,90

Iturria: Bertan egindakoa Eustateko datuetatik abiatuta.



Iturria: Bertan egindakoa Eustateko datuetatik abiatuta.

Lanari lotutako mugikortasunari dagokionez, Gipuzkoan batez beste, langileen erdiak herritik kanpora jo behar du, Ernioaldeko Udaltaldearen kasuan 10etik 7 baino gehiagok eta Zizurkilen soilik 10 langiletik 3k egiten dute herrian lan.



Iturria: Bertan egindakoa Eustateko datuetatik abiatuta.

Ikasketekin erlazionatutako mugikortasunari dagokionean, alde handia dago Gipuzkoa Ernioaldea eta Zizurkilekiko. Gipuzkoan, batez beste, ikasleen kopuru erdiak baino gehiagok herritik kanpo egiten ditu ikasketak. Ernioaldean eta Zizurkilen aldiz, ikasleetariko gehienek (% 90-ak baino gehiagok) atera behar izaten dute herritik arrazoi hori dela eta.

8.2.2. Ibilgailuak

8.2.2.1. Udalerriko ibilgailu kopuru totala 2005

MOTA	KOPURUA	%
Turismoak	1.375	79,5
Autobusak	1	0,1
Kamioi eta furgonetak	140	8,1
Traktoreak	42	2,4
Erremolkeak	37	2,1
Motorrak	135	7,8
Guztira	1.730	100,0

Iturria: 2005.go AASS-en berrikusketa

Gaur egun Zizurkilek 1.730 ibilgailu ditu eta horietatik %79,5 turismoak dira.

- **Ibilgailu kopuru totalaren eboluzioa**

	1996	1997	2001	2002	2005
Ibilgailu kopurua	1.285	1.355	1.649	1.682	1.730

Iturria: Eustat


1996-2005 epean % 34an egin du gora ibilgailu kopuruak Zizurkilen (epe berean biztanleriaren gorakada %4koa izan da).

- **Ibilgailuak/1.000 biztanle Ratioa. 2002**

	IBILGAILUAK	BIZTANLEAK*	IBILG./1.000 BIZT.
Gipuzkoa	372.064	685.461	543
Udaltaldea	8.170	13.200	618,94
Aduna	446	335	1331,34
Anoeta	1280	1777	720,32
Asteasu	968	1316	735,56
Hernialde	202	286	706,29
Irura	690	1047	659,03
Villabona	2899	5581	519,44
Zizurkil	1682	2858	588,52

* 2002/12/31ko datuak, gipuzkoa.net-etik eskuratuak.

Iturria: Bertan eginikoa Eustat-eko datuetatik abiatuta.



Iturria: Bertan eginikoa Eustat-eko datuetatik abiatuta.

Ernioaldean, orokorrean, 1000 biztanleko dagoen ibilgailu kopurua altua da. Zizurkilgo ratioa, Gipuzkoakoa baino altuagoa da baina Ernioaldeakoa baino baxuagoa. Gainera, aipatzekoa da, Villabonaren atzetik, udaltaldeko ibilgailu/ 1000biztanle ratio baxuena duela, hau da, bi biztanleko ibilgailu bat.

8.2.2.2. Konparaketa eskualde /Gipuzkoarekiko

	Autoak	Motorrak	Kamioiak	Autobusa	Industria traktoreak	Bestelak oak	Guztira
Gipuzkoa	276.854	25.149	56.789	764	3.423	9.085	372.064
Udaltalde	5.585	337	1.684	7	101	241	7.965
Aduna	229	18	188	0	1	10	446
Anoeta	974	42	247	0	4	13	1280
Asteasu	601	61	233	4	24	45	968
Hernialde	125	13	58	0	0	6	202
Irura	398	34	198	0	3	57	690
Villabona	2173	113	502	2	44	65	2899
Zizurkil	1210	69	326	1	25	51	1682

Iturria: Eustat, 2002.go datuak

Ikus daitekeenez, Zizurkilen turismoak nagusi dira beste ibilgailuen gainetik, Gipuzkoan eta Udaltaldeko beste herrietan bezala.

8.2.3. Aparkalekuak

ZONA	APARKALEKU KOPURUA
KAXKO	78
AKEZKOA	28
MUÑO	206
PAGAMUÑO-BULANDEGI	236
UBARE-AURRERA	321
IHARTZA	12
GUZTIRA	881

Iturria: 2005.go AASS-en berrikusketa

Zizurkilen hiru ibilgailuko bi aparkaleku daude.

Mahai Teknikoan aipatu zenez, aparkaleku falta dago, batez ere Zizurkil Behean. Baina aparkaleku arazoa baino gehiago, kontzientziazko arazoa da askotan.

8.2.4. Garraio publikoa***AUTOBUSAK:**

- TOLOSALDEA-BUS**

Enpresa honek besteak beste honako zerbitzuak eskaintzen ditu eskualde mailan:

Tolosa - Zizurkil linea:

ADUNA-ZIZURKIL			
URTE OSOKO ORDUTEGIA ABUZTUA IZAN EZIK ASTELEHENETIK LARUNBATERA			
VILLABONA	9:10	10:30	12:15
ZIZURKIL	9:15	10:35	12:20
ADUNA	9:20	10:40	12:25
VILLABONA	9:25	10:45	12:30

Iturria: www.tolosalde.net

- TSST**

Donostia-Asteasu linea: Geldiuneak ditu Zizurkilen.

Tolosaldeak dituen garraio ezaugarriek zaildu egiten dute ohiko zerbitzu honen errentagarritasun ekonomikoa.

Mugikortasun gutxiko herrietan ezin da kalitatezko ohiko zerbitzu bat jarri eta horregatik eskaria bete eta ibilbide finkoa duen taxi-zerbitzu osagarri bat ezarria dago.

Tolosaldeako eskaera osatzeko zerbitzua

Zerbitutako herriak	Zerbitzuaren jatorria	Egungo taxi-lizentzia kopurua	Zerbitzuaren helbidea
Zizurkil, Larraul	Villabona-Zizurkil	5	Villabona
Alkiza, Hernialde	Tolosa	19	Anoeta/Tolosa
Gaztelu, Leaburu, Belauntza, Orexa, Albiztur	Tolosa-Ibarra	20	Tolosa
Baliarrain, Altzo	Alegia	2	Alegia

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

***TRENAK**

- RENFE: ALDIRIKO TRENA**

Villabona eta Zizurkilek geltoki bakarra dute, Zizurkilen kokatua:

Brinkola-Irun linea

Norabidea	1.go trena	Azkeneko trena	Maiztasuna
Irun	6:07	22:37	- <u>Lanegunetan</u> : 30 minuturo gutxienez. - <u>Jaiegunetan</u> : ordu betero gehienez.
Brinkola	6:07	23:07	- <u>Lanegunetan</u> : 30 minuturo gutxienez. - <u>Jaiegunetan</u> : ordu betero gehienez.

Villabona-Zizurkileko geltokian jaitsi eta igotzen den pertsona kopurua

GELTOKIA	IGOTAKOAK	JEITSITAKOAK	GUZTIRA
Villabona-Zizurkil	1.098	1.063	2.161

Iturria: Renfe

Erabiltzaile kopuru handieneko trenakIrun-Brinkola norabidea:

- Irundik 6:12tan, 6:47tan eta 7:47tan ateratzen direnetan igotzen da erabiltzaile kopuru handiena. (Zizurkildik 6:57, 7:32 eta 8:32etan pasatzen dena).
- Irundik 18:42tan eta 19:22tan irteten diren trenetatik jaisten da bidaiari kopuru handiena Villabona- Zizurkilen (19:27 eta 20:07etan pasatzen da Zizurkildik).

Brinkola-Irun norabidea:

- Brinkolatik 6:39tan eta Tolosatik 7:04tan, 8:17tan, 8:29tan eta 9:14tan irteten diren trenetan igotzen da bidaiari kopuru handiena Villabona-Zizurkileko geltokian. (Zizurkilen 6:57, 7:12, 8:17,8:37 eta 9:22 etan)
- Brinkolatik 15:49tan eta 16:29tan ateratzen diren trenetatik jaisten da bidaiari kopuru handiena. (Zizurkilen 16:37 eta 17:17)

Tren- erabiltzaileen perfila:

ERABILTZAILEEN GEHIENGOA	PORTZENTAJETAN
Emakumezkoak	%71,9
16-29 urte bitartekoak	%53,5
Goi-mailako edo erdi-mailako ikasketadunak	%43,7 eta %40,3 hurrenez hurren
Soldatapekoak	%54,7
Ohiko erabiltzaileak	%85,8

*Iturria: Renfe***Trena erabiltzearen arrazoi nagusiak:**

ARRAZOIA	PORTZENTAJEA
Lana	%52
Aisia	%26,7
Ikasketak	%24,1

Iturria: Renfe

Nazioarteko zabaleradun trenbide berria -"Euskal Y"- Lurralde Historikoetako hiru hiriburuak elkarrekin eta Autonomi Erkidegoa Iberiar Penintsularen gainerakoekin eta Europarekin konektatuko dituen ahalmen handiko trenbide-garraiabidetzat jotzen dute LAAek. Euskal Y-aren eta Iruñea eta Zaragozaren arteko abiadura handiko trenbide-konexioa, 1993-2007 Azpiegituren Gida Planean aurreikusia, garrantzi handikotzat jotzen da Euskal Herria Ebro ibaiaren Ardatzean neurri handiagoan integratzeko.

Bestalde, Aldiriko Tren-Zerbitzuak hartzen dituzte LAAek iraganbide nagusietan zeharreko bidai bolumen handiak bideratzeko egokientzat. Hortaz, Aldiriko Zerbitzuak sendotu egingo direla adierazten du oinarritzko ardatzetako tarteetan (besteak beste Legazpi-Zumarraga-Beasain-Tolosa-Andoain-Hernani-Donostia tarteak).

Euskal Autonomi Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Arloko Planean agertzen den planteamendu estrategikoa errepideko pilaketen areagotzea dela eta sortuko diren ondorioen aurrean trenbidearen aukera etorkizuneko nahitaezko baliabidea izatean oinarritzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAA) jasotzen denaren egokitasuna baieztatuz Euskal Autonomi Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Arloko Planak (LAP) hainbat motatako jarduketak biltzen ditu **Trenbide Sare Berria eta Lehenagotik Dagoen Trenbide Sareari** dagokionean.

1. Trenbide Sare Berria

Nazioarteko zabalera duen (UIC) Ibilbide Luzeko Trenbide Sare Berria ("Euskal Y"): Europako sarearekin lotuko litzatekeen nazioarteko zabaleradun (UIC) Trenbide Sare Berria da LAP honek egiten duen proposamen nagusia. Sare berri hau bidaiariak zein salgaiak garraiatzeko diseinatuta dago.

Trenbide sare honetako Gasteiz-Irun Lineak Toloserriko Eskualde Egitura hegomendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatuko luke, Beasain eta Tolosa artean Ebroko Lotura koka litekeelarik (alternatiba ezberdinak).

Ezkio-Itsason Goierri eta Toloserriko Eskualde Egituretako bidaiarientzako geltokia koka liteke.

Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean trenbide honek Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Andoain zeharkatuko lituzke.

Inguru honetan jatorrizko trazadurak aldaera bat jasan du aurkeztutako bi alegazio kontutan izanik -bata Aduna eta Zizurkilgo Udalek aurkeztua eta bestea Andoaingoak-. Alegazio hauen bidez trazadura ipar-mendebalderantz eramatea proposatu zen, trenbidea Adunako hirigunetik aldenduz eta Oria ibaiaren eta N-I errepidearen gaineko bidezubiaren kokapen egokiagoa bilatuz (hala, hirigunean ikus inpaktu txikiagoa izan dezan).

2. Lehenagotik Dagoen Trenbide Sarea

LAPak Aldirikoen Sarea oso garrantzitsutzat jotzen du, EAEko Eskualde Egiturak lotzeko korridoreetan bidaia kopuru handiak bideratzeko egokiena dela adierazten delarik.

Lehenagotik dauden azpiegitura eta instalazioak berritu eta behar diren zabalkuntzak eta hobekuntzak sustatuz, trenbide zerbitzu egokia lortzea finkatzen dira helburutzat.

Honela, gaur egun eskaintzen diren zerbitzu lineetan oinarritutako aldiriko korridoreak proposatzen dira LAPean. Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean Donostia-

Zumarraga Korridorea (B2.) proposatzen da: Zabaleraren iberiarreko sarearen bitartez, Goierri eta Donostiako Eskualde Egiturak lotzen dituen korridorea.

Helburu gisa korridoreetako tartea indartzea proposatzen da. Ibilbide luzeko zerbitzua beste korridore desberdin batetik egiteak aldiriko zerbitzuak maiztasun handiko garraibide bilakatu eta kalitatea erraz hobetzea ahalbidetuko duela adierazten da.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Mahai Teknikoan garraio publikoaren inguruan aipatutakoak adierazten dira ondoren:

- Zizurkil Behea nahiko ondo komunikatuta dago. Zizurkil Goikoaren egoera konplexuagoa da.
- Duela zenbait urte institutura zioazten gazteentzat taxi zerbitzua zegoen, autobús zerbitzua eskaintzeko Aduna-Zizurkil-Foru Aldundia artean akordiora iritsi aurretik.
- Bono-Taxi zerbitzua Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen da. Egoera/pertsona jakinei zuzendutako zerbitzua da. Ondo funtzionatzen du.
- Euskal Y: lur mugimenduak, obra-hondakindegia...lortutako materialei irteera emateko leku egokiak aurreikusten al dira?
- Zizurkilen izango duen ibilbidea jadanik zehaztua dago. Bai akueduktu eta bai tuneletik pasako da..

8.2.5. Oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna

-Gaur egun Zizurkilen ez dago bidegorririk.

- "Aiztondo Bailarako Amasa-Villabona, Zizurkil eta Asteasu herriguneak lotuko dituen bidegorri aurreproiektua" 2.004ko uztailan aurkeztu zen, nahiz eta oraindik onartzeke dagoen.

- Bidegorriak ondoko ezaugarriak izango ditu:

1) Jatorria: Asteasuko plazan (KP 3+791).

2) Amaiera: Zizurkilgo Danena Kirol Elkartearen atari ondoan (KP 0+000).

3) Luzera: 3.791m. Zabaleraren: 3m orohar.

- Zizurkilgo udalerriaren barruko bidegorri atalak ondoko ezaugarriak izango ditu:

1) Luzera: 1.650 m.

2) Zabaleraren: 3m orohar.

Aipatutako bidegorria luzatzea ere aurreikusia dago.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

8.3.Irisgarritasuna.

1999an idatzi zen Zizurkilen Irisgarritasun Plana. Honen arabera, lau urtetako plangintza proposatzen zen, baina ez da bete. Gauza puntualak egin dira inguruko beste obrak aprobetxatuz. Plana eguneratu beharra ikusten da.

Mahai Teknikoan adierazi zenez, beti izaten da kontutan Irisgarritasun Plana. Dena den, Plana eguneratu/ berritu beharko litzateke zer bete den eta egiteko zer falta den ikusteko.



2005eko azaroaren 17an burututako Herri Batzarrean jasotako mugikortasunaren inguruko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Aparkalekuak kendu eta isunak jartzen dituzte. Aparkalekuak jarri behar dira lehenengo. Antolaketa ez da egokia (Goian eta Behean) (behean eskolako aparkalekua irekitzea proposatzen da).
- ♣ Mugikortasun arazoak daude haur eta edadetuentzat. Arriskua dago zirkulazioa dela eta. Oinezko zirkulazio egokirako pasealekurik ez dago udalerri barruan
- ♣ Asteasutik datorren errepidean, bidegurutzean, arriskua dago oinezkoentzat zebra bidearen ikuspen txarragatik.
- ♣ Otañoako aldapan abiadura handiz joaten dira autoak. Haurrak oinez joaten dira eta arriskutsua da beraientzat.
- ♣ Errepidea aldatu behar da. Asteasuko industriagatik trafiko handia dago, garraio astunak arazo asko sortzen dituelarik. Trafiko hori atera beharra dago.

9. INGURUMEN BEKTOREAK

9.1. Ura

9.1.1. Ur baliabideak

- Zizurkil, Alkizako Ikili baserriaren ondoan dagoen gainazaleko ur-hartuneaz hornitzen da. Ur-bilketa honek, Saluate eta Aretako gordailuak hornitzen ditu eta hauetatik Zizurkilgo Goiena herrigunera eta Bekoa auzora banatzen da ura.
- Herrigunea eta Asteasuren arteko landa-eremua, Areta eta Azkarate gordailuen bidez hornitzen da eta bigarrena, lehenengoaz elikatzen da.

Iturria: 2005.go Zizurkilgo AASSen berrikusketa

9.1.2. Ur hornidura

9.1.2.1. Ura hartu, garraiatu eta tratatzeko instalazioak

- Ur-hartunea Alkizan dago kokatua eta hau da udalerriko ur-horniduraren iturria. Ura, fibrozementuzko 175 mm-ko diametrodun hodi batez, Saluate eta Areta gordailuetara garraiatzen da. Garraiobide hau, GI-3281 errepidearen ertzetik igaroz, Olentzora iristen da eta hemendik Saluate gordailura igotzen da. Gordailu honetatik abiatuz eta Zizurkilgo herrigunea zeharkatuz, Aretakora iristen da.
- 2004an ANSA enpresak burututako azterketaren arabera, Alkizako harguneak egun eskariaren gainetiko emaria ematen du. Deposituen edukiera egun bateko kontsumoarekiko baliokidea da, bai Saluate baita Aretako eremuari dagokionean ere.
- Aretako gordailua Saluaten aurkitzen den ordutegi-managailudun balbulaz elikatzen da. Batzuetan, kontsumoa eta betetze hasieraren arteko desfaseak, gordailuaren hustuketa dakar. Kasu honetan, Lepasoroko ur-hartunetik bulkada jartzen da martxan.
- Ur-hornidura eta banaketaren sareak osatzen dituzten hoditeriek 32.000m-ko luzera dute, horietatik 26.000 banaketa sareari dagokiolarik.

Iturria: 2005.go Zizurkilgo AASSen berrikusketa

-Tolosaldeako ur- horniduraz arduratuko den sistema obratan dago momentuan.

-Ur horniduraz baliatuko diren herriak:

Ikaztegieta

Alegia

Altzo

Tolosa

Ibarra

Belauntza

Irura

Anoeta

Villabona

Asteasu

Zizurkil

Hernialde

Andoain

-Instalazioak (Ikaztegieta – Baliarrain – Orandain):

1.Ibiurgo Urtegia.

- Oria Ibaiaren arroko 25Km² ko urak bilduko ditu.
- 70m-ko hormigoizko presa izango du.
- 6.500.000 m³ ur biltegitatzeko ahalmena izango du.
- 6.000.000 m³ ur kontsumituko da bertatik urteko.
- 56.103 biztanle hornituko ditu.

2.Ibiurgo Edateko ura Potabilizatze Estazioa.

- Ibiurgo urtegiko ura potabilizatuko du.
- Potabilizazio- ahalmena: 450 litro/seg.
- 6.000.000.000 litro ur banatuko dira urtean aipatutako herrietara.
- Urak jasoko dituen tratamendu prozesuak:
 - Aurreozonizazioa
 - Erreaktibo nahastea
 - Dekantazioa
 - Tarteko ozonizazioa
 - Iragazketa
 - Fluorazioa
 - Desinfekzioa

-Sistema orokor hau, Amezketa, Lizartza, Orexa, Berrobi, Eldua, Berastegi, Elduaen eta Larraulen kokatuko diren beste potabilizazio-estazio txikiagoekin (5 eta 20 litro/seg-ko ahalmena) osatuko da.

-Herri bakoitzak udal ur- biltegi bat edukiko du.

Iturria: www.gipuzkoakour.com.

Mahai Teknikoan aipatu zenez, Ibiur urtegia martxan jartzen denerako hornikuntza sarea egokituta egongo da.

9.1.2.2. Uraren kalitatea

URAREN KALITATEA	2003	2004
ONA	Anoeta eta Irura	Irura
JASANGARRIA	-	Anoeta eta Asteasu
TXARRA	Aduna, Asteasu, Hernialde, Villabona eta Zizurkil	Aduna, Hernialde, Villabona eta Zizurkil

Sailkapena:

Ona: Edangarri bezala kalifikatua, gutxienez %95 analisietan

Jasangarria: Edateko txar bezala kalifikatua, %5 eta %10 analisien artean

Txarra: edateko txar bezala kalifikatua, %10 baino analisi gehiagotan

Iturria: Tolosa-Goierriko Osasun Publikoko Eskualde Zentroa

Mahai Teknikoan uraren kalitatearen inguruan komentatutakoa jasotzen da ondoren:

- Analisisiek ur ez-edangarriaren emaitza kasuen %95ean uhertasunaren ondorioz ematen dute. Kontsumorako uretan permititutako uhertasun maila jaitsi egin da.
- Egungo deposituak ez dauka dekantazio sistemarik. Ibiur urtegiak arazo honi konponbidea emango dio, baina oraindik ez dago jakiterik noiz jarriko den martxan.
- Clostridium Bakteria: baimendutako mailak gaintutuz gero hodiak purgatzeko dira. Hiru hilabetero hodi guztiak purgatzeko dira.
- Euri zaparraden ondorioz uhertasuna sortzen da.
- Egungo deposituaren desinfekzio sistema, hipokloritoarekin, nahiko hobetu da. Uraren uhertasunaren arabera erregulatzen den sistema da. Ura uherra bada, klorazioa handitzen da. -.

9.1.3. Ur kontsumoa**9.1.3.1. Ur kontsumoaren eboluzioa sektoreka, urtez-urte**

		UR KONTSUMOA (m ³)					
		2002		2003		2004	
		Kontsumoa	fakturazioa	Kontsumoa	fakturazioa	Kontsumoa	fakturazioa
Etxeetakoa	1. hiruilekoa	32.480	36.415	30.291	30.805	31.089	30.989
	2. hiruilekoa	33.246	36.707	35.564	35.058	33.103	33.260
	3. hiruilekoa	37.544	34.985	31.598	32.699	32.433	31.940
	4. hiruilekoa	39.074	38.132	35.065	36.315	31.785	31.957
	Etxeetakoa guztira	142.344	146.239	132.508	134.877	128.410	128.146
Gainontzekoa	1. hiruilekoa	9.761	10.067	12.473	12.420	14.985	14.968
	2. hiruilekoa	11.532	11.590	13.710	13.751	21.538	21.469
	3. hiruilekoa	12.056	11.841	14.670	14.788	13.965	13.869
	4. hiruilekoa	16.257	16.729	11.601	11.922	11.074	11.141
	Gainontzekoa guztira	49.606	50.227	53.454	52.881	61.562	61.447
Guztira		191.950	196.466	185.962	187.758	189.972	189.593

- 2002-2004 artean etxeetako ur kontsumoa %9,8an jaitsi da. Gainontzekoen kontsumoa aldiz igo egin da (%23,87). Orokorrean ur kontsumoak beherakada txiki bat jasan du (%1,23)
- Aipagarria da 2004ko bigarren hiruilekoan ur kontsumoan antzemandako gorakada

Mahai Teknikoan ur kontsumoaren inguruan komentatu zenez, lehorte garaietan ustategien sareko ur kontsumoa handia da. Normalean beraien iturburutatik hartzen dute ura, baina lehorteen aurrean, saretik kontsumitzen dute. Ondo egongo litzateke bi sare izatea ustategiei begira: Ibiurreko ura (ordainduz) eta beraien ura (ordaindu gabe). Iturburu propio asko galtzen ari direla ere aipatu zen. Duten garrantziagatik, mantendu beharko lirateke (Lepasoro...).

9.1.3.3. Ur galerak

Mahai Teknikoan ur galeren inguruan komentatu zenez, arazoak daude. Beheko guneko datuak normalak dira (%75aren gainetiko errendimendua). Goiko aldean galera handiak daude (%60 inguruko errendimendua). Galera puntuak aurkitzeko inbertitu beharra dago.

9.1.3.4. Ura aurrezteko udal neurriak

9.1.4. Saneamendua

- Zizurkilgo bi herriguneen, Kaxkoa eta Elbarrena, saneamendu sareak independenteak dira bata bestearekiko.
- Kaxkoak, Zizurkil eta Antzibar erretenetan isurtzen ditu urak. Lehenak, Asteasu ibaira hustuko ditu ondoren eta Antzibarkoak Oria ibaian. Elbarrenak auzoak Asteasu eta Oria ibaien hainbat puntutan isurtzen du. Bi kasuetan saneamendua unitarioa da, gune berrietan banandutako tramuak daudelarik.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oria ibaiaren Hodi Biltzaile Orokorra egitea aurreikusita du Villabona-Zizurkil gunean. Hodi biltzaile honetan jasotako ur zikinak etorkizunean eraikiko den ur araztegira eramango dira eta hemen Oria ibaiaren arroan Tolosan behera egindako isurkinak araztuko dira.
- Goikoako isurketak, Asteasu eta Oria ibaien ertzeetako ur-biltzaile orokorretara eraman behar dira. Horretarako komenigarria da ur fekalen biltzaile berri bat eraikitzea. Biltzaile honek, ur beltzen hodiak jaso eta euri uren hodiak etxebizitzetako ur beltzen hodietatik bananduko lituzke.
- Bekoan, ibaira isurtzen duten ur-biltzaileak, Asteasu eta Oria ibaien ertzetakoekin konektatuko dituzte. Aurretik, ur beltzen hodiak euri uren hodietatik bananduko dituzte. Gainera, gertu aurkitzen diren isurketa puntuak lotuko dituzten hodi-biltzaile sekundarioak eraikiko dira.

9.1.5. Horniduraren, saneamenduaren eta uraren erabileraren udal kontrola

2003an, lehorte garaietarako Lepasoroko sondeoan inbertsioa egin zuen Udalak. Udalak ponpa bat instalatu eta depositu batera konektatu zuen. Putzu hau ez da agortzen. Inbertsio hau egin aurretik, beheko auzoetan ur murrizketak egiten ziren. Goiko auzoetan ez dago hau egiteko aukerarik, ukuiluak ur gabe uzterik ez baitago.

Mahai Teknikoan uraren kontrolaren inguruan ondokoak aipatu ziren:

- Urbanizazio berrietan sare banatua ezartzen da
- Kolektorea eraikitzeko lanak jadanik hasi dira. Ur araztegiaren eraikuntza 2006an hasiko dela aurreikusten da.
- Uraren arazketari begira, beharrezkoa da ur jario handiak kontrolatzea.



2005eko azaroaren 17an burututako Herri Batzarrean jasotako uraren inguruko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Beste herrietan baino garestiagoa da ura.

9.2. Energia

9.2.1. Energia hornidura iturriak

ENERGIA ELEKTRIKOAREN SAREA

- Energia elektriko sarearen kanalizazioak orokorrean lurpekoak dira eta transformazio guneak aldiz, lurpean, eraikuntzetan edo erdi-lurperatuta daude. Etxebizitzan hartuenean, eraikuntza arteko lotura, kruzeen kasuan, lineak fatxadatan grapatuak egon ohi dira. Mozketa kaxak ere fatxadatan daude.
- Goikoan, orokorrean, ez dago airezko kruzerik ezta fatxadari grapatutako linearik. Kanalizazioak lurrazpikoak dira eta kaxa landatuak.
- Landa-eremuan, lineak airezkoak dira.
- Transformazio guneak banatuta aurkitzen dira Bekoa auzoan zehar.
- Goikoan, transformazio gune bakarra dago.
- Landa-eremuan, bi transformazio gune aurkitzen dira.
- Industri guneek hainbat transformazio gune dituzte, orokorrean partikularrak.
- Argiztapen publikoaren sareari dagokionez, kanalizazioa lurpekoa eta erregistrablea da gune hiritar osoan. Tramu batzuetan airezko eta fatxadari lotutako kableak daude, Ubaren eta Bekoako puntu isolatu batzuetan, hormako argi puntuen instalazioekin bat eginez.
- Sarearen instalazioa orokorrean ona da eta egitura hiritarrari egokituta dago. Aireko kanalizazioak eta grapatuak dituzten instalazioetan, bigarren hauek kenduko dira, lurpeko kanalizazio erregistrableengatik ordezkatzuz. Ordezkapen hau, hobetze-lanekin batera egingo da. Orokorrean, goialdeko estalkia duten luminariak jarriko dira pixkanaka-pixkanaka, argi-kutsadura ekiditeko.
- Argiztapen publikoaren sareak, indarrean dagoen Erregelamendu elektronikoaren eta Industria Sailaren Probintzia Zerbitzuaren preskripzioak beteko ditu.

GAS-BANAKETAREN SAREA

- Gas natural-banaketa sarea Bekoa auzoan dago. Kanalizazioak lurpekoak dira
- Hoditeri berriak konpainia ustiatzaileen preskripzioak beteko ditu, bai gizarte lanei dagokienez eta baita hoditeriaren instalazioei dagokienez ere.

Mahai Teknikoan jakinarazi zen, Zizurkil Goikoan propano depositua dagoela.

9.2.2. Udalerriko energia kontsumoa

SEKTORE EKONOMIKOA	FAKTURATUTAKO ENERGIA KW/H				
	2000	2001	2002	2003	2004
Etxeetako	2.872.250 (1010/biz)	2.900.241 (1004/biz)	2.890.926 (997/biz)	2.983.756 (1034/biz)	3.226.415 (1130/biz)
Industrial	11.332.394	11.502.699	9.382.307	9.435.224	8.976.425
Zerbitzuak	2.026.567	2.154.018	2.445.726	2.387.396	2.534.277
Klasifikatu gabeak	9.891	1.084	148	499	660
GUZTIRA	16.241.101	16.558.042	14.719.107	14.806.875	14.737.777

- Energia elektrikoaren kontsumoak, orokorrean, %9,26an egin du behera 2000 eta 2004 bitartean.
- Biztanleekiko energia kontsumoak gora egin du (%11,88).

9.2.3. Energia berriiztagarriak

EAEko Energia Eolikoa Antolatzeke Lurralde Arloko Planean Gatzume proposatzen da Parke Eolikoa eraikitzeke kokaleku gisa.

	Luzera (Km)	Haize errotak	Potentzia (MW)	Produktzio garbia (GWh/urte)
Gatzume	1,7	17	11,2	28,0

LAP honetan parke eolikoak eraikitzeke aukeratutako kokalekuak bi taldetan banatzen dira:

- **I Taldea:** Parke eolikoak, ahal bada, talde honetan kokatutako kokalekuetan ezarriko dira.
- **II Taldea:** Parke eolikoak, ahal bada, ez dira talde honetan kokatutako kokalekuetan ezarriko –talde honetako kokaleku batzuetan bakarrik ezarriko dira parke eolikoak-. Gatzume talde honen baitan kokatuko litzateke.

9.2.4. Energia aurrezteko udal neurriak

Urbanizazio berriari fluxu murriztaileak jarri dira.


9.3. Hondakinak

9.3.1. Hondakinen sorkuntza

Hondakinen sorkuntzaren datuak ez dira herriz herri aurkitzen eta ondoren azaltzen diren datuak Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalerri guztienak dira.


9.3.1.1.- Hondakinen sorkuntzaren bilakaera

- Tolosaldeko Mankomunitatean sortutako Hiri Hondakinen (H.H.) bilakaera, (kiloak/biztanleko/eguneko)




Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea 2004

- Tolosaldeko Mankomunitateko Hiri Hondakinen bilakaera (kilo/biztanle/urteko)



Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea 2004

- 2004ko Tolosaldeko Hiri Hondakinen frakzioak (%tan)



- Tolosaldeko mankomunitatean biztanleko eta eguneko sortutako hiri hondakin kopuruak hamar urtetan %34ko gorakada jasan du.
- 2000 urtetik zabortegira botatako hondakin kopurua nahiko konstante mantentzen bada ere, gaikako bilketaren gorakadaren ondorioz, hondakin kopuru totalak %6ko gorakada izan du.

9.3.2. Hondakinen kudeaketa

9.3.2.1.- Hondakinen kudeaketarako organo eta enpresa eskudunak

ETXEKO HONDAKINEN KUDEAKETA	
HONDAKINA	INSTALAKUNTZA/ KUDEATZAILEA
Hiri-hondakin solidoak	Biltegiak lur azpian eta esku bilketa/ Tolosaldeko Mankomunitatea
Beira	Biltegiak lur azpian eta esku bilketa/ Tolosaldeko Mankomunitatea
Papera	Biltegiak lur azpian/ Tolosaldeko Mankomunitatea
Objektu handiak	Ez dira jasotzen
Ontzikiak	Biltegiak lur azpian/ Tolosaldeko Mankomunitatea
Etxeko olioak	Tolosaldeko Mankomunitateko kamioia
Erabilitako arropa	Biltegi bakarra dago/ Tolosaldeko Mankomunitatea.

Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea 2004

Birzikla daitezkeen materialak							
Artikuluak:	OLIOAK	PILAK	ONTZIAK	PAPERA ETA KARTOIA	ARROPAK	BEIRA	DENDETAKO KARTOIA
Maiztasuna	Hileko 2. asteazkenean (Elbarrena: Reus Plaza 9:00-10:15; Zizurkil Goia: bilketa ibiltaria: 10:30-11:00)		Astean 0,5 eta 2 bitartean	Astean 0,5- 4 bitartean.		Edukiontzien betetze mailaren araberakoa	astelehenetik ostiralera (jaietan izan ezik) 20:00ak eta 20:30ak bitartean.
Modua:	Kamioia	Edukiontzia	Edukiontzia	Edukiontzia	Edukiontzia Elbarrena auzoan, eliza ondoan	Edukiontzia	Andoain, Ibarra, Tolosa eta Villabonako puntu jakinetan jasotzen da
	Edukiontziak Tolosaldean	1/735 biztanleko	1/302 biztanleko	1/286 biztanleko	1/1.471 biztanleko	1/227 biztanleko	
	Edukiontziak Zizurkilen	1/566 biztanleko	1/236 biztanleko	1/202 biztanleko	1/ 2.828 biztanleko	1/157 biztanleko	

Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea 2004

Mahai Teknikoan hondakin bilketaren inguruan ondokoak aipatu ziren:

Hiri hondakin solidoentzat edukiontzi gehiagoren eskaerarik ez dago. bilketa zerbitzua mankomunatzea aurreikusita dago 2006rako. Alboko bilketa sistema ezartzea aurreikusten da.

Zizurkilen merkatarien kartoia edukiontzietan uzten da (mankomunitateak zerbitzu berezirik ez du eskaintzen)

9.3.2.2.- Kudeaketa azpiegiturak herri zein eskualde mailan

1998. urtean Tolosaldeko Mankomunitatea eratu zen 28 udalerriri hiri hondakinen kudeaketa aurrera eramateko helburuarekin. Udalerrri hauen artean, Udaltaldeko

zazpiak aurkitzen dira. 2004. urtean Mankomunitateak 57.381 biztanleri ondorengo zerbitzuak eskaini zizkien:


- Gaikako bilketa eta Birziklajea
- Industri poligonoetako bilketak
- Anoetako Garbigunea
- Ekoizle txikien Hondakin Arriskutsuak
- Hondakinen tratamendua
- Ontzi arinen sailkatze planta
- Ingurumen heziketa eta kontzientziazio kanpainak
- Pilen bilketa komertzioetan
- Dendetako kartoi bilketa Andoain, Ibarra, Tolosa eta Villabonan.
- Konpostaia.

Hondakinen tratamenduari dagokionez, 2001. urtean San Blas udal zabortegiaren bizi iraupena agortu zen. Geroztik, eskualdeko Hiri Hondakinak Beasaingo Sasieta zabortegian botatzen dira. Tolosaldeko hondakinaz gain, Sasieta zabortegian Sasieta eta Debagoieneko mankomunitateetan sortutakoak botatzen dira. Sasieta zabortegiaren itxiera 2009an aurreikusten da.

9.3.2.3.- Gaikako Hondakinen bilketaren eboluzioa. Aldaketa eskualdearekiko.


Bildutako hondakinen norakoa.

- Tolosaldeko Mankomunitatean lortutako beira bilketaren bilakaera (kiloak/bizt./urteko)




Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea 2004

- Tolosaldeko Mankomunitatean lortutako paper-kartoiaren bilketaren bilakaera (kiloak/bizt./urteko)



Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea 2004

- Tolosaldeko Mankomunitatean lortutako ontzi arinen bilketaren bilakaera (kiloak/bizt./urteko)



Iturria: Tolosaldeko Mankomunitatea 2004

- Gaika bildutako hondakinen estimazioa 2004.urtean Udaltaldeko herrietan. (kilo/bizt.):

	Beira	Papera	Ontziak	Arropa	Olio/Hondakin arriskutsuak (litro edo unitate biztanleko)
Aduna	43,69	15,59	5,78	1,29	0,89
Anoeta	30,66	24,50	7,99	0,73	1,27
Asteasu	29,93	15,50	4,58	0,28	0,48
Hernalde	40,57	31,86	6,62	0,56	3,67
Irura	20,39	49,89	14,27	1,37	0,80
Villabona	22,79	25,65	7,18	3,37	0,48
Zizurkil	30,15	32,49	12,21	0,23	0,60
Tolosaldea	26,90	27,77	7,38	1,86	0,50

Iturria: Bertan eginda Tolosaldeko Mankomunitateko datuetan oinarrituz.

- Landare olioia eta hondakin arriskutsuen bilketan parte hartu duten pertsonak:

	ADUNA	ANOETA	ASTEASU	HERNIALDE	IRURA	VILLABONA	ZIZURKIL	
							Elb.	Goia
PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK	56 (%15,9)	318 (%17,82)	109 (%7,82)	40 (%12,26)	253 (%22,75)	1.625 (%28,27)	70	39
							(%0,04)	

- Landare olioia eta hondakin arriskutsuen bilketan biztanle gutxik hartzen du parte. Jasotako kopurua ordea, Tolosaldeko batezbestekoaren gainetik dago.

9.3.2.4. Lehen sektoreari lotutako hondakinen bilketa eta kudeaketa

9.3.3. Informazio eta komunikazio kanpainak

Tolosaldeko Mankomunitateak ingurumen heziketa eta kontzientziazio kanpainak burutu ditu:

- Landare-olio eta Etxetako Hondakin Arriskutsuen bilketaren ingurukoak.
- Hiri Hondakinen ingurukoa: Herritarrei eta eskualdeko Eskola txikiei zuzendua.
- Kartoiaren Gaikako bilketaren ingurukoa:
 - o Dendariei kartoiguneak seinalizatuz
 - o Enpresei edukiontzien bitartez

9.3.4. Kontrolik gabeko isurpen puntuen identifikazioa

Mahai Teknikoan adierazi zenez, errepide ertzetan sortzen dira kontrolik gabeko isurpen puntuak (normalean inerteak dira).



2005eko azaroaren 17an burututako Herri Batzarrean jasotako hondakinen inguruko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Edukiontzi gutxi dago (zabor organikoak).
- ♣ Kontzientzia gutxi dago. Zaborrak ateratzeko egun jakinak daude eta ez dira errespetatzen (zabor guztiekin orokorrean)
- ♣ Bolumen handiko hondakinak hilean bitan bakarrik jasotzen dira. Maiztasuna ez da nahikoa
- ♣ Bilketa egunen inguruan informazio gehiago behar da.

9.4. Atmosfera eta akustika

9.4.1. Atmosfera

Atmosferako airearen kalitatea ezagutzeko neurgailu gertuena Tolosan kokatua dago, Nafarroa etorbidea s/n.

	Asteazkena 5/10	Asteartea 4/10	Astelehena 3/10	Igandea 2/10	Larunbata 1/10	Ostirala 30/9
NO Tolosa	42	37	51	16	30	51
SO2 Tolosa	6	6	6	4	5	5
PM10 Tolosa	28	20	25	16	15	33
O3 Tolosa	18	18	20	29	24	15
CO Tolosa	358	298	217	206	344	392
NO2 Tolosa	43	39	40	30	28	43

(*) datu guztiak $\mu\text{g}/\text{m}^3$ = mikrogramoak/metro kubiko

Iturria: www.euskadi.net

9.4.2. Akustika

EAE-ko Zaraten mapa (2000)

- 10m-ra hots-maila > 70 dB(A) duten garraio sareak:
 - o A-15 Andoain- Nafarroa
 - o N-1
- Errepideek eragindako inpaktu akustikoa duten udalerrien artean Villabona eta Irura agertzen dira. Errepide-ertzetan zarataren aurkako hesiak jartzea bideragarria dela dio Zaraten mapak.
- Nolabaiteko inpaktu akustikoa duten industria-eremuak dituzten udalerrien artean Aduna eta Zizurkil aipatzen dira.

Mahai Teknikoan adierazi zenez zarata trafikoa edota industrialdearen ondoriozkoa da, eremuaren arabera. Neurri zuzentzaileak ezartzen ari dira. Zarata Mapa egitea aurreikusia zegoen baina oraingoz ez da egingo. Neurketak Udalak burutzen ditu.

10. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA

10.1. Baso ustiapena eta suteak

10.1.1. Baso aprobetxamendua

	Aduna	Anoeta	Asteasu	Irura	Villabona	Zizurkil	Udaltaldeko batezbestekoa
Baso azaleraren % azalera totalarekiko	65,9	52,3	43,3	61,0	61,2	57,6	55,5
Belardi azaleraren % azalera totalarekiko	18,3	37,7	41,6	6,2	18,7	27,1	27,4

- Zizurkilgo azaleraren gehiengoa (%57,6a) basoei dagokie eta %27,1a belardiei.

Baso mozketak 1995-2005/06/14

	EGUNA	MOTA	ESPEZIEA	M ³	HAK
BASO PUBLIKOAK	1998-04-08	Baso-soilketa	Intsinis pinua	3.894	22,23
	2004-09-13	Baso-soilketa	Intsinis pinua	1.690	20,00
				5.574	42,23
BASO PRIBATUAK	-	Baso-soilketa	Akazia	6,45	0,06
	-	Baso-soilketa	Gaztainondoa	2,4	0,20
	-	Baso-soilketa	Haltza	481	0,05
		Bakanketa	Haritz amerikarra	11,03	0,10
		Baso-soilketa	Haritz amerikarra	76,10	0,22
		Baso-soilketa	Haritza	13,76	0,25
		Bakanketa	Intsinis pinua	2.504,13	24,10
		Baso-soilketa	Intsinis pinua	15.242,79	50,62
		Baso-soilketa	Itsas pinua	262,19	1,12
		Baso-soilketa	Lizarra	0,53	0,03
		Bakanketa	Pagoa	9,11	0,10
		Bakanketa	Pinuak	24,14	1,27
		Baso-soilketa	Platanondoa	26,37	0,15
				18.183,81	78,27
				23.757,81	120,5
GUZTIRA					

Udaltaldeko udalerrietako baso-mozketak (1995 - 2005):

		Baso publikoak	Baso pribatuak	Guztira
Aduna	Ha.	1,36	20,79	22,15
	%	6,1	93,9	100,0
Anoeta	Ha.	-	7,10	7,10
	%	-	100,0	100,0
Asteasu	Ha.	-	17,26	17,26
	%	-	100,0	100,0
Hernalde	Ha.	-	11,33	11,33
	%	-	100,0	100,0
Irura	Ha.	42,71	3,80	46,51
	%	91,8	8,2	100,0
Villabona	Ha.	208,7	9,57	218,27
	%	95,6	4,4	100,0
Zizurkil	Ha.	42,23	78,27	120,5
	%	35,0	65,0	100,0
Udaltaldea	Ha.	295	148,12	443,12
	%	66,6	33,4	100,0

Iturria: Landa Ingurunearen Garapenerako Departamendua, GFA. 2005

- 1995-2005 artean 120,5 Ha. baso moztu dira Zizurkilen (horietatik %78,27 pribatua zen).
- Udaltalde mailan 1995 eta 2005 urteen artean baso mozketen %66,6 baso publikoan burutu dira eta %33,3 baso pribatuan.
- Mozketa gehienak intsinis pinuarenak izan dira (moztutako azalera nahiz ateratako egur bolumenari dagokionean).

Mahai Teknikoan azaldu zenez, aipatzen diren partzela publikoak Foru Aldundiarenka dira. Atxulondo-Abaloz inguruan daude. Pinua da eta malda handiko guneeetan kokatuta dago. Landaketa politika alda zezatela eskatu zitzaizen baina ez da aldaketarik egon

Baso-berritzeak

	Urtea	Espeziea	Azalera (Ha)
Baso publikoak	2000	Urkia eta haritza	2,657
	2000	Itsas pinua	8,282
	2000	Itsas pinua	2,376
	2000	Intsinis pinua	9,253
			22,568
Baso pribatuak	1995	Intsinis pinua	0,5
	1996	Haritz amerikarra	1,36
	1996	Intsinis pinua	17
	1996	Larizio pinua	6,78
	1998	Haritz amerikarra	0,52
	1998	Intsinis pinua	5,01
	1998	Larizio pinua	2,51
	1999	Intsinis pinua	6,54
	2000	Intsinis pinua	6,78
	2001	Haritz amerikarra	0,1
	2001	Intsinis pinua	4,38
	2001	Itsas pinua	0,9
	2001	Larizio pinua	4,6
	2002	Haritz amerikarra	0,7
	2002	Intsinis pinua	7,97
	2002	Intxaurrondoa	0,05
	2004	Beste hostozabalak	1,32
	2004	Intsinis pinua	1,22
	2004	Lizarra	2,7
			70,94

- 1995-2004 artean Zizurkilen 93,51Ha. basoberritu dira, gehiena (%75.8) baso pribatua izanik.
- Basoberritze gehienak koniferoen espezieenak izan dira (intsinis pinua batik bat).

10.1.2. Baso suteak

01/01/1996tik 31/12/2004ra

	EZBEHAR KOPURUA			AZALERA (Ha)			GALERAK
	< 1 Ha	>1 Ha	GUZTIRA	Zurezko landaredia	Landaredi belarkara	GUZTIRA Hektareak	Ekonomikoak
ADUNA	2	0	2	0,50	0	0,50	4.273
ANOETA	0	0	0	0	0	0	0
ASTEASU	15	12	27	76,90	1,30	78,20	114.699
HERNIALDE	1	2	3	3,10	0	3,10	3.205
IRURA	1	0	1	0,30	0	0,30	1.113
VILLABONA	2	3	5	4,50	3,00	7,50	3.047
ZIZURKIL	3	0	3	1,60	0	1,60	538

- 1996 eta 2004 urteen artean 3 sute gertatu ziren Zizurkilen.

10.1.3. Eraginaren deskribapen kualitatiboa

Basogintzak inpaktu esanguratsuak sor ditzake:

- Lurzoruaren higadura. Fenomeno hau areagotu egiten da landaketa berriak direla eta hondeamakinak erabiltzen direnean.
- Baso pistak irekitzeak, hainbat eragin sor ditzake:
 - Baso eremuen ezabatzea
 - Gainazaleko isurketa fluxu handien sorkuntza
 - Lurzoruaren trinkotzea
 - Higadura
- Foru Aldundiko araudiak finkatutako basogintza distantzia minimoak ez betetzeak eragin hauek ekar ditzake:
 - Baso suteekiko zaurgarritasuna areagotzea
 - Herritar, lur-jabe eta abarren arteko liskarrak
- Basoetako izurrien gaineko kontrolarentzat tratamendu biologiko-kimiko integratuak burutzeak (baso eremuak hegazkin bidez fumigatzea...) kalteak eragin ditzake modu selektiboan ez bada jokutzen.

Basogintza jardueren eragin positiboak, herri inguru, paisai edota nortasunean

Eragin positibo hauek ekar litzake baso jarduerak:

- Negutegi efektuaren aurkako eragin positiboa
- Higadura murrizten da basoak lurzoruari eutsi egiten baitio. (nahiz eta baso mozketa egitean justu aurkakoa gertatu).
- Uholdeetan uraren abiaduraren geldiaraztea.

10.1.4. Zertifikatutako baso ustiapenak

Bakoitzak bere kudeaketa plana dauka.

Jabetza pribatuko basoak:

UDALERRIA	Hektarea kopurua
Zizurkil-Aduna	11
Asteasu-Zizurkil	21,8
Villabona	43
Asteasu	2,64
Zizurkil	1,21
Asteasu-Zizurkil-Aduna	7,6
Aduna	13,2
Zizurkil	2,8

Iturria: Basalde Entidad Regional Solicitante de la Certificación Forestal 2005.

Zertifikatutako baso publikoak

Udaltaldea osatzen duten udalerrietako lurretan, Amasamendia, Villabonako udalaren jabetzako herri onurako mendia dago zertifikatuta. 1,091 ha ditu.

10.1.5. Kexa eta salaketak

Ez dago daturik.

10.2. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak

10.2.1. Eraginaren deskribapen kualitatiboa

Nekazal jarduerari lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak:

- Nekazal jardueretan erabiltzen diren produktu batzuk hautsa, gas igorpenak, ... sor ditzakete.
- Produktu kimikoak (pestizidak, ongarriak,...) modu intentsibo eta desegokian erabiltzeak lurpeko urak kutsa ditzake.
- nekazaritzako hondakinak (edukiontzia, plastikoak, ...) modu egokian kudeatzea beharrezkoa da.
- Urak landaredi gabe geratu den zoru biluziaren higadura eragin dezake
- Higadura edota nekazal jarduera desegokiek lurzorua egitura eta ezaugarri fisiko-kimikoak eralda ditzakete.

Abelazkuntzarekin lotutako ingurumen eraginik esanguratsuenak:

- Abeltegi edo ustiategi intentsiboetako hondakinen hartidura dela eta kiratsa sor daiteke.
- Abelazkuntzako hondakinak ongarri bezala modu desegokian erabiltzeak lurzorua eta lurpeko uren kutsadura eragin dezake

Nekazaritza eta abeltzaintza jardueren eragin positiboak herri inguru, paisai edota nortasunean, berriz, ondokoak izan daitezke:

- Paisaiaren kalitatea eta biodibertsitatea aberastea.
- **Nekazaritza eta abeltzaintzako kutsadura iturriak Zizurkilen:**

Euskal Autonomi Erkidegoko Ingurumenaren Babeserako 3/98 Lege Orokorrak jasotakoaren arabera, Zizurkilgo udalerrian ondorengo jarduerak potentzialki kutsatzaile kontsideratzen dira:

Behi ustiapenak
ARETA BASERRIA
ARIZMENDI BASERRIA
AZKARATE BASERRIA
BERASTEGI BASERRIA
BURRUSTI BASERRIA

IRAZU BASERRIA
ITZIBAR BASERRIA
UGARTE BASERRIA
ZALDU GOIENA BASERRIA
ZALDUAZPI
AMEZKETA
IRUÑA
FRAISORO
Ardi ustiapenak
ANDABARRO BASERRIA
Hegazti ustiapenak
ARAMBURU
LEPASORO

Iturria: 2005.go AASSen berrikusketa

10.2.2. Nekazaritza/abeltzaintza ekologikoko ustiategiak

- Ez daude.

10.2.3. Kexa eta salaketak

Mahai Teknikoan adierazi zenez, azkenaldian arazo gehiago sortzen da salbuetsitako jardurekin. Minden isurpenei dagokienean ere, azkenaldian kexa dexente egon da, batez ere Asteasun, baina isurpenak Zizurkiletik pasatzen den errekastora egiten dira. Egoera hauek salatzen dira Foru Aldundian eta landazainak etortzen dira, baina gero ez da ezer egiten. Zizurkilen badago nahiko kontzientzia gaiaren inguruan eta zerbait egin beharra dago.

10.4. Industria/zerbitzuak

10.4.1.Eraginaren deskribapen kualitatiboa (zaratak, usainak...)

Industria jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragina:

- Baliabide naturalen kontsumoa (lurzorua, ura, energia eta gainontzeko lehengai eta gai osagarriak)
- Hondakinak (ur zikinak, zarata. igorpenak...)

Ibaira isurketak

1999ko datuen arabera, ondorengo industriek ibaira isurtzen dute:

- Echesa, S:A: transmisiorako organoak, eta mekanizazio eta muntaiaren bidez mota guztiko murriztaileak eta abiadura aldagailuak egiten dituzte.
- Oriako paper-fabrika: idazteko eta inprimatzeko papera egiten dituzte. Ezarritako sistema berriaren bidez, urak tratatu eta materia organikoa eliminatzen dute. Modu honetan, enpresaren isurketaren analisiek erakusten dutenez, administrazioak ezarritako mugen azpitiko balioak lortzen dituzte aztertutako parametroetan.
- Perot, S.A: bereziak diren ehun metalikoak eta sintetikoak egiten dituzte industria-erabiletarako.
- Marie Bizard España, S:A: destilazio eta iragazketa bidez anisa egin eta botilatzen dute, eta likoreak ere egiten dituzte.

Isurketen industria-efluenteak ur-araztegi batetara loratzen dira eta tratatutako urak kutxa batetara bidaltzen diren bitartean, ur fekalak udal kolektorera isurtzen dira.

Igorpen atmosferikoak

EPER (Igorpen eta Iturri kutsagarrien euskal erregistroa) zerrendari dagokion informazioak, ondokoak jasotzen ditu:

- Oriako paper-fabrika:

	Metodoa	Kopurua (kg/urte)	Atalase-muga balioa (kg/urte)
Karbono dioxidoa	Kalkulatua	43.892.280	100.000.000
Metanoa	Kalkulatua	3.146,4	100.000
Karbono monoxidoa	Neurtua	2596,08	500.000
Konposatu organiko hegazkoer ez metanikoak	Kalkulatua	3146,4	100.000
Nitrogeno oxidoak	Neurtua	185.016,14	100.000

Iturria: 2005.go AASSen berrikusketa

10.4.2.Zertifikatutako enpresak (kalitatea, ingurumena)

Enpresa	CNAE	Sektorea	ISO	EMAS	Zertifikatzailea	Zertifikazio eguna	Udalerrria
Gas de Euskadi S.A.	40200	Energia	Bai	Ez	Aenor	27-12-2000	ANOETA
Unipapel Transformación y Distribución, S.A.	21250	Lehengaien transformazioa	Bai	Ez	Aenor	29-12-2004	ADUNA
Refractarios Kelsen S.A.	2626x	Hondakin/birziklapen kudeatzaileak	Bai	Ez	Entidad de certificación y aseguramiento	21-02-01	ADUNA
Manufacturas Infantiles S.A.L. (Arrue)	74xxx	Besteak	Bai	Ez	Aenor	29-06-01	ADUNA
Traderisa	90002	Hondakin/birziklapen kudeatzaileak	Bai	Ez	Entidad de acreditación y aseguramiento	20-02-2001	ADUNA
Matia Fundazioa (Control Gerontologico Fraisoro)	8514x	Besteak	Bai	Ez	Det Norske Veritas España	25-03-2003	ZIZURKIL
Matia Fundazioa	8514x	Besteak	Bai	Ez	Det Norske Veritas España	25-03-2003	ZIZURKIL

10.4.3.Jarduera Lizentzien tramitazio egoera

- Jarduera lizentzien jarraipena egiteko programaren bat garatzea beharrezkoa dela antzematen da. Gaur egun ez dago inbentario eguneraturik.

10.4.4.Kexa eta salaketak

- Ez dago daturik.

10.5. Lurzoru poluituak**10.5.1.Potentzialki poluitutako lurzoruen identifikazioa eta leheneratze jarduerak**

Potentzialki poluitutako lurzoruen informazioa IHOBek buruturiko jarduera potentzialki kutsatzaileen Inbentariotik jasotakoa da.

Potentzialki kutsatzaileak diren jarduera kopurua	60
Potentzialki kutsatutako eremu kopurua	28
Estimatutako azalera guztira	6,9 ha

Industria jarduerak dituzten eremuak:
PEROT, S.A.
GASHOR-OOMS, S.A.
ALAS BERRI
FUNDICIÓN DE HIERRO
PLASTIGOR, S.A./ MANUPLAST-Z, S.A./ GUK-PLAST, S.A./ POREVI, S.A./ FELEZ Y MAZA, S.L./
TALLERES AMBE/ CONSTRUCCIONES MECÁNICAS ENDAKI, S.A./JARDI, C.B./ HERRERÍA-CALDERERÍA/ TALLERES GARMENDI/ VILLABONA, S.A./ OIGARA, C.B.
INDUSTRIAS STERM, S.A.
ULA CONSTRUCCIONES METÁLICAS
PAPELERA DEL ORIA
UZZTARRI
MOZTU
PLANTA BAJA DE LA CASA ARAZKETEGI
TALLERES ARRASTROA
TALLERES AMONDARAIN, S.A.
TALLER MECÁNICO
TRANOSA
ECHESA, S.A.
TALLERES MECÁNICOS BOST
MAQUINADOS ITURLE, S.A.
LEIBI

Industria jarduerak dituzten eremuak:
TENKOR, S.L.
JAURE, S.A.
HIERROS ICUÑA, S.A.
TALLER MECÁNICO
CAUCHO INDUSTRIAL AMAI, S.L.
CARPINTERIA BENGOCHEA, S.L.
TALLERES LEBAN, S.A.L.
ESTACIÓN DE RENFE

Aurri eremuak:
POSTELÉCTRICAS, S.A.

Zabortegi eremuak:
VERTEDERO ZUBIZARRETA-ENEA
VERTEDERO PAKO USABIAGA

Iturria: 2005.go AASSen berrikusketa

11. KOMUNIKAZIO, SENSIBILIZAZIOA, ETA PARTE-HARTZEA

11.1. Komunikazio kanalak

11.1.1. Udalerrri mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak

- Zer ote? (hilerokoa, abuztuan ezik)
- Bandoak

11.1.2. Eskualde mailakoak: Komunikabide zerrenda, tirada, audientziak

- Aiurri hamaboskaria www.aiurri.com. Andoain, Villabona, Zizurkil, Aduna, Larraul eta Asteasun banatzen da. 1800 ale inguru banatzen dira harpidedunen artean.
- Tolosaldeko Hitza. www.tolosaldeko hitza.info . Astelehenetan ezik beste egun guztietan banatzen da. 7000 ale inguru argitaratzen dira.
- Txolarre irrati. (107.5-100.9 FM) Andoaindik Legorreta bitartean entzuten den irrati librea da. 2000ko abenduan sortu zen eta Arrosa sareko kidea da. Euskal Herriko irrati libreek sortutako Arrosa irrati-ekoizpen zentroko partaidea da. Arrosa zentroaren helburua Euskal Herriko irrati libre guztiek batera lan egin eta ekoizpen propioak eta euskarazkoak sortzea da. Bere zonaldeko informazio orokorra, musika, eztabaida saioak... programatuta ditu Txolarre Irratiak (www.txolarre.com).

11.1.3. Udalak erabiltzen dituen komunikazio-kanalak: Bandoak, komunikabideak...

- Udal bandoak
- Korrespondentzia etxeetara
- www.zizurkil.com

11.2. Partehartzea

11.2.1. Udal batzordeak: Batzorde irekien existentzia

Sail ezberdinak daude eta bakoitzeko buru zinegotzi bat da.

11.2.2. Partehartzeko beste modu batzuk (auzolana, erlijiosoa...)

www.zizurkil.com orrian partaidetzarako gutunontzia aurkitzen da eta bertara iradokizunak, oharrak eta kexak bidal daitezke.

Iturria: www.zizurkil.com

11.3. Udalerriko elkarte sarea**11.3.1. Udalerriko elkarteak**

Zizurkilen dauden elkarteak honako hauek dira:

ELKARTE MOTA	ELKARTEAREN IZENA
HEZKUNTZA	Uliazpi fundazioa
	Pedro M ^a Otañoeko guraso elkarte
AISIALDIKOA	Epergain aisialdi taldea
	Txintxur aisi taldea
	Elizpe jubilatuen elkarte
	Epergain gaztetxo taldea
KIROL-ELKARTEA	Danena halterofilia k.e.
	Danena futbola k.e.
	Ziotza k.e.
	Peuskate k.e.
	Pony-pottok
	Behar zana k.e.
	Eskola kiroleko koordina
	Zizurkil goiko zentroa
GASTRONOMIKO -KULTURALA	Urkamendi
	Kostata gazte asanblada
BESTEAK	Abiadura handiko trenaren aurkako elkarte

Iturria: www.zizurkil.com eta 2005.go AASSen berrikusketa

12. UDAL KUDEAKETA

12.1. Udal ingurumen kudeaketa

12.1.1. Udal ingurumen araudia

- Eskatzu mendian larretzea arautzeko ordenantza. (BOG. 2003/08/18)
- "Tolosaldea Garatzen" eskualde-agentziak Tolosaldean, lurzoru urbanizatuan, irrati eta telefonorako antena berriak ezartzea debekatzen duen eskualde mailako ordenantza sustatu du.

Iturria: 2005.go AASSen berrikusketa

12.1.2. Ingurumen edo/eta iraunkortasuneko irizpideak kontutan hartu direneko jarduerak

Zizurkilgo 2005eko AASSen berrikuspenean, irankortasunari dagokionez zenbait helburu azaltzen dira:

- Mugikortasunari dagokionez, motordun ibilgailuen mugikortasuna murriztu eta ingurumenerako onuragarriagoak diren beste mugikortasun moduak sustatu nahi dira.
- Etxegintzari dagokionez, AASSek hazkuntza mugatuko estrategia bat proposatzen dute eta honen bitartez, berez landa-eremuko diren ingurune eta balore urbanoak mantentzea.

Iturria: 2005.go AASSen berrikusketa

12.2. Arriskuen analisi eta kudeaketa

12.2.1. Udalerri mailako Larrialdi Planak

Gaur egun Udalerri mailako Larrialdi Planik ez dago. Aurreikusita dago burutzea. "Larrialdiei Aurregiteko Bidea-LABI" Euskadiko Babes Zibilaren Planaren arabera, udalerri mailako larrialdi Plana izatea ez da beharrezkoa 20.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan, baina Plana izatea gomendatzen zaie 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei.

12.2.2. Udal azpiegitura eta instalazioetarako Larrialdi Planak

Enpresa bat ari da udal egoitza guztietan lantzen, bakoitzari dagokion Larrialdi Plana (arriskuen ebaluazio fasean daude).

12.3. Udal langileriari zuzendutako prestakuntza

Ez dago daturik.



2005eko azaroaren 17an burututako Herri Batzarrean jasotako udal kudeaketaren inguruko kezka nagusiak ondokoak izan ziren:

- ♣ Udalean idatziak sartu eta erantzunak ez dira behar bezain azkarak.

13. LABURPENA ETA ONDORIOAK

4. DEMOGRAFÍA ETA LURRALDE EREMUA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Demografia	
- Zizurkilgo biztanleriaren kopuruak gorabeherak izan ditu azken hamar urteetan. Egun 1994koa baino altuagoa da. - 1994: 2.708 biztanle - 2004: 2.855 biztanle	
20-64 bitarteko adin taldea da nagusitzen dena eta honen barnean bereziki 20-34 bitartekoa, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere	Azken hamar urteetan biztanleria kopuruak gorabeherak izan ditu.
Familien gehiengoak (%42) seme-alabak dituzte. Pertsona bakarrekoak (%18) dira ugariak ondoren	
Zizurkileko migrazio mugimenduak saldo negatiboa zuen 2003an (-44). Gipuzkoakoa (-9) eta Tolosaldeakoa (-39) baino negatiboagoa.	Zizurkilgo migrazio saldoa negatiboa da.
Atzeritar gehienak EBetik kanpo dauden herrialdeetakoak dira	Zizurkil bizi diren atzeritar gehienak EBetik kanpo dauden herrialdeetakoak dira.
Hiri Planeamendua	
Zizurkilgo biztanleria bi eremutan banatzen da: GOIKOA, ofizialki Zizurkil bezala eta herri mailan KAXKO eta KAXKOAREN BANATUTAKOA bezala ezaguna eta BEKOA edo Elbarrena. Azken honek hiri-izaera handiagoa du.	Zizurkilen izaera oso ezberdineko bi herrigune bereizten dira.
Indarrean dauden AASS-ak 1997koak dira. Egun berrikuspen lanetan dihardu udalak.	Udalak AASSen berrikuspen lanetan dihardu
Lurzoruaren erabilera	
Baso landatuek betetzen dute Zizurkilgo azaleraren gehiengo, baso eta belardiekin batera	Azalera gehiena baso landatuek okupatzen dute.
Hiri kalitatea	
- Bulandegi bidean eta Ubare auzoan farola asko argirik gabe daude (H.B.) - Bulandegi auzoan garbiketa ez da egokia (H.B.) - Suteetako ur-hartunerik ez dago (H.B.) - Espaloitako ertzak oso gaizki daude, kamioiak igo eta puskatzen dituztelako (H.B.) - Dagoen parke bakarra kentzea aurreikusita dago (H.B.) - Gune berdeak ez dira batere zaintzen (H.B.) - Gaizki urbanizatutako eremuak daude eta mantenua eskasa da orokorrean	- Azpiegitura aldetik hainbat hobekuntza egin beharra dago. - Gune berdeen eskasia dago herrian. - Trafiko astunak hiri-kalitate ezari eragiten dio. - Herria bi gune nagusitan banatuta dago eta ez dago bien artean loturarik. - Errepideak bitan banatzen du Elbarrena auzoa eta ez dago erdigune neuralgikorik. Honek herri bizitzaren murritztea dakar, herritarrek Villabonara jotzen baitute askotan

4. DEMOGRAFÍA ETA LURRALDE EREMUA	
LABURPENA	ONDORIOAK
(H.B.). ▪ Hiri kalitatea hobetu nahi bada (zarata, bibrazioa,...), Asteasuko industriaren eraginez dagoen trafiko astunari irtenbidea eman behar zaio.(H.B.). ▪ Herria gaizki diseinatua dago. Auzoak sakabanatuta daude eta errepideak herria banatzen du. Herriak ez du erdigunerik zerbitzuak eskaini eta jendea biltzeko. Ez du herri izaerarik Urbanistikoki ez du herri baten egitura.(H.B.) ▪ Bi gune nagusien artean loturarik ez dago. Jendea Villabonara joaten da zerbitzu bila han dagoelako dena. (H.B.)	

5. INGURUNE SOZIOKULTURALA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Etxebizitza	
1986-2003 epean etxebizitza kopuruak %26,28ko gorakada izan zuen. Etxebizitza berri gehienak, %40a hain zuzen, 1996 eta 2003 urteen artean egin dira 2003an 139 etxebizitza huts kontabilizatu ziren (%12,8). - Etxebizitza eskaeraren inguruan 2004an buruturiko inkestaren arabera, gehiengoak (%91) Babes Ofizialeko Etxebizitzak eskatzen ditu. - Inguruko herrietan etxeak egiten ari dira eta Zizurkilgo gazteak kanpora doaz. Herria zahartu egingo da. Etxebizitzak behar dira, bertako jendearentzat, bai goian eta bai behean (H.B.) - Etxebizitza aurreikuspenak biztanleriaren beharren arabera (AASS): 2003-2006: 40-80 etxebizitza 2003-2010: 140-190 etxebizitza - Erosotasun indizea %76,9koa zen 2001ean 2003.urtean etxebizitza nagusi bakoitzeko 3 biztanle zeuden.	1996-2003 epean etxebizitza kopuruak %10 egin zuen gora. - Etxebizitza huts ugari dago Zizurkilen - BOE eskaera handia da - Gazteak kanpora joan ez daitezen etxebizitzak egin beharra dago.
Hezkuntza	
- Derrigorrezko Hezkuntza Zentroak: - San Millan eskolak (gelak handitu beharra dago) - Pedro M^a Otaño Herri eskola - Jesusen Bihotza Ikastola - Haur eskola badago herrian (Pagamuño) - Fraisoro (Nekazal heziketa eta garapenerako zentroa. Erdi-edo goi-mailako moduluak) - Haur eta gazteek eskolako taldekako lanak burutzeko aukera izan dezaten elkargune apropos baten beharra antzematen da (AASSen diagnosia) 2001 eta 2004 urteen artean Zizurkilgo biztanleen ikasketa mailak hobera egin du. Hala ere, alfabetatu gabekoen portzentaia Tolosaldekoaren gainetik dago.	- Azpiegitura aldetik zenbait gabezia eta hobekuntza behar antzematen dira (San Millan eskolako gelak handitzea, eskolako taldekako lanak egiteko elkargunearen beharra...) - Zizurkilgo biztanleriaren alfabetatu gabekoen portzentaia Tolosaldeko batezbestekoaren gainetik dago.
Osasuna	
Zizurkilek ez du herrian bertan osasun-zentrorik. Erniobeheako oinarritzko zerbitzua betetzen duen zentroa Villabonan kokatuta dago	Zizurkilen ez dago osasun-zentrorik.

5. INGURUNE SOZIOKULTURALA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Gizarte zerbitzuak	
▪ Zizurkilgo gizarte ongizateko ekipamendua mankomunatuta (Aiztondo) dago ▪ Ekipamenduak: - <u>Babestutako pisua</u>: Udal aginpide eta jabegokoa. Bere kabuz baliatzen diren bost erabiltzaile. - <u>Fraisoro eguneko zentroa</u>: Matia Fundazio Erresidentzia. 15 plaza. - <u>Matia Fundazio Erresidentzia</u>: Mendetasuna duten pertsonentzako zentro gerontologikoa. 70 plaza. Ez dago udal-aginpidean. - <u>Uliazpi Fundazioa</u>: Udal-aginpedun gabeko adimen urriko pertsonentzako zentroa. ▪ Beren kabuz moldatzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, babes ofizialeko etxebizitzak eskaintzeko aukera ematea aztertzen ari da Udala	▪ Gizarte ongizateko gaiak Aiztondo mankomunitateak kudeatzen ditu ▪ Babestutako pisua, eguneko zentroa, Matia Fundazio Erresidentzia eta Uliazpi Fundazioak osatzen dute Zizurkilgo gizarte zerbitzuen ekipamendua. ▪ Beren kabuz moldatzeko arazoak dituztenentzat BOEak eskaintzeko aukera aztertzen ari da udala.
Kultura, erlijioa, aisia	
▪ Kultur, erlijio eta aisialdirako ekipamenduak: - Atxulondo kultur etxea, Iriarte kultur etxea, Loatzo musika eskola, Dantza eskola. - Kanposantua eta kalbarioa, San Miguel ermita, San Millan Eliza. ▪ Jarduera soziokultural eta erlijiozkoak: - Zizurkilgo III. Antzerki Astea - Maiatza Saltsan 05 - Zizurkilgo koadrilen eguna - e.a. ▪ Antzemandako beharrak (AASSen diagnosia) - Udal gazteria politika bat burutu eta finkatu - Gazteentzat estalita dauden informazio eta aisia guneak eraiki - Gaztetxearen leku aldaketa - Guztiz Intsonorizatutako ludoteka - Atxulondo Kultur Etxearen zabalkuntza eta zaharberritzea - Entzun areto bat egitea - Musika Eskola egokituta dauden eta egokiak diren lokal finkoetan jartzea - Dantza Eskola egokituta dauden eta egokiak diren lokal finkoetan jartzea	▪ Ekipamendu aldetik hainbat hobekuntza beharra antzematen da. ▪ Udal gazteria politika burutu eta finkatu beharra dago, ekipamendu eta jarduera egokiak eskaintzeko.

5. INGURUNE SOZIOKULTURALA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Kirola	
▪ Kirol ekipamenduak: Probalekua, frontoia, rokodromoa, futbol zelaia eta Olaederra kiroldegia. ▪ Futbol zelaia mantentzea garrantzitsua da (H.B.) ▪ Kirol Ekimenak: kirol astea, gau krosa, bikotekako biatloia, Andatza eguna....	▪ Kirol jarduera ugari antolatzen da udalerrian ▪ Kirol ekipamenduak osatzeko estali gabeko igerilekua eraiki eta goiko frontoia itxi beharra dago.
▪ Antzemandako beharrak (AASS): - Estali gabeko igerilekua - Goiko frontoia ixteko irtenbidea	
Euskara	
▪ Biztanleen %82a euskaldunak edo ia euskaldunak dira. Biztanleriaren %18a erdalduna da, Tolosaldean aldiz, %12a. Udaltaldea osatzen duten herriekin alderatuz, biztanleriarekiko erdaldun gehien duen herria da ▪ Udala euskararen zabalkuntza eta sustapen funtzioez arduratzen da: Euskaraz hezi programa, EBP⁹, Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketa, "Euskara merkataritzara" egitasmoa	▪ Biztanleriaren gehiengoa euskalduna da, baina erdaldun portzentaia tolosaldeko batezbestekoaren gainetik dago. ▪ Udalak hainbat ekimen egiten ditu euskara zabaltzeko eta sustatzeko.
Kontsumoa	
▪ Kontsumitzailean arreta zerbitzua: Villabonan eta Tolosan	

⁹ EBP⁹: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

6. INGURUNE EKONOMIKOA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Egitura ekonomikoa	
▪ Biztanleko errenta gordina, Udaltaldea osatzen duten herrikoekin alderatuta, altuenetakoa da (2001) ▪ Barne produktu gordina Udaltaldea osatzen duten herri gehienena baino baxuagoa da (2000ko datuak) ▪ Zizurkilgo balio erantsian industriak du pisu gehien, zerbitzuen aurretik ▪ Zizurkilgo langile gehienek zerbitzuetan (%51,34) eta industrian (%37,41) dihardute.	▪ 2000 eta 2001eko datuen arabera Zizurkilgo biztanleko errenta gordina Udaltaldea osatzen herriekin alderatuta altuenetakoa da, barne produktu gordina aldiz baxuenetakoa. ▪ Industriak du pisu gehien Zizurkilgo balio erantsian. ▪ Zizurkilgo langile gehienek zerbitzu eta industrian egiten duten lan.
Lehen sektorea	
Nekazaritza-abeltzaintza	
▪ Orografia dela eta Zizurkilen, abeltzaintza da jarduerarik garrantzitsuena. Ustiapen gehienak (%74,5) abelazkuntzaren jarduerarekin lotuta daude. Lurzoruaren %50a belardi eta larreei dagokie abelazkuntzak duen garrantziagatik ▪ Zizurkilgo baserrien %42,57an, jabearen dedikazioa partziala da. ▪ Nekazarien artean, 65 urte gorakoak nabarmentzen dira, baina batez ere 45-65 urte arteko gizonak. Ezkongabetasun indize altuaren islada da hau ▪ 1989-1999 urteen artean ustiategi kopuruak eta azalerak gora egin zuen. 1999-2004 artean aldiz behera egin zuen, 1989ko egoerara bueltatuz ▪ Azken urteetan, tamaina handiko ustiategien (30 ha.tik gorakoak) kopurua handiagotzen doa	▪ Orografia dela eta abeltzaintza da jarduera garrantzitsuena. ▪ Azken urteetan tamaina handiko ustiategi kopuruak gora egin du ▪ Nekazari gehienak 45 urtetik gorakoak dira, asko ezkongabeak.
Baso ustiategiak	
▪ Lurzoruaren %39a baso-ustiategiei dagokie, batez ere intsinis pinuari. Baso azaleraren %50a nekazarien esku dago.	▪ Baso azaleraren %50a nekazarien esku dago.

6. INGURUNE EKONOMIKOA											
LABURPENA		ONDORIOAK									
Bigarren sektorea		- Azken urteetan eraikuntzari lotutako establezimendu kopuruak gora egin du. Industria eta energiari lotutakoak aldiz behera. - Jarduera ekonomikotarako 5,33 ha libre leudeke LAParen arabera.									
- Eraikuntzari dagokion establezimendu kopuruak gora egin du %33an azken urteotan - Industria eta energiari dagokion establezimendu kopuruak behera egin du %12an - Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Planean LAPean jasotzen denez, Zizurkileko jarduera ekonomikoetarako lurzoru baliabideak ondokoak dira.											
<table><tr><th></th><th>Okupatua</th><th>Librea</th><th>Guztira</th></tr><tr><td>Zizurki</td><td>18,19</td><td>5,33</td><td>23,52</td></tr></table>					Okupatua	Librea	Guztira	Zizurki	18,19	5,33	23,52
	Okupatua			Librea	Guztira						
Zizurki	18,19	5,33	23,52								
Hirugarren sektorea		- Hirugarren sektoreko establezimendu kopuruak gora egin du azken urteetan. - Turismoa nekazal turismoan oinarrituta dago.									
- Hirugarren sektoreko establezimendu kopuruak gora egin du azken urteetan (1996-2003). Banku, aseguru eta enpresei zerbitzuak egiten dizkieten establezimendu kopuruak egin du gora gehienbat (%61). - Tolosaldeko Turismoko Plan Estrategikoa: Plan hau bertako baliabideen kontserbazioa eta promozioan oinarritzen da eta garapen iraunkorraren kontzeptuak eta irizpideak barneratzen saiatu da - Turismoari dagokionean, eskaera urte-sasoia araberakoa izaten da, batez ere, nekazal turismoa Aste Santu eta udaran - Bezeroen jatorria, gehienbat, Bizkaia, Katalunia eta Madril dira											
Enplegua		- Azken urteetan (1996-2004) Zizurkilgo lanpostu kopuruak gorakada jarraitua izan du. 1994-2004 epean langabeziak beherakada garrantzitsua jasan zuen (% 60 ↓). Gaur egun biztanleria aktiboaren %13ari eragiten dio langabeziak. - Emakume langabetu kopurua gizonezkoena baino altuagoa da.									
1996-2004 artean Zizurkilgo sortutako enplegu kopuruak gorakada jarraitua izan du - Azken hamar urteetan langabeziak beherakada garrantzitsua jasan du. - Zizurkilgo langabeziak biztanleria aktiboaren %13ari eragiten dio. - Emakume langabetu kopurua altuagoa da gizonezko langabetu kopurua baino - Lanaren sustapenerako proiektuak: - Tolosaldeko enplegu eta prestakuntzarako eskualdeko elkarteak - Tolosaldea garatzen - Apataerrekako industrialde mankomunatuak											

7. INGURUNE NATURALA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Ibaiak: ▪ Oria ibaiaren uraren kalitate fisiko-kimikoa: Udaltaldearen eremuan Iruratik aurrera eta bokaleraino jatorri organikoko kutsadura nabarmen handiagotzen da, eta ondorioz, ez da egokia arrainak bertan bizitzeko. ▪ Uraren kalitate biologikoa: Ordiziatik aurrera jaitsi egiten da eta eskasa da bokaleraino, behin eta berriz egiten diren isurketen ondorioz; egoerak hoberantz egitea espero da saneamendu-lanek aurrera egin ahala. ▪ Ibai eta errekek zikin daude bai Zizurkilen baita inguruko herrietan ere (H.B.) ▪ Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak dioenaren arabera, Zizurkilen, akuiferoen zaurgarritasun maila altua edo oso altua duten eremuak aurkitzen dira eta baita landaredia egoera onean duten ertzak ere	▪ Oria ibaiaren uraren kalitatea ez da ona.
Landaredia ▪ Landaredia: Egungo landarediaren gehiengoa baso landatu eta belardi eta labore lur atlantikoei dagokie ▪ Intsinis pinua eta baso misto atlantikoa dira nagusi Zizurkilen zuhaitz espezieen banaketari dagokionean	▪ Baso landatuek osatzen dute landaredia nagusia ▪ Intsinis pinua eta baso misto atlantikoa dira zuhaitz ugariak.
Paisaia ▪ Paisaia polita eta zaindua dago baserritarrek zaintzen dutelako, baina baserria jaisten ari da eta paisaiak orduan nora egingo duenaren inguruan kezka sumatzen da. (H.B.)	▪ Baserritarrei esker paisaia zaindua dago baina baserria jaisten ari da eta honek ekar ditzakeen ondorioak kezka sortzen du.
Fauna: ▪ Bereziki azpimarra daiteke Atxulondo-Abaloz-en ur ipurtatsa eta lepahoriaren agerpena	▪ Aipagarria da Atxulondo Abaloz-en ur ipurtatsa eta lepahoriaren agerpena.

7. INGURUNE NATURALA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Babestutako naturgune eta elementuak: ▪ Atxulondo- Abaloz. Euskal Autonomi Erkidegoko Espazio Naturalen Katalogo Irekian barne agertzen da (1992). ▪ AASS-en berrikuspenean ondorengoak aipatzen dira: • Interes naturalistikoa duten guneak: ATXULONDO-ABALAZ • Interes paisajistikoa duten guneak: EZKATZU • Interes geologikoa duten guneak: ZARATEKO GANTXON DAGOEN TOLESDURA	▪ AASSen berrikuspenean intereseko eremu gisa katalogatzen dira: Atxulondo-Abaloz, Ezkatzu, eta Zarateko Gantxon dagoen Tolesdura.

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
LABURPENA	ONDORIOAK
- Udalerriko egungo errepide sarea eta zirkulazio intentsitatea: -GI-2.631: Zizurkil Asteasu eta Villabonarekin lotzen du. Zirkulazio-intentsitateak gora egin du orokorrean 1992 eta 2003 bitarte -GI-3.281 eta GI-3.282 errepideek Zizurkil Goikoa eta Bekoa lotzen dituzte. GI-3281errepideari buruzko intentsitatearen informaziorik ez da lortu -GI-3.282ko kasuan, eguneko batez besteko ibilgailu-intentsitatea egonkor mantendu da 1999 eta 2003 bitartean - GI-3.610 Zizurkil, Aduna eta Andoain lotzen ditu. Sorabillan (Andoain) N-1-rekin eta Zizurkilen GI-2.631-rekin eta GI-3.282arekin bat egiten du. - Trafiko karga handia dago, Zizurkil eta Asteasu artean kokatutako industrialdeen ondorioz gehienbat. Sistema alternatiboak bilatu beharra dago. Etorkizuneko Zizurkil-Asteasu saihebidetarako trafiko intentsitatea jaitea ekarriko luke.(M.T.) - Goiko eta Beheko auzoen artean trafiko intentsitatea areagotu egin da. Oinezkoentzat biderik ez dago eta auto gehiago ibiltzeak oinezkoen mugikortasuna zailagotzen du. (M.T.) - Abiadura moteltzeko dispositiboak falta dira udalerrian.(H.B.)	- Zirkulazioak gora egin du Zizurkil eta Asteasu artean, industrialdearen ondorioz. Etorkizuneko saihebidetarako trafikoa jaitea ekarriko du. - Abiadura moteltzeko dispositibo beharra dago udalerriko puntu ezberdinetan.
Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lehenetsuneko Sareko, Oinarrizko Sareko eta Eskualdearteko Sareko hainbat errepidetan seinale horizontalak berritzeko proiektua dauka. Besteak beste, Zizurkiletik pasatzen den GI-2631 errepidearenak	
Mugikortasunaren arazoak: Zizurkilen soilik 10 langiletik 3k egiten dute herrian lan. Ikasketekin erlaziozko mugikortasunari dagokionean, %90-ak baino gehiagok atera behar du herritik kanpo.	Langile eta ikasle gehienek kanpora irten behar dute lanera eta ikastera

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Ibilgailuak: Biztanleko ibilgailu kopurua handituz doa. 2005ean, 0,6 ibilgailu/biztanleko dago.	- Zizurkilen bi biztanleko ibilgailu bat dago. - Hiru ibilgailuko bi aparkaleku daude Zizurkilen. - Ibilgailu kopurua handituz doa baina aparkaleku kopurua ez. - Aparkalekuak gehitzearekin batera biztanleen kontzientziazio beharra hautematen da.
- Aparkalekuak: gaur egun 881 aparkaleku daude (238 estaliak, 643 kalean. Hauetatik 400 seinalezatuak.), hiru ibilgailuko bi aparkaleku. - Aparkaleku falta dago, batez ere Zizurkil Behean. Hala ere, gertu aparkatzeko ohitura oso zabalduta dago (M.T.) - Zizurkilen duela 20 urteko aparkaleku kopuru berdina dago eta ibilgailu ratioa izugarri handitu da, aparkatzeko lekurik ez dago denontzat. Isunak jarri aurretik irtenbidea eman behar zaio arazoari (H.B.)	
Garraio publikoa: - Tolosaldea-bus: Villabona eta Adunarekin lotura. Astelehenetik larunbatera, 3 zerbitzu - TSST: Asteasura doan linea. - Tolosaldeak dituen garraio ezaugarriek zaildu egiten dute ohiko zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoa. Mugikortasun gutxiko herrietan ezin da kalitatezko ohiko zerbitzu bat jarri eta horregatik eskaria bete eta ibilbide finkoa duen taxi-zerbitzu osagarri bat ezarria dago. Zizurkilgo zerbitzua osatzeko, Villabona-Zizurkilen 5 taxi lizentzia daude. - RENFE: Villabona eta Zizurkilek tren geltoki bakarra dute, Brinkola-Irun lineakoa. Egunero 1098 pertsona igotzen dira geltoki honetan, eta 1063 jaitsi - Erabiltzaileen profila: %71,9 emakumezkoak dira. 53,5 16-29 urte bitartekoak %85,8 ohiko erabiltzaileak. - Zizurkil Behea nahiko ondo komunikatuta dago. Zizurkil Goikoaren egoera konplexuagoa da (M.T..) - Nazioarteko zabalera duen (UIC) Ibilbide Luzeko Trenbide Sare Berria ("Euskal Y"): Zizurkilen akueduktu eta tuneletik pasako da.(M.T.)	- Bi autobus linea, trena eta taxiak osatzen duten Zizurkilgo garraio publikoa - Zizurkil Behea nahiko ondo komunikatuta dago. Zizurkil Goikoaren egoera konplexuagoa da. - Trenaren erabiltzaile gehienak emakumeak eta gazteak dira. - Eukal Y-ak Zizurkil zeharkatuko luke.

8. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Oinezkoak eta Bidegorriak - Gaur egun Zizurkilen ez dago bidegorririk. “Aiztondo Bailarako Amasa-Villabona, Zizurkil eta Asteasu herriguneak lotuko dituen bidegorri aurreproiektua” 2.004ko uztailean aurkeztu zen, nahiz eta oraindik onartzeke dagoen. Zizurkilen 1.650m-tako luzera izango luke. - Elbarrenan autoak dira protagonistak. Ez dago oinezkoarentzat lekurik. (H.B.) - Oinezkoentzako biderik ez dago Goiko eta Beheko auzoen artean (H.B.)	- Bidegorririk ez dago gaur egun - Zizurkil eta Asteasuko herriguneak lotuko dituen bidegorriaren proiektua martxan da. - Oinezkoentzako bide falta dago
Irigarritasuna: 1999an egin zen Irigarritasun plana baina ez da burutu. Gauza puntualak egin dira beste zenbait obra aprobetxatuz. Irigarritasun Plana eguneratu beharra dago.	Udal Irigarritasun Plana eguneratu beharra dago

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
LABURPENA	ONDORIOAK
URA	
Hornidura: - Alkizako Ikili baserriaren ondoan dagoen gainazaleko ur-hartunetik hornitzen da herria. Ur-hartune honek, Saluate eta Aretako gordailuak hornitzen ditu. Aretak, Azkarate depositua elikatzen du. Ur-hornidura eta banaketaren sareak osatzen dituen hoditeriak 32.000m-ko luzera du, horietatik 26.000 banaketa sareari dagokiolarik - Iturburu propio asko galtzen ari dira. Duten garrantziagatik, mantendu beharko lirateke (Lepasoro...).(M.T.) - Tolosaldeako ur-hornidura sistema berria obratan dago momentuan (Ibiurgo urtegia eta Edateko ura Potabilizatzeko estazioa).	- Iturburuetatik hartzen da ura gaur egun - Iturburuak mantendu beharko lirateke - Tolosaldeko ur-hornidura sistema berria obratan dago momentuan
Uraren kalitatea: 2003: Txarra (edateko txarra bezala kalifikatuta %10 baino analisi gehiagotan) 2004: Txarra (edateko txarra bezala kalifikatuta %10 baino analisi gehiagotan) - Egungo deposituak ez dauka dekantazio sistemarik eta euri zaparraden ondorioz sortutako uhertasunak dakar analisisen emaitza hau izatea. Ibiur urtegiak arazo honi konponbidea emango dio. (M.T.)	Euri zaparradek uhertasuna eragiten dute ondorioz uraren kalitatea ez da ona. Ibiur urtegia martxan jartzea arazoa konponduko da.
Kontsumoa: 2002-2004 artean etxeetako ur kontsumoa %9,8an jaitsi da. Gainontzekoen kontsumoa aldiz igo egin da (%23,87). Guztira ur kontsumoak beherakada txiki bat jasan du (%1,23) - Aipagarria da 2004ko bigarren hiruhilekoan ur kontsumoan antzemandako gorakada - Ustiategiekin normalean beraien iturburutatik hartzen dute ura, baina lehorte garaian, saretik kontsumitzen dute. Ondo egongo litzateke bi sare izatea ustiategiei begira: Ibiurreko ura (ordainduz) eta beraien ura (ordaindu gabe).(M.T.) - Ura beste herrietan baino garestiagoa da (H.B.) - Ur galerekin arazoak daude Goiko aldean. Galera puntuak aurkitzeko inbertitu beharra dago. (M.T.)	- Ur kontsumoak beherakada txikia jasan du 2002-2004 epean - Ustiategiekin normalean iturburutatik hartzen dute ura, baina lehorte garaian saretik kontsumitzen dute. - Ur galeren arazoa konpondu beharra dago

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
LABURPENA	ONDORIOAK
Saneamendua: ▪ Zizurkilgo bi herriguneen saneamendu sareak independenteak dira bata bestearekiko. <u>Goikoak</u>, Asteasu ibaian ura husten duen Zizurkil erretenean eta Orian ura husten duen Antzibar erretenean isurtzen du. <u>Bekoa</u> auzoak Asteasu eta Oria ibaien zenbait puntutan isurtzen du. Bi kasuetan saneamendua unitarioa da, gune berrietan banandutako tramuak daudelarik ▪ Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oria ibaiaren Hodi Biltzaile Orokorra egitea aurreikusita du Villabona-Zizurkil gunean. Hodi biltzaile honetan jasotako ur zikinak etorkizunean eraikiko den ur araztegira eramango dira eta hemen Oria ibaiaren arroan Tolosan behera egindako isurkinak araztuko dira.	▪ Ur zikinak Asteasu eta Oria ibaira husten dira gaur egun. Etorkizunean Adunako ur araztegira eramango dira.

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
LABURPENA	ONDORIOAK
Energia	
- Sare elektrikoaren instalazioa orokorrean ona da eta egitura hiritarrari egokitzen zaio. Aireko kanalizazioak eta grapatuak dituzten instalazioetan, bigarren hauek kenduko dira, lurpeko kanalizazio erregistrableez ordezkatur. Ordezkapen hau, hobetze-lanekin batera egingo da. Orokorrean, goialdeko estalkia duten luminariak jarriko dira pixkanaka-pixkanaka, argi-kutsadura ekiditeko. - Gas banaketa sarea Bekoa auzoak du soilik. - Zizurkil goikoan propano biltegia dago (M.T.) - Urbanizazio berriaren argiztapenean fluxu murriztaileak jarri dira	- Sare elektrikoaren instalazioa ona da orokorrean - Goialdeko estalkia duten luminariak jarriko dira argi-kutsadura ekiditeko - Urbanizazio berriaren argiztapenean fluxu murriztaileak jarri dira. 2000-2004 epean elektrizitate kontsumoak behera egin zuen. Etxeetako biztanleko kontsumoak aldiz gora egin zuen - Beheko auzoan soilik dago gas banaketa sarea
Elektrizitate kontsumoak:	
- Energia kontsumoak, orokorrean, %9,26an egin du behera 2000 eta 2004 bitartean. - Etxeetako biztanleekiko energia kontsumoak gora egin du (%11,88).	
Hondakinak	
- Tolosaldeko mankomunitatean biztanleko eta eguneko sortutako hiri hondakin kopuruak hamar urtetan %34ko gorakada jasan du 2000 urtetik zabortegira botatako hondakin kopurua nahiko iraunkor mantentzen bada ere, gaikako bilketaren gorakadak erakusten duenez, hondakin kopuru totalak %6ko gorakada izan du - Kontzientziazio falta dago hondakin bilketaren inguruan. Jasotzen diren egun eta orduak ez dira errespetatzen. - Informazio gehiago behar da ordutegi eta egunen inguruan (H.B.) - Tamaina handikoak hilean bitan jasotzen dira. Maizago jaso beharko lirateke (H.B.) - Birziklagarriak diren hiri-hondakinak (beira, papera eta ontziak) Tolosaldeko Mankomunitateak kudeatzen ditu. Baserrietan ez dago gaikako bilketarako ontzirik.	- Tolosaldeko Mankomunitateak kudeatzen du gaikako bilketaren zerbitzua - Hiri hondakin solidoen bilketa zerbitzua mankomunitatea aurreikusita dago 2006rako. Alboko bilketa sistema ezartzea aurreikusten da. (M.T.) - Gaikako bilketarako edukiontziak hirigunean soilik daude. - Hainbat kanpaina eta jarduera jarri dira martxan Mankomunitatea eta Udalaren eskutik, kontsumoa eta hondakinen inguruan. - Kontzientziazio falta dago gaikako bilketaren inguruan - Informazioa eskasia sumatzen da hondakinen bilketaren ordutegi eta egunen inguruan. - Bide ertzetan kontrolik gabeko isurpen puntuak agertzen dira noizbehinka

9. INGURUMEN BEKTOREAK	
LABURPENA	ONDORIOAK
Mankomunitateak eskainitako zerbitzuak: Gaikako bilketa eta Birziklatzea, Industri poligonoetako bilketak, Anoetako Garbigunea, Ekoizle txikien Hondakin Arriskutsuen kudeaketa, Hondakinen tratamendua, Ontzi arinen sailkatze planta, Ingurumen heziketa eta kontzientziazio kanpainak, Pilen bilketa komertzioetan, Dendetako kartoi bilketa Andoain, Ibarra, Tolosa eta Villabonan eta Konpostaia.	
Kontrolik gabeko isurpen puntuak Errepide ertzetan sortzen dira kontrolik gabeko isurpen puntuak (normalean inerteak dira (M.T.))	
AKUSTIKA	
EAE-ko Zaraten mapa (2000) Nolabaiteko inpaktu akustikoa duten industria-eremuak dituzten udalerrien artean Zizurkil aipatzen da.	Industria eta trafikoa dira zarata iturri nagusiak Zizurkilen. Udalak neurketak burutu eta neurri zuzentzaileak ezartzen ditu
Zizurkilgo zarata arazoa trafikoa edota industrialdearen ondoriozkoa da, eremuaren arabera. Neurri zuzentzaileak ezartzen ari dira. Zarata Mapa egitea aurreikusia zegoen baina oraingoz ez da egingo. Neurketak Udalak burutzen ditu. (M.T.)	

10. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA													
LABURPENA	ONDORIOAK												
Baso ustiapienak													
baso mozketak eta basoberritzeak													
1995-2005 artean 120,5 ha moztu dira (42,23 ha publiko eta 78,27 pribatu). Bolumen handiena intsinis pinuari dagokio. 1995-2004 artean basoberritzeak 93,51 ha-ri eragin die (22,568 publiko, 70,94ha pribatu). Intsinis pinua gehienbat.	Azken urteetan mozketa eta basoberritze gehienak baso pribatuan egin dira eta intsinis pinuari dagozkio gehienbat.												
01/01/1996 eta 31/12/2004 bitartean 3 sute egon ziren (1,60 ha). 538 euroko galera suposatu zuten.	1996-2004 epean 1,60 ha baso erre ziren Zizurkilen.												
Zertifikatutako baso ustiapienak: Zizurkilen zertifikatutako baso ustiapienak pribatuak dira. <table border="1"> <thead> <tr> <th>UDALERRIA</th><th>Ha kopurua</th></tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Zizurkil-Aduna</td><td>11</td></tr> <tr> <td>Asteasu-Zizurkil</td><td>21,8</td></tr> <tr> <td>Zizurkil</td><td>1,21</td></tr> <tr> <td>Asteasu-Zizurkil-Aduna</td><td>7,6</td></tr> <tr> <td>Zizurkil</td><td>2,8</td></tr> </tbody> </table>	UDALERRIA	Ha kopurua	Zizurkil-Aduna	11	Asteasu-Zizurkil	21,8	Zizurkil	1,21	Asteasu-Zizurkil-Aduna	7,6	Zizurkil	2,8	74,41 ha baso daude zertifikatuta Zizurkilen
UDALERRIA	Ha kopurua												
Zizurkil-Aduna	11												
Asteasu-Zizurkil	21,8												
Zizurkil	1,21												
Asteasu-Zizurkil-Aduna	7,6												
Zizurkil	2,8												
Nekazaritza eta abeltzaintza													
- Euskal Autonomi Erkidegoko Ingurumenaren Babeserako 3/98 Lege Orokorrak jasotakoaren arabera, Zizurkilgo udalerrian ondorengo jarduerak potentzialki kutsatzaile kontsideratzen dira: - Behi ustiapienak: Areta baserria, Arizmendi baserria, Azkarate baserria, Berastegi baserria, Burrusti baserria, Irazu baserria, Itzibar baserria, Ugarte baserria, Zaldu Goiena baserria, Ikuilua - Ardi ustiapienak: Andabarro baserria - Hegazti ustiapienak: Aramburu baserria, Lepasoro baserria	Zizurkilen 13 ustiapien potentzialki kutsatzaile daude Euskal Autonomi Erkidegoko Ingurumenaren Babeserako 3/98 Legearen arabera.												
Nekazaritza/abeltzaintza ekologikoko ustiatetik ez dago.	Ustiatetik ekologikorik ez dago												
Minden isurpenei dagokienean ere, azkenaldian kexa dextente egon da, batez ere Asteasun, baina isurpenak Zizurkiletik pasatzen den errekaetara egiten dira. Zizurkilen badago nahiko kontzientzia gaiaren inguruan eta zerbait egin beharra dago.	Minden isurpenen ondorioz kexa dextente egon da. Gaiaren inguruan zerbait egin beharra dago.												

10. JARDUERA EKONOMIKOEN ERAGINA	
LABURPENA	ONDORIOAK
Industria eta zerbitzuak	
		9.10	Reducir nuestro impacto en el medio ambiente global y promover el principio de justicia ambiental
		9.11	Fomentar la cooperación internacional de pueblos y ciudades y desarrollar respuestas locales a problemas globales, en asociación con gobiernos locales, comunidades y partes interesadas

I. ERANSKINA: LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK

LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK (LAA)

(28/1997 DEKRETUAK, otsailaren 11koa, behin betiko onetsia)

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak Euskal Herriko lurraldea antolatzeko tresnak definitu eta araupetzea du xede, horretarako lege honek hiru tresna sortzen dituelarik: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA), Lurraldearen Zatikako Planak (LZP) eta Lurraldearen Arloko Planak (LAP).

Lurraldearen antolamendurako Artezpideak (LAA) lurraldearen eta hiri antolaketarako gainerako tresnak gauzatzeko abiapuntu dira.

LAAetan adierazten denez, Eskualde Egitura, eta horietako bakoitzari dagozkion hiri nagusiak dira Autonomia Erkidegoaren testuinguru orokorrean lurralde oreka gordetzeko sor daitezkeen estrategiak aplikatzeko "pieza gakoak". Aztergai diren udalerriak (Albiztur, Alkiza, Bidegoian eta Larraul) Toloserriko Eskualde Egituraren baitan leudeke, Tolosa izanik Eskualde Egitura honen buru.

Landa eremua LAAetan

Landa eremuei dagokienez, LAAek ezinbestekotzako jotzen dute eremuon idiosinkrasia gordeko duen eta bertan enplegua sortu eta garapen iraunkorra bideratzeko baldintza egokiak sortuko dituen landa area hauek indartzeko estrategia artikulatzea. Hau lortzeko beharrezkotzat jotzen da Landa Garapenerako Politika Integrala abiaraztea ondoko helburuekin: populazioaren gainbehera gelditzea, ehundura ekonomikoa aniztea, balio natural eta ekologikoa indartzea, oinarritzko azpiegiturak-zerbitzuak-ekipamenduak hobetzea eta azken finean bertako biztanleen bizi kalitatea hobetzea.

Ingurune fisikoaren antolamendua

LAAek Interes Naturalistikoa duten Eremuen Zerrenda Irekia proposatzen du, non Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionez ondoko espazioak jasotzen diren:

- **Ernio-Gatzume** (Alkiza, Albiztur, Bidegoian, Errezil, Hernialde, Tolosa, Larraul eta Asteasu): Balio geologiko, faunistiko eta botanikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.
- Murumendi (Beasain, Itsasondo, Beizama eta Bidegoian): Balio botanikodun espazio gisa sailkatzen dute LAAek.
- Araxes ibaiaren harana, Jazkugañe eta Basabe
- **Atxulondo-Abalotz**

Ekonomia jardueretarako eremuak

Toloserriko eskualde egituran LAAek Adunako ibarra proposatzen dute lurralde ereduko industri jardueretarako eremu nagusi gisa.

Bigarren etxebizitza

LAAek lurzoru urbanizaezinean etxebizitzak etengabe eraikitzeke joera geldiaraztea eta eskari hau landa eremu jakin batzuetan bigarren egoitza (ordena zehatz batean) garatuz bideratzea proposatzen da. Honela, Toloserriko eskualde egiturari, Abaltzisketa, Albiztur, Amezketara eta Bidegoian oinarri endogenoa duen bigarren egoitza gisa proposatzen dira.

Atsedeen eremuen eta lurraldean sartzeko guneen sistema

LAAek Toloserriko Eskualde Egituran Murumendi, Aralar, Amasa Mendi-Belabieta, Gaztelu eta Pagoeta-Errio-Andatza proposatzen dituzte atsedeen eremu gisa, eta Albiztur, Bidegoian, Amezketara eta Abaltzisketa lurraldean sartzeko gune gisa.

Garraio eta komunikazio azpiegiturak

Tolosatik Nafarroarako autobiderako konexioa oinarritzat jotzen dute LAAek, Berastegin zehar. Bestalde, Azpeitia-Azkoitia eta Tolosa arteko konexioa, zeharkatzen duen ingurune naturalaren interesa dela eta, interes paisajistikodun ibilbide gisa sailkatzen dute.

Nazioarteko zabaleradun trenbide berria -"Euskal Y"- Lurralde Historikoetako hiru hiriburuak elkarrekin eta Autonomi Erkidegoa Iberiar Penintsularen gainerakoekin eta Europarekin konektatuko dituen ahalmen handiko trenbide-garraiabidetza jotzen dute LAAek. Euskal Y-aren eta Iruñea eta Zaragozaren arteko abiadura handiko trenbide-konexioa, 1993-2007 Azpiegituren Gida Planean aurreikusia, garrantzi handikotzat jotzen da Euskal Herria Ebro ibaiaren Ardatzean neurri handiagoan integratzeko.

Bestalde, Aldiriko Tren-Zerbitzuak hartzen dituzte LAAek iraganbide nagusietan zeharreko bidai bolumen handiak bideratzeko egokientzat. Hortaz, Aldiriko Zerbitzua sendotu egingo direla adierazten du oinarritzko ardatzetako tarteetan (besteak beste Legazpi-Zumarraga-Beasain-Tolosa-Andoain-Hernani-Donostia tarteak).

ETXEBIZITZEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP)

(AURRERAPEN fasean)

Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren bidez LAAen eta Lurraldearen Zatiko Planen proposamenekin bat etorrituz, etxebizitza babestua sustatzeko gordetako lurzoruak kokatu, banatu eta dimentsionatzeko irizpide nagusiak proposatzen dira.

Biztanleria eta etxebizitzaren eboluzioa

Eskualde Egiturako biztanleriak azken bi hamarkadetan etengabe egin du behera.

Hala ere biztanleriak izandako portaera ez da homogeneoa izan eskualde osoan; horrela, zenbait udalerritan, Villabona, Irura eta Anoeta, besteak beste, %2 eta %3 bitarteko hazkundeak izan dira, baina, Tolosa-Ibarra eta Alegian, berriz, batez bestekoaren antzeko galerak izan dira (-%4,7) eta udalerri txiki gehienetan biztanleriak %10 egin du behera.

Etxebizitzaren parkeak 2.068 unitate gehiago lortu ditu 1986-1996 aldian.

Fluxu demografikoen proiektzioa 1996-2008 eta 2008-2016 aldietarako

Toloserriko Eskualde Egitura	1996-2008 aldiko proiektzioa			2008-2016 aldiko proiektzioa		
	Jaiotzak	Heriotzak	Migrazioa	Jaiotzak	Heriotzak	Migrazioa
	4.405	5.512	-1.138	3.199	3.758	-397

Demografiaren proiektzioan etorkizunean izango dituen premiak aztertuz gero, berriz, 1996/2016 aldiko etxebizitza-premia 165 etxeb./urteko izango dela kalkulatu da LAPan.

Planaren proposamenak

Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean bizitegitarako eskaintza 4.600/5.100 etxebizitza artekoa izango da Planaren arabera. Bizitegitarako hazkunde intentsiboak Oria haranean (Villabona-Elbarrena, Irura-Anoeta, Tolosa-Ibarra eta Alegia herriguneetan) biltzea proposatzen da. Bestalde, alboetako haranetan dauden landa-udalerrietarako bertako eskariari erantzungo dioten eta gaur egungo herriguneek dituzten ezaugarriekin bat etorriko diren tipologiak dituzten hazkunde txikiak iradokitzen dira.

Villabona, Zizurkil, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra eta Alegia udalerriak babes publikoko etxebizitzetara bideratutako lurzoruen hirigintzako antolamendurako, sustapenerako

eta kudeaketarako lehentasunezko intereseko udalerriei dagokien kategorian sailkatuko dira.

Izaera erdi-hiritarra eta landatarra duten udalerrietan —Aduna, Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Belauntza, Berrobi, Elduain, Berastegi, Leaburu, Gaztelu, Altzo, Lizartza, Orexa, Albiztur, Bidegoyan, Amezketa, Baliarrain, Orendain, Abaltzisketa eta Ikaztegietan—, populatze barreiatua edo dentsitate txikia ezaugarri dituen asentamendu mota denez nagusi, lehendik dagoen parkea hobetzeko eta berreskuratzeko oinarrizko politika birgaitze isolatuaren bidez egingo dela aurreikusten da berriz Planean. Dena dela, ez dira baztertzen eskari antolatua oinarritzat duten aukerako jarduerak.

“Erabili gabeko” etxebizitza hutsei dagokienean, hauek erabiltzea da LAParen helburu estrategikoetako bat. Hori dela eta, helburu gisa proposatzen da planak irauten duen bitartean egun hutsik dauden 100 etxebizitza inguru alokairuen merkatuan jartzea Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil udalerrietan.

Plan honen baitako eraikuntza-helburuei jarraiki, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta berorri atxikitako sozietateek 410 bat etxebizitza babestu eraikiko dituzte. Planean barne hartu ez diren arren, bestelako eragileek beste 800 BOE eraikiko dituztela aurreikusten da, bestalde.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP)

(262/2004 DEKRETUak, abenduaren 21ekoa, behin betiko onetsia)

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAA) espresuki aurreikusten da Erakunde Publikoek Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Plana idaztea; dokumentu horretan honako zehaztapen hauek ezarri beharko direlarik, besteak beste:

- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko eragiketen kokapenen identifikazioa.
- Jarduera hauek lurraldearen gune jakin bakoitzean hartuko duen lurzoru-gainazalaren kuantifikazioa eta jarduketa bakoitzak bete beharko dituen ezaugarrien zehaztapena.
- Beharrezko inbertsioen programazioa eta proposatutako esku-hartze publikoen ikuspegia eta bideragarritasuna aditzera emango dituen azterlan ekonomikoa.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren problematika

Toloserriko eskualdeko lurzoru lau gehiena haranen hondoetan kokatzen den errenkada estua da eta dagoeneko hiri-garapenak hartu du.

Tolosako hirigune nagusiaren eta Villabona eta Alegiako hirigune txikien inguruan biltzen diren landa-izaerako udalerri txikiez osatutako eskualdea da. Duela gutxira arte industria eta bizitokiko garapena aipatutako hirigune horietara zuzendu izan da. Hala ere, Tolosa eta Villabonako udalerrietako espazioa ase ondoren, industria eta hirigintzako garapena eskualdeko gainerako udalerrietara zabaldu da.

Eskualde-egituran ez dago enpresa handirik, bertako industria-ehuna metal eraldatuen sektoreko eta papergintza sektoreko tamaina txikiko enpresek osatzen dute.

Azken hamarkadan eskualdearen Iparraldeak (Adunako ibarra, Zizurkil, Asteasu, Villabona, Irura) nolabaiteko industria-garapena izan du, Donostialdetik hurbil egoteak

eraginda, baina hegoaldean (Tolosa, Ibarra) industria-gainbehera handiko panorama antzeman daiteke, papergintza-sektorearen krisialdiaren ondorioz.

Eskualdearen industria-problematika nagusia, hortaz, Tolosako papergintza sektoreak eta industriak, oro har, duten birmoldatzeko premian datza. Tolosako udalerrian ez dago enpresak lekualdatu edota zabaltzeko industria-lurzorurik eta, horrenbestez, enpresak hurbileko udalerrietarantz jotzen ari dira. Hortaz, Toloserrin, enpresa hauek lekualdatzeko poligono berri bat sustatzeko beharra antzematen da.

Jarduera ekonomikoak garatzeko/sustatzeko lehentasunezko lurzorua

Lurraldearen Arloko Planak ekonomia-jardueren alorrean garrantzi kuantitatibo edo kualitatibo bereziko problematika duten esparruak edo euren kokapen estrategikoa dela eta etorkizunean ekonomia-hazkunde garrantzitsua izan dezaketen esparruak "**Lehentasunezko esparru**" gisa definitzen ditu. Eremu hauetan ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzorua antolatu, kudeatu, sustatu eta garatzeko lehentasunezko politikak garatea proposatzen du, aurriak kentzeko prozesuak bultzatu eta industria-ehun zaharkituak birmoldatzeko prozesuak bideratzea planteatuz. Toloserriko eskualde egiturari dagokionean N-1 errepidearen ardatza identifikatzen du LAPak lehentasunezko esparru gisa.

Jarduera ekonomikoko ezarpenak kokatzeko jarraibideak sistematizatzeko asmoz, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztiak hiru kategoriatan sailkatzen dira LAPan. Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean:

- **Lehentasunezko intereseak:** Aduna, Alegia, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.
- **Hazkunde motelekoak:** Altzo, Amezketa, Belauntza, Lizartza.
- **Garapen txikikoak:** Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Gaztelu, Orendain eta Orexa.

Bestalde, LAPak, industria-ehunaren birmoldaketaren edo komunikabideekiko kokapen eszentrikoaren ondorioz gainbehera ekonomikoan edota demografikoan dauden zonetan ekintza dinamizatzaile eta sustatzaileak programatzeko komenigarritasuna aipatzen du. Eremuotan ekonomia-jarduera berriak ezartzeko hiru motatako edo mailatako sustapen-eragiketak proposatzen ditu:

- Ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko sustapena. Toloserriko eskualde-egiturari Tolosa-Ibarrako zona talde honen baitan legoke.
- Industria-enpleguan defizita duten eskualde-buruak dinamizatzeko sustapena.
- Landa-inguruetan industria-jarduera bultzatzeko sustapena.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru baliabideak

Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean:

	Jarduera ekonomikoetarako lurzorua (Ha.)		
	Okupatua	Librea	Guztira
Abaltzisketa	--	--	--
Aduna	26,31	2,03	28,34
Albiztur	2,42	--	2,42
Alegia	5,65	4	9,65
Alkiza	--	--	--
Altzo	3,77	--	3,77
Amezketeta	4,27	0,9	5,17
Anoeta	9,02	2,4	11,42
Asteasu	14,4	8,3	22,7
Baliarrain	--	--	--
Belauntza	15,85	1,8	17,65
Berastegi	1,83	3,75	5,58
Berrobi	2,73	--	2,73
Bidegoian	3,31	1	4,31
Elduain	2,7	--	2,7
Gaztelu	0,15	0,5	0,65
Hernialde	--	--	--

Ibarra	1,16	36,06	37,22
Ikaztegieta	4,37	1,73	6,1
Irura	13,71	4,11	17,82
Larraul	--	--	--
Leaburu	1,16	6,41	7,57
Lizartza	3,44	4,2	7,64
Orendain	--	--	--
Orexa	--	--	--
Tolosa	39,68	21,81	61,49
Villabona	14,4	6,7	21,1
Zizurkil	18,19	5,33	23,52
Toloserriko eskualde egitura	188,52	111,03	299,55

Lurzoru okupatutzat dagoeneko industria-jarduerak dituzten lurzoruak eta jarduera berriak ezartzeko jadanik hitzemandako eremuak daude.

Bestalde, lurzoru libre kalifikatutzat hartutako 111 hektareak ez dira lurzoru eskaintza erreala, lurzoru-azalera hau eremu txikien baturari dagokio eta tamaina handi samarreko eremuen kasuan beren hirigintza-garapena oztopatzen duen arazoren bat azaltzen da.

Gaur egun Toloserriko eskualde-egiturak ez du industria-lurzoru erabilgarriko eskaintza errealik eta horren lekuko dugu oraindik ere Tolosako Industrialderako kokapen egokirik aurkitu ez izana.

Epe laburrean, bi dira industria-lurzoru berria sortzeko aukerarik bideragarrienak:

- Apattako Eskualde Mailako Poligonoa (Ibarra, Leaburu, Tolosa) eraikitzea. Bertan 50 Ha. birkalifika daitezke. SPRILUR (Eusko Jaurlaritzako Industria Saila), Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalek sustatutako ekimen publikoko eskualde-poligonoa.
- Adunako ibarreko lurzoru libreak garatzea. Bertan 20/25 Ha. birkalifika daitezke. Adunako ibarrean industrialde bat ezar daiteke, Andoain-

Villabonako eragin-eremuan, eta garraioaren zerbitzurako poligono bat antolatu N-1 errepideari eta Nafarroako autobiarri zuzenean lotuta.

Epe ertainean, berriz, hautabidezko beste kokalekuren bat aurkitzeko bideragarritasunari buruzko azterlanak egiteko beharra -Tolosaldea mailako industrialdea, 15/25 Ha.- planteatzen du LAPak.

Saltoki handiak

Merkataritza-ekipamendu handien kokapena eta dimentsionamendua arautzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien sailkapen bat ezartzen da, Merkataritza-ekipamendu berrien gehienezko dimentsionamendua kasuan-kasuan kokatzen den udalerriaren arabera araututa geratzen delarik:

- **A kategoria:** Zentraltasun handieneko udalerriak
Saltoki berrien gehienezko dimentsionamendua:
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 75.000 m².
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 25.000 m²
- **B kategoria:** Eskualde-zentraltasuneko udalerriak
Saltoki berrien gehienezko dimentsionamendua:
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 40.000 m²
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 13.000 m²
- **C kategoria:** Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerriak.
Udalerri hauetan ez da aurreikusten merkataritza ekipamendu handirik ezartzea.
Saltoki berrien gehienezko dimentsionamendua:
 - Plataforma zelaituaren gehienezko azalera garbia: 15.000 m².
 - Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 5.000 m²

Toloserriko eskualde-egituran, Aduna, Anoeta, Ibarra, Irura, Tolosa eta Billabona “**B kategoria**”ren baitan ageri dira. Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ikaztegieta, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa eta Zizurkil, berriz, “**C kategoria**”ren baitan ageri dira.

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA BASOGINTZA ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP)

(Hasierako onespun dokumentua)

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plan honek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako irizpideak garatzen eta zehazten ditu -“Ingurune Fisikoaren Elementu eta Prozesuei buruzko Artezpide Orokorrak” eta “Ingurumen Fisikoa Antolatzeko Kategoriak” izeneko Epigrafeetakoak hain zuzen ere-.

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak **Lur Ez Urbanizagarrietako nekazaritza eta basogintza erabilerak** arautzen ditu bereziki. Babestutako Natur Guneak eta Udal Planeamenduan urbano edo urbanizagarri gisa kalifikatutako eremuak LAP koen Antolamendu eremutik at geratzen dira.

LAP honen helburu nagusienak honakoak dira:

- Egungo landa egoera zehaztu: nekazaritza-jarduerak, ustiategi produktiboenak, uzte-arrisku handiena dutenak...hartzen dituzten eremuen ezagutza sustatu.
- Antolamendua landa irizpideetatik planteatuko duen lurralde eredua sortu.
- Leku berean nekazaritza-erabilerekin ustez konbergenteak diren nekazaritzatik kanpoko erabileren aurrean sektorearen defentsa suposatuko duten erreminta juridiko eta Jarduera Tresnak planteatzea.
- Landa eta Basogintzarako Plan Estrategiko, Lurraldea Antolatzeko Artezpide eta abarretan bildutako lurraldea antolatzeko eta planifikatzeko artezpide eta irizpideak biltzea.
- Udalerriek onartutako Arau Subsidiarioetako lurra kalifikatzeko irizpide eta kontzeptuak bateratzea, LAPean Lur Urbanizaezinen sailkatze osoa eginez.
- Nekazaritzaren kontserbazioa ingurumenarekin bateratu, administrazio-tresna komunak edo osagarriak zehaztuz (arloaren afekzioa aztertze protokoloa).
- Arloko legeriaren aplikazioa erraztu, dauden arloko politika eta arau guztiak txosten bakar batetik koordinatuz.
- LAP honetako emaitzen hedapena segurtatu, lurraldea kudeatzeko eta antolatzeko bestelako txostenetan kontuan har dadin.

Kartografia

Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPa Hasieran Onesteko txostenak, 1:25.000 eskalako Antolamendu Mapen Kartografia eransten du.

Kartografia egiteko jarraitu diren irizpideak (Antolamendu Kategoriak) ondokoak dira:

Nekazaritza-abeltzaintza eta Landazabal Kategoria: Kategoria hau haranen behe aldeetan kokatzen da. Egun sega-belarditarako eta mota guztietako laboreetarako erabiltzen diren eremuak hartzen ditu. Halaber, honelako erabilerek inguratutako baso-unadak, baso-orban handietatik berezitutakoak eta unitate propioa osatzeko beste azalera ez dutenak, kategoria honetan sartzen dira.

Balio Estrategiko Handia: eremu hauek produktibitate-ereduen eta lurraldearen ezagutza enpirikoaren arabera definitzen dira.

Trantsizioko Landa Eremua: egun landutako gainerako eremuak, edo isurialde kantaurrean ohikoak diren baso-unadak dituzten larredun landazabalak, aurreko kategorian sartu gabekoak.

Baso Kategoria: kategoria honetan, egun zuhaitzez estalirik dauden eremu guztiak bilduko lirateke.

Baso-Mendi Meatsa Kategoria: Egun sastrakadiz estalita dauden eremuak, abeltzaintza-erabilera garrantzitsurik ez dutenak, maldan kokaturik daudenak, baso-unadaz inguraturik daudenak eta erosio-fenomenoen aztarnarik ez dutenak sartzen dira. Halaber, mendi-hegalen behe aldean edo soro artean dauden luberriak, sastrakadi edota larrez osatutakoak, biltzen ditu.

Larre menditarrak Kategoria: Azpikategoria honetan sartzen dira, altuera handieneko mendietako larre menditarrak, aprobetxamendu tradizionala eta transterminante motako transhumantzia kulturari lotutakoak.

Larre Menditarra-Haitzak Kategoria: Arroka agerian duten eremuak eta horma arroksuak, mendi-hegaletan eta gailurretan aurki daitezkeenak.

Ingurumen Hobekuntza Kategoria: Eremu hauetarako irizpide orokorra egungo egoera ekologikoki bilakatuagoak diren egoeretara birbideratuz, ingurumen baldintzen hobekuntza lortzea denez, egungo erabileraren eta natur baliabidearen kontserbazioaren artean arazoak dituzten eremuak sartzen dira bertan (higadura-aztarnak agertzen dira, esaterako). Azken 10 urtetan erabilera definiturik izan ez duten eremuak, eta EAEko mendietako goi eremuetan, nahiz balio ekologiko handiko eremuen inguruetan kokaturik egoteagatik, ekosistema potentziala birgaitzeko bokazioa dutenak ere sartu dira. Kategoria honetan sartzen dira, halaber, utzita edo martxan dauden harrobiz eta zabortegez beteriko eremuak.

Azaleko Uren Babes Kategoria: Kategoria honek EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze LAPI aholkatutako erretiro-mugak bereganatuko ditu.

Nekaz.-Abelz. eta Landazab | Balio Estrat. Handia
Trantsizioko Landa Paisaia

Mendi | Baso
Mendi Meats
Larre Menditar
Haitzak
Ingurum. Hobekuntza
Azaleko Uren Kontseibazioa

ADUNA	Azalera (m2)
Basoa-Mendi Urria	
Basoa	4523971,8786
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	385016,6236
Ingurumen Hobekuntza	34554,9688
Larre Menditarra-Harkaitzak	
Larre Menditarra	
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	412294,9407
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	1613203,8459

ANOETA	Azalera (m2)
Basoa-Mendi Urria	
Basoa	2019573,0737
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	294941,8047
Ingurumen Hobekuntza	
Larre Menditarra-Harkaitzak	
Larre Menditarra	
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	359695,8900
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	1568641,5307

ASTEASU	Azalera (m2)
Basoa-Mendi Urria	1112490,9760
Basoa	6801827,5035
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	493786,2850
Ingurumen Hobekuntza	
Larre Menditarra-Harkaitzak	
Larre Menditarra	130217,7533
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	2268192,9408
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	6182496,7007

HERNIALDE	Azalera (m2)
Basoa-Mendi Urria	356035,9428
Basoa	1478663,5571
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	58402,9275
Ingurumen Hobekuntza	
Larre Menditarra-Harkaitzak	
Larre Menditarra	236718,4251
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	22499,7158
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	1906396,6732

IRURA	Azalera (m2)
Basoa-Mendi Urria	19669,1121
Basoa	2089160,7034
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	413984,7087
Ingurumen Hobekuntza	
Larre Menditarra-Harkaitzak	
Larre Menditarra	
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	30282,3530
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	288023,1889

VILLABONA	Azalera (m2)
Basoa-Mendi Urria	660368,4790
Basoa	11634057,8489
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	746250,7546
Ingurumen Hobekuntza	
Larre Menditarra-Harkaitzak	
Larre Menditarra	
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	873529,9969
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	3569375,6226

ZIZURKIL	Azalera (m2)
Basoa-Mendi Urria	985795,0539
Basoa	8716872,2197
Etxe-lurra; industrial; ekipamendua eta azpiegiturak	539743,6127
Ingurumen Hobekuntza	
Larre Menditarra-Harkaitzak	
Larre Menditarra	
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua	1499234,8770
Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia	3522238,7764

EAEko IBAIEN ETA ERREKEN ERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANA (LAP). ISURIALDE KANTAUARIARRA.

(415/1998 DEKRETUak, abenduaren 22koa, bidez, behin betiko onetsia).

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen irizpideak garatzen eta xehetasunez azaltzen ditu.

LAParen idazketan buru izan diren irizpide orokorrak ondokoak dira:

- Uren kalitatea artatzea edo/eta berreskuratzea
- Gutxiengo emari ekologikoari eustea.
- Ibaien eta erreken ubideen okupazioa ekiditea.
- Uholdeetatik eta arrisku naturaletatik eratorritako kalteak minimizatzea.
- Ingurugiro-interes berezia duten ubide-zatien ezaugarriak artatzea.
- Kultur ondarearen elementuak zaintzea.
- Ibaietako ubideak hiri-garapenerako zonetan integratzea.

LAPak ibaiertzak eta erreka-ertzak ondoren adierazten den bezala banatzen ditu zonatan edota ibaitartetan:

- Ertzak zonatan banatzea ingurugiro osagaiaren arabera.
 - a) Lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzak.
 - b) Ondo artatutako landaredia duten ertzak.
 - c) Higadura eta lerradura arriskua edota akuiferoen urrakortasuna dituzten zonetako ertzak (LAAetako baldintzatzaile gainjarriak).
 - d) Berreskuratzeko premia duten ertzak.
- Ibaibideak ibaitarteetan banatzea beren arro hidraulikoen arabera.
- Ertzak zonatan banatzea beren hirigintza osagaiaren arabera.
 - a) Landa eremuko ertzak
 - b) Hiriarteko komunikazioetarako azpiegiturek betetzen dituzten ertzak.
 - c) Garatutako eremuetako ertzak.
 - d) Hirigintza garapen berriak egiteko potentziala duten eremuak.

ORIA IBAIAREN ARROA

Aztergai ditugun hiru udalerriak Oria ibaiaren arroan kokatzen dira.

Oria ibaiaren arroak 889 Km²-ko guztizko azalera du. Bere adar nagusiak eta horien azpiarroak honako hauek dira:

a) Eskuinaldeko ertzean:

- Leizaran (122 Km²)
- Zelai (34 Km²)
- Araxes (106 Km²)
- Basabe (12 Km²)
- Amezketa (60 Km²)
- Bedaio (17 Km²)
- Ibiur (12 Km²)
- Amundarain (40 Km²)
- Urtxubi (14 Km²)
- Agauntza (84 Km²)
- Ursuaran (20 Km²)

b) Ezkerraldeko ertzean:

- Artxodi (12 Km²)
- Santio (27 Km²)
- Asteasu (29 Km²): Alkiza eta Larraul azpi-arro honen baitan daude.
- Albiztur (28 Km²): Albiztur eta Bidegoian azpi-arro honen baitan daude.
- Berostegi (11 Km²)
- Estanda (55 Km²)
- Mutiloa (16 Km²)

Aztergai ditugun udalerrietan jarraian adierazten den bezala sailkatzen ditu LAPak Oria ibaiaren arroko ibaiertzak:

Ingurugiro osagaiaren arabera:

Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Hernialde, Villabona eta Zizurkilen, akuiferoen zaugarritasun maila altua edo oso altua duten eremuak aurkitzen dira eta baita landaretza egoera onean duten ertzak ere.

Asteasu eta Hernialden, Ernio-Gatzume espazioaren barnetik igarotzen da Oria ibaiaren adarraren tramu bat, eta hortaz, bertako ibaiertzak lehentasunezko interes naturalistiko guneen ertz izendatzen ditu LAPak. Ernio-Gatzume espazioaren kanpotik gelditzen den tramua gehiengoak landaretza egoera onean ditu ertzak.

Villabonan bestalde, Orian ibaia gora birjaso beharreko ertzak daude.

Hirigintza osagaiaren arabera:

Adunan, landa-eremuko ertzak eta eremu garatuetan dauden ertzak identifikatzen ditu LAPak Oria ibaiaren adarrean

Anoetan, Oria ibaiari dagokionez, eremu garatuetan dauden ertzak eta hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak identifikatzen ditu LAPak. Bestalde, Oria ibaiaren adarrari dagokionez, landa-eremuko ertzak izendatzen ditu.

Asteasun, Asteasu azpiarroari dagokionez, eremu garatuetan dauden ertzak, hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak eta hirigintza garapen berriak izan ditzaketen ertzak identifikatzen ditu LAPak hirigunean. Hemendik kanpo, landa-eremukoak aurkitzen dira.

Iruran, hirigunean eta Oria ibaiari dagokionez, eremu garatuetan dauden ertzak eta hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak identifikatzen ditu LAPak. Bestalde, Oria ibaiaren adarrean, landa-eremuko ertzak izendatzen ditu.

Hernialden landa eremuko ertzak bakarrik izendatzen dira LAPean.

Villabonan, Oria ibaiari dagokionez, hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak, eremu garatuetan daudenak eta hirigintza garapen berriak izan dituztenak bereizten ditu LAPak. Oria ibaiaren adarrari dagokionez, berriz, landa-eremuko ertzak identifikatzen ditu, hauek hirigunetik kanpo gelditzen direlarik.

Zizurkilgo behealdean, Oria ibaiari dagokionez, hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak eta eremu garatueta daudenak bereizten ditu LAPak. **Zizurkilgo** goialdean aldiz, Oria ibaiaren adarrean, landa-eremuko ertzak identifikatzen ditu LAPak.

Bestalde, Oria ibaiaren arroan kultur interesa duen zubi bat aurkitzen da, Zubimusu zubia, Oria ibaiaren gainekoa (Villabona-Zizurkilen). Santiago bideko monumentu-multzo gisa kalifikatuta dago.

Araudi espezifikoak:

Aipaturiko ertz mota ezberdinon araudi espezifikoak ondokoak da:

Lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertzak: Area hauetan debekatuta daude ingurunearen alterazioa dakarten eragiketak.

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena	Jolas jarduerak	Nekazaritza industriak
Ingurugiroaren hobekuntza	Ehiza, arrantza	Erauzketa jarduerak
	Nekazaritza, negutegiak	Uraren ziklo integralarekin erlaziorik ez duten instalazio teknikoak
	Abeltzaintza	
	Basogintza	Zabortegiak
	Garraiobideak	Egoitza erabilera isolatua
	Argindar lineak, uraren ziklo integralarekin erlazionatutako instalazio teknikoak	Instalazio arriskutsuak
	Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak	
	Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua	

Landaretza egoera onean duten ertzak: Ertz hauetan dagoen landaredia zaindu egin nahi da.

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena Ingurugiroaren hobekuntza	Jolas jarduerak	Nekazaritza industriak, arrain haztegiak izan ezik
	Ehiza, arrantza	
	Nekazaritza, negutegiak	Zabortegiak (3 Km ² baino gutxiagoko adar arrodun erreketan izan ezik)
	Abeltzaintza	
	Basogintza	Egoitza erabilera isolatua
	Garraiobideak	Instalazio arriskutsuak
	Erauzketa jarduerak	
	Argindar lineak, instalazio teknikoak	
	Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak	
	Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua	
	Zuhaitz eta zuhaixken mozketa berariazko arloko araudiak aurreikusitako erregimenaren menpekoa izango da	

Akuiferoen zaurgarritasuneko zonetako ertzak:

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena	Jolas jarduerak	Nekazaritza industriak, arrain haztegiak izan ezik
Ingurugiroaren hobekuntza	Ehiza, arrantza	Zabortegiak
	Nekazaritza, negutegiak	Egoitza erabilera isolatua
	Abeltzaintza	Instalazio arriskutsuak
	Basogintza	Lurpeko akuiferoak poluitzen dituzten isurkinak
	Garraiobideak	
	Erauzketa jarduerak	
	Argindar lineak, instalazio teknikoak	
	Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak	
	Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua	

Berreskuratzeko premia duten ertzak:

Erabilera bultzatuak	Erabilera onargarriak	Erabilera debekatuak
Artapena	Jolas jarduerak	Nekazaritza industriak, arrain haztegiak izan ezik
Ingurugiroaren hobekuntza	Ehiza, arrantza	Zabortegeiak (3 Km ² baino gutxiagoko adar arrodun erreketan izan ezik)
	Nekazaritza, negutegiak	Egoitza erabilera isolatua
	Abeltzaintza	Instalazio arriskutsuak
	Basogintza	
	Garraiobideak	
	Erauzketa jarduerak	
	Argindar lineak, instalazio teknikoak	
	Erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak	
	Nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua	

Landa eremuko ertzak: Ubidearen bi aldeetako 100 metroko zabalerako bandan lurzoru urbanizaezinak berezko dituen eraikuntzak, jarduerak eta lurzoruaren erabilerak bakarrik ahalbidetuko dira. Ez da trazaduraren alteraziorik, estaldurarik edo errektifikazio artifizialik egingo (uholdeak prebenitzeko edo obra publikoak eraikitzeak eskuartzeak izan ezik).

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO TRENBIDE SAREAREN LURRALDE ARLOKO PLANA (LAP)

(41/2001 DEKRETUAK, otsailaren 27koa, behin betiko onetsia)

Lurralde Arloko Plan honetan agertzen den planteamendu estrategikoa errepideko pilaketan areagotzea dela eta sortuko diren ondorioen aurrean trenbidearen aukera etorkizuneko nahitaezko baliabidea izatean oinarritzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralderen Antolamendurako Artezpideetan (LAA) jasotzen denaren egokitasuna baieztatuz Euskal Autonomi Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurralde Arloko Planak (LAP) hainbat motatako jarduketak biltzen ditu Trenbide Sare Berria eta Lehenagotik Dagoen Trenbide Sareari dagokionean.

Jarraian Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean LAP honetan jasotzen diren jarduketa nagusiak adierazten dira:

1. Trenbide Sare Berria

Nazioarteko zabalera duen (UIC) Ibilbide Luzeko Trenbide Sare Berria ("Euskal Y"):

Europako sarearekin lotuko litzatekeen nazioarteko zabaleradun (UIC) Trenbide Sare Berria da LAP honek egiten duen proposamen nagusia. Sare berri hau bidaiariak zein salgaiak garraiatzeko diseinatuta dago.

Trenbide sare honetako Gasteiz-Irun Lineak Toloserriko Eskualde Egitura hegomendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatuko luke, Beasain eta Tolosa artean Ebroko Lotura koka litekeelarik (alternatiba ezberdinak).

Ezkio-Itsason Goierri eta Toloserriko Eskualde Egiturretako bidaiarientzako geltokia koka liteke.

Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean trenbide honek Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Andoain zeharkatuko lituzke.

Inguru honetan jatorrizko trazadurak aldaera bat jasan du aurkeztutako bi alegazio kontutan izanik -bata Aduna eta Zizurkilgo Udalek aurkeztua eta bestea Andoaingoak-. Alegazio hauen bidez trazadura ipar-mendebalderantz eramatea proposatu zen, trenbidea Adunako hirigunetik aldenduz eta Oria ibaiaren eta N-I errepidearen gaineko bidezubiaren kokapen egokiagoa bilatuz (hala, hirigunean ikus inpaktu txikiagoa izan dezan).

2. Lehenagotik Dagoen Trenbide Sarea

LAPak Aldirikoen Sarea oso garrantzitsutzat jotzen du, EAEko Eskualde Egiturak lotzeko korridoreetan bidaia kopuru handiak bideratzeko egokiena dela adierazten delarik.

Lehenagotik dauden azpiegitura eta instalazioak berritu eta behar diren zabalkuntzak eta hobekuntzak sustatuz, trenbide zerbitzu egokia lortzea finkatzen dira helburutzat.

Honela, gaur egun eskaintzen diren zerbitzu lineetan oinarritutako aldiriko korridoreak proposatzen dira LAPan. Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean Donostia-Zumarraga Korridorea (B2.) proposatzen da: Zabalera iberiarreko sarearen bitartez, Goierri eta Donostiako Eskualde Egiturak lotzen dituen korridorea.

Helburu gisa korridoreetako tartea indartzea proposatzen da. Ibilbide luzeko zerbitzua beste korridore desberdin batetik egiteak aldiriko zerbitzuak maiztasun handiko garraiobide bilakatu eta kalitatea erraz hobetzea ahalbidetuko duela adierazten da.

EAEKO ENERGIA EOLIKOA ANTOLATZEKO LURRALDE ARLOKO PLANA (LAP) (104/2002 DEKRETUAK, maiatzaren 24koa, behin betiko onetsia)

EAEko Energia Eolika Antolatzeke Lurralde Arloko Planaren helburua parke eolikoak eraikitzeke lekuri egokienak aukeratzea da, beti ere lurralde mailako eragin nabarmena izan dezaketen parke eolikoei dagokienean. Honela LAP honek 8 haize-errotak baino gehiago eta 10 Mw baino gehiagoko potentziadun parke eolikoengan du eragina.

Bideragarriak izan daitezkeen kokalekuak

Parke eolikoak eraikitzeke bideragarriak izan daitezkeen kokalekuen artean, Toloserriko Eskualde Egituraren baitan Gatzume, Ernio eta Mandoegi aurkitzen dira.

	Batez abiadura (m/s)	besteko Luzera (Km)	Haize- errotak	Potentzia (MW)	Produkzioa (GWh/año)
Gatzume	6,8	1,7	17	11,2	28,0
Ernio	6,5	4,0	31	20,5	47,0
Mandoegi	6,3	12,6	105	69,3	150,5
Aralar	7,3	7,6	59	38,9	108,6

Bideragarriak izan daitezkeen kokalekuok identifikatzeko haize baldintzak eta lerrokaduraren luzera bakarrik izan dira kontutan.

Aukeratutako kokalekuak

Kokaleku bakoitzeko baldintza teknikoak eta ingurumenekoak kontutan izanik zenbait kokaleku baztertu egin dira. Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean baztertu diren kokalekuak Ernio eta Aralar izan dira jarraian adierazten diren arrazoiarengatik:

- **Ernio:** Harkaitzezko gailurra du, zatirik handienez lanak burutzea ezinezkoa izango litzatekeelarik. Bideragarritasun ekonomiko ezagatik baztertzen da, beraz, kokaleku hau.
- **Aralar:** Babestutako Naturgunea da, bertan parke eolika ezartzeak eragin kritikoa izango lukeelarik. Bestalde, lanak burutzea ezinezkoa egiten duten zenbait gunek malkartsu eta harkaitzezko daude bertan. Beraz, bideragarritasun ekonomiko ezagatik eta naturgune babestuen gaineko eraginagatik baztertzen da kokaleku hau.

	Batez abiadura (m/s)	besteko Luzera (Km)	Haize- errotak	Potentzia (MW)	Produkzio (GWh/año)	garbia
Gatzume	6,8	1,7	17	11,2	28,0	
Mandoegi	6,3	12,6	105	69,3	150,5	

Aukeratutako kokalekuak bi taldetan sailkatzen ditu LAP honek:

- **I Taldea:** Parke eolikoak, ahal bada, talde honetan kokatutako kokalekuetan ezarriko dira. Tolosaldeako Eskualde Egiturari dagokionean talde honen baitan Mandoegi kokatuko litzateke.
- **II Taldea:** Parke eolikoak, ahal bada, ez dira talde honetan kokatutako kokalekuetan ezarriko –talde honetako kokaleku batzuetan bakarrik ezarriko dira parke eolikoak-. Tolosaldeako Eskualde Egiturari dagokionean talde honen baitan Gatzume kokatuko litzateke.

II.ERANSKINA: BILEREN AKTAK

a) Bileren aktak

UDALTALDE 21 ERNIOALDEA
ZIZURKILGO MAHAI TEKNIKOAK: PLANEAMENDUA, INGURUNE
NATURALA, MUGIKORTASUNA, INGURUMEN BEKTOREAK,

PARTAIDEAK	ERAKUNDEA / TALDEA
Angel Manuel	ANSA
Sagrario Jauregiberri	Zinegotzia (Administrazioa, Pertsonala)
Marian Lazkano	Alkatesa
Idoia Lazkano	Zinegotzia (Ingurumena eta nekazaritza)
Iratí Galarza	Aparejadorea
Egoitz Sorozabal	Zinegotzia (Hirigintza)
Ainhoa Azpeitia	Teknikaria
Aitor Lopez	Zinegotzia
Juncal Fernandez	Haizea Ikerketa SL. Consultora
Ainhoa Zubilaga	Haizea Ikerketa SL. Consultora

DATA	2005eko azaroak 7			
LEKUA	Zizurkilgo Udala			
ORDUA	HASI	10:15	BUKATU	12:30

Bilera hasieran Aholkularitzako ordezkariak etorritakoei eskerrak ematen dizkie eta laburki proiektuaren egoera eta bileraren helburua azaltzen ditu.

HELBURUA /OBJETIVO

- Jasotako datuak balidatu eta zuzentzea eta ekarpenak jasotzea

IRISMENA/ ALCANCE:

- Planeamendua /Planeamiento
- Inguru naturala/ Medio Natural
- Mugikortasuna / Movilidad
- Ingurumen bektoreak (ura, energia, hondakinak, atmosfera)

METODOLOGÍA/ METODOLOGÍA:

Jasotako datuen irakurketa eta eztabaida.

LABURPENA:**PLANEAMENDUA****DATUAK**

- Indarrean dauden AASS-ak 1997koak dira. Egun berrikuspen lanetan dihardu udalak.
- AASSen berrikuspen Diagnostikoaren arabera lurzoruaren sailkapena ondokoa da egun:

LURZORU URBANIZATUA:

Egoitzarako lurzoria	Industriarako lurzoria
183.338 m ²	223.864 m ²

ESPAZIO LIBREAK ETA ZONA BERDEAK

	Zizurkil goikoa	Elbarrena erdia
Urbanizatua	2479,08m ²	12.616,24m ²
Gutxi urbanizatua	-	2.155,14m ²
Urbanizatu gabe	-	5.591,72m ²

- **LURZORU EZ URBANIZAGARRIA:** 14.950.000m².

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK:

- Ez dago iruzkinik.

HIRI KALITATEA**DATUAK**

Ez dago ez datu ez iruzkinik.

INGURUNE NATURALA**DATUAK**

- Ibaiak:
 - Uraren kalitate fisiko-kimikoa: Udaltaldearen eremuan Iruratik aurrera eta bokaleraino jatorri organikoko kutsadura nabarmen handiagotzen da, eta ondorioz, ez da egokia arrainak bertan bizitzeko.
 - Uraren kalitate biologikoa: Ordiziatik aurrera jaitsi egiten da eta eskasa da bokaleraino, behin eta berriz egiten diren isurketen ondorioz; egoerak hoberantz egitea espero da saneamendu-lanek aurrera egin ahala.

Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planak diotenaren arabera, **Zizurkilen**, akuiferoen zaurgarritasun maila altua edo oso altua duten eremuak aurkitzen dira eta baita landaredia egoera onean duten ertzak ere.

- Landaredia: Egungo landarediaren gehiengoa baso landatu eta belardi eta labore lur atlantikoak osatzen dute.
- Fauna: Bereziki azpimarra daiteke Atxulondo-Abaloz-en ur ipurtatsa eta lepahoriaren agerpena

- Babestutako naturgune eta elementuak: Atxulondo- Abaloiz. Euskal Autonomi Erkidegoko Espazio Naturalen Katalogo Irekian barne agertzen da (1992).
 - AASS-en berrikuspenean ondorengoak aipatzen dira:
 - Interes naturalistikoa duten guneak: ATXULONDO-ABALOI
 - Interes paisajistikoa duten guneak: EZKATZU
 - Interes geologikoa duten guneak: ZARATEKO GANTXON DAGOEN TOLES DURA

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK:

- Ez dago

MUGIKORTASUNA**DATUAK**

- Udalerriko egungo errepide sarea eta zirkulazio intentsitatea:
 - GI-2.631: Zizurkil Asteasu eta Villabonarekin lotzen du. Zirkulazio-intentsitateak gora egin du orokorrean 1992 eta 2003 bitarte
 - GI-3.281 eta GI-3.282 errepideek Zizurkil Goikoa eta Bekoa lotzen dituzte. GI-3.281errepideari buruzko intentsitatearen informaziorik ez da lortu. GI-3.282ko kasuan, eguneko batez besteko ibilgailu-intentsitatea egonkor mantendu da 1999 eta 2003 bitartean
 - GI-3.610 Zizurkil, Aduna eta Andoain lotzen ditu. Sorabillan (Andoain) N-1-rekin eta Zizurkilaren GI-2.631-rekin eta GI-3.282arekin bat egiten du.

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK

Zirkulazio karga altua dago eta hau dela eta sistema alternatiboa bilatu beharra beharrezkotzat jotzen da. Zizurkil eta Asteasu artean kokatutako industrialdeen ondoriozkoa da nagusiki. Etorkizuneko Zizurkil-Asteasu arteko saihasbideak trafiko intentsitatea murriztea ahalbidetuko luke.

Zizurkil Goikoa-Behekoa loturak: trafiko intentsitateak gorakada jasan du. Ez dago oinezkoentzako loturarik eta geroz eta auto gehiago ibiltzeak oinezkoen mugikortasuna zailagotzen du.

DATUAK

- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lehentasuneko Sareko, Oinarrizko Sareko eta Eskualdearteko Sareko hainbat errepidetan seinale horizontalak berritzeko proiektua dauka. Besteak beste, Zizurkiletik pasatzen den GI-2631 errepidearenak
- Mugikortasunaren arrazoiak: Zizurkilaren soilik 10 langiletik 3k egiten dute herrian lan. Ikasketekin erlazioatutako mugikortasunari dagokionean, %90-ak baino gehiagok atera behar du herrikan kanpo.
- Ibilgailuak:

	1996	1997	2001	2002	2005
Ibilgailu kopurua	1.285	1.355	1.649	1.682	1.730

Biztanleko ibilgailu kopurua handituz doa. 2005ean, 0,6ibilgailu/biztanleko dago.

- Aparkalekuak: gaur egun 881 aparkaleku daude (238 estaliak, 643 kalean. Hauetatik 400 seinaleztatuak.) hiru ibilgailuko bi aparkaleku

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK

Aparkaleku gabezia dago batez ere Zizurkil Behean. Aparkaleku falta baino gehiago kontzientziazio falta da askotan (etxe aurrean aparkatu nahi dugu guztiok).

DATUAK

- Garraio publikoa:
 - Tolosaldea-bus: Villabona eta Adunarekin lotura. Astelehenetik larunbatera, 3 zerbitzu: 9:15, 10:35 eta 12:20
 - TSST: Asteasura doan linea.
 - Tolosaldeak dituen garraio ezaugarriek zaildu egiten dute ohiko zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoa. Mugikortasun gutxiko herrietan ezin da kalitatezko ohiko zerbitzu bat jarri eta horregatik eskaria bete eta ibilbide finkoa duen taxi-zerbitzu osagarri bat ezarria dago. Zizurkilgo zerbitzua osatzeko, Villabona-Zizurkilen 5 taxi lizentzia daude.
- RENFE: Villabona eta Zizurkilek tren geltoki bakarra dute, Brinkola-Irun lineakoa. Egunero 1098 pertsona igotzen dira geltoki honetan, eta 1063 jaitsi
 - Erabiltzaileen profila:
 - %71,9 emakumezkoak dira.
 - 53,5 16-29 urte bitartekoak
 - %85,8 ohiko erabiltzaileak.
- Nazioarteko zabalera duen (UIC) Ibilbide Luzeko Trenbide Sare Berria ("Euskal Y"): Toloserriko Eskualde Egiturari dagokionean trenbide honek Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Asteasu, Zizurkil, Aduna eta Andoain zeharkatuko lituzke.

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK

- Zizurkil Behea nahiko ondo komunikatuta dago, Zizurkil Goikoaren egoera konplexuagoa da
- Bono-Taxia: zerbitzua Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen da. Ondo funtzionatzen du. Pertsona ezinduei zuzendutako zerbitzua da.
- Euskal Y: Lur mugimenduak, obra-hondakindegia...Udalean badaude zenbait plano eta horietan Zizurkilgo zein puntutatik pasako den ikus liteke.

DATUAK

- Bidegorriak
 - Gaur egun Zizurkilen ez dago bidegorririk.
 - “Aiztondo Bailarako Amasa-Villabona, Zizurkil eta Asteasu herriguneak lotuko dituen bidegorri aurreproiektua” 2.004ko uztailean aurkeztu zen, nahiz eta oraindik onartzeke dagoen. Zizurkilen 1.650m-tako luzera izango luke.

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK

Proiektu hau Gipuzkoako bizikleta bideen sarean sartuko litzateke.---

DATUAK

Irisgarritasuna: 1999an egin zen Irisgarritasun plana baina ez da burutu. Gauza puntualak egin dira beste zenbait obra aprobetxatuz. Irisgarritasun Plana eguneratu beharra dago.

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK

Plana beti izaten da kontutan, bai eremu berrietan baita zaharrak berritzean ere. Edozein kasutan, Plana eguneratu/berrikusi beharko litzateke zer bete den eta zer ez ikusteko.

INGURUMEN BEKTOREAK: URA

DATUAK

- Hornidura: Alkizako Ikili baserriaren ondoan dagoen gainazaleko ur-hartunetik hornitzen da herria. . Ur-hartune honek, Saluate eta Aretako gordailuak hornitzen ditu. Aretak, Azkarate depositua elikatzen du. Ur-hornidura eta banaketaren sareak osatzen dituen hoditeriak 32.000m-ko luzera du, horietatik 26.000 banaketa sareari dagokiolarik
- Uraren kalitatea:
 - 2003: Txarra (edateko txarra bezala kalifikatuta %10 baino analisi gehiagotan)
 - 2004: Txarra (edateko txarra bezala kalifikatuta %10 baino analisi gehiagotan)

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK

Kasuen %95ean analisisien emaitzek ura ez edangarritzat ematearen arrazoia uhertasuna da. Edateko uretan baimendutako uhertasun maila jaitsi egin dute. Euri jasen ondorioz uhertasuna sortzen da. Gaur egungo ur biltegiak ez dauka dekantazio sistemarik. Ibiur urtegiak arazoa konponduko du. Ezin da ziurtasunez esan noiz jarriko den martxan.

Bacteria Clostridium: baimendutako maila gainditzen bada hodiak purgatzeko dira. Hiruhilabetero hodi guztiak purgatzeko dira. Egungo ur biltegia: desinfekzio sistema, hipokloritoarekin, nahiko hobetu da. Sistema honek automatikoki uhertasun mailaren arabera erregulatzen du klorazio maila.

Hornikuntza sarea Ibiur martxan jartzen denerako egokituta dago.

DATUAK

- Kontsumoa:
 - 2002-2004 artean etxeetako ur kontsumoa %9,8an jaitsi da. Gainontzekoen kontsumoa aldiz igo egin da (%23,87). Guztira ur kontsumoak beherakada txiki bat jasan du (%1,23)
 - Aipagarria da 2004ko bigarren hiruhilekoan ur kontsumoan antzemandako gorakada

		2004	
		Kontsumoa	fakturazioa
Gainontzekoa	1. hiruhilekoa	14.985	14.968
	2. hiruhilekoa	21.538	21.469
	3. hiruhilekoa	13.965	13.869
	4. hiruhilekoa	11.074	11.141
	Gainontzekoa guztira	61.562	61.447

IRUZKIN ETA ZUZENKETAK

- Kontsumoaren datuekin dudak sortzen dira. ANSAko ordezkariak adierazten duenez, hiruhilabeterko kontsumoak 45.000-50.000 ingurukoak izaten dira. Datuak begiratzea adosten da (bilera ondoren, datuak begiratu eta egokiak direla ikusten da) .
- Galera arazoak: Beheko eremua normaltasunaren barruan dago. Zizurkil Goikoan galera handiak daude (%60 inguruko errendimendua), ihes puntuak kokatzeko inbertitu beharra dago.
